

**Fiskalizazio Txostena**

**Informe de Fiscalización**

**Arabako Lurralde Historikoaren  
Kontu Orokorraren  
fiskalizazio txostena**

**Informe de Fiscalización  
de la Cuenta General  
del Territorio Histórico  
de Álava**

**2007**



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas





## AURKIBIDEA/ÍNDICE

SARRERA.....	7
--------------	---

### SEKTORE PUBLIKO ADMINISTRATIBOA

I. IRITZIA.....	9
-----------------	---

I.1 Legea betetzeari buruzko iritzia .....	9
A. Arabako Foru Aldundia (AFA) .....	9
B. Gizarte Ongizaterako Foru Institutua (GOFI) .....	12
C. Gazteriaren Foru Erakundea (GFE) .....	13
I.2 Kontuen gaineko iritzia.....	13
A. Arabako Foru Aldundia (AFA) .....	13
B. Gizarte Ongizaterako Foru Institutua (GOFI) .....	13
C. Gazteriaren Foru Erakundea (GFE) .....	13

### SEKTORE PUBLIKO ENPRESARIALA

I. IRITZIA.....	14
-----------------	----

I.1 Legea betetzeari buruzko iritzia .....	14
I.2 Kontuen gaineko iritzia.....	15

### II. BARNE KONTROLERAKO SISTEMARI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI

BURUZKO IRIZPENAK .....	16
A ARABAKO FORU ALDUNDIA (AFA) .....	16
II.A.1 Aurrekontu eta kontularitzako gaiak. ....	16
II.A.2 Diru-sarrerak .....	16
II.A.3 Erosketak eta inbertsioak.....	17
II.A.4 Diru-laguntzak.....	20
II.A.5 Langileen gastuak.....	25
B GIZARTE ONGIZATERAKO FORU INSTITUTUA (GOFI) .....	25
C GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA (GFE) .....	28
D FORU ENPRESA PUBLIKOAK .....	29

III. FINANTZEN ANALISIA .....	32
-------------------------------	----

III.1 Sektorre publiko administratiboa .....	32
III.2 Sektorre publiko enpresariala.....	42



<b>IV. ALH-AREN FORU SEKTORE PUBLIKOAREN KONTUAK .....</b>	<b>44</b>
IV.1 Foru Aldundiaren Kontuak.....	45
IV.2 Erakundearen Administrazioaren Kontuak .....	50
<b>INTRODUCCIÓN.....</b>	<b>57</b>
<b>SECTOR PÚBLICO ADMINISTRATIVO</b>	
<b>I. OPINIÓN.....</b>	<b>59</b>
I.1 Opinión sobre el cumplimiento de legalidad .....	59
A. Diputación Foral de Álava (DFA) .....	59
B. Instituto Foral de Bienestar Social (IFBS).....	62
C. Instituto Foral de la Juventud (IFJ) .....	63
I.2 Opinión sobre las cuentas.....	63
A. Diputación Foral de Álava (DFA) .....	63
B. Instituto Foral de Bienestar Social (IFBS).....	63
C. Instituto Foral de la Juventud (IFJ) .....	63
<b>SECTOR PÚBLICO EMPRESARIAL</b>	
<b>I. OPINIÓN.....</b>	<b>64</b>
I.1 Opinión sobre el cumplimiento de legalidad .....	64
I.2 Opinión sobre las cuentas.....	65
<b>II. CONSIDERACIONES SOBRE EL SISTEMA DE CONTROL</b>	
<b>INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN .....</b>	<b>66</b>
<b>A DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA (DFA) .....</b>	<b>66</b>
II.A.1 Aspectos presupuestarios y contables.....	66
II.A.2 Ingresos.....	66
II.A.3 Compras e inversiones.....	67
II.A.4 Subvenciones.....	71
II.A.5 Gastos de personal .....	76
<b>B INSTITUTO FORAL DE BIENESTAR SOCIAL (IFBS) .....</b>	<b>76</b>
<b>C INSTITUTO FORAL DE LA JUVENTUD (IFJ).....</b>	<b>77</b>
<b>D EMPRESAS PÚBLICAS FORALES .....</b>	<b>79</b>



<b>III. ANÁLISIS FINANCIERO .....</b>	<b>82</b>
III.1 Sector público administrativo.....	82
III.2 Sector público empresarial.....	93
<b>IV. CUENTAS DEL SECTOR PÚBLICO FORAL DEL THA .....</b>	<b>96</b>
IV.1 Cuentas de la Diputación Foral .....	96
IV.2 Cuentas de la Administración Institucional.....	101
<b>ANEXOS .....</b>	<b>109</b>
<b>A. DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA.....</b>	<b>109</b>
A.1 Prórroga presupuestaria.....	111
A.2 Modificaciones presupuestarias .....	112
A.3 Liquidación del presupuesto de ingresos.....	114
A.3.1 Impuestos, tasas y otros ingresos.....	115
A.3.2 Ingresos por transferencias y subvenciones.....	118
A.3.3 Ingresos patrimoniales .....	120
A.3.4 Enajenación de inversiones reales.....	121
A.3.5 Variación de activos financieros.....	121
A.4 Liquidación del presupuesto de gastos.....	122
A.4.1 Gastos de personal .....	123
A.4.2 Gastos de bienes corrientes y servicios.....	126
A.4.3 Gastos financieros.....	127
A.4.4 Transferencias y subvenciones corrientes y de capital.....	128
A.4.5 Inversiones reales.....	132
A.4.6 Variación de activos financieros.....	132
A.5 Gastos plurianuales .....	134
A.6 Balance de situación .....	135
A.6.1 Inmovilizado .....	135
A.6.2 Inmovilizado financiero .....	136
A.6.3 Deudores presupuestarios .....	138
A.6.4 Tesorería.....	141
A.6.5 Fondos propios .....	143
A.6.6 Estado de la deuda .....	143
A.6.7 Acreedores presupuestarios .....	144
A.6.8 Deudores y acreedores extrapresupuestarios .....	144
A.7 Avaluos concedidos .....	146
A.8 Contratación administrativa.....	146
A.9 Análisis de las subvenciones concedidas .....	150



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

B	INSTITUTO FORAL DE BIENESTAR SOCIAL .....	154
C	INSTITUTO FORAL DE LA JUVENTUD .....	160
D	EMPRESAS PÚBLICAS FORALES .....	162
ALEGAZIOAK .....		173
ALEGACIONES .....		239

Vitoria-Gasteiz, 2009ko azaroaren 11

Vitoria-Gasteiz, 11 de noviembre de 2009



## SARRERA

Fiskalizazio txosten hau Arabako Lurralde Historikoaren foru sektore publikoak 2008ko ekitaldian buruturiko ekonomia eta finantza jarduerari buruzkoa da, eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren (aurrerantzean HKEE) 1/1988 Legearen arabera burutu da, 2008rako HKEEren lanerako programan jasoa dagoela.

Fiskalizazioak honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezkoak: ezargarria den arautegia honako alor hauetan betetzen dela egiaztatzea: aurrekontua, zorpetzea, finantza-eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak, diru-laguntzak eta laguntza publikoak eta zuzenbide publikoko diru-sarrerak.
- Kontularitzakoak: Kontu Orokorra ezargarriak diren kontularitzako printzipioen arabera mamitu den aztertuko dugu.
- Finantza azterketa, bai foru administrazio publikoaren aurrekontu likidazioari dagokionez, bai foru administrazio publikoaren eta foru enpresa publikoen egoera ekonomikoari dagokionez ere.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta zuhurtasunari buruzko azterlanik besarkatzen. Nolanahi ere, azaleratu diren hutsak “barne kontrolerako sistemari buruzko irizpenak” idazpuruan zehaztu ditugu, horiek hobetzeko gomendioekin batera.

Txostenean foru sektore publikoa honako azpisektore hauetan biltzen da:

## SEKTORE PUBLIKO ADMINISTRATIBOA

Foru administrazio publikoaren azpisektorea honako entitate hauek osatzen dute:

- Arabako Foru Aldundia
- Gizarte Ongizaterako Foru Institutua (GOFI). Erakunde autonomo administratibo honek gizarte zerbitzuekin zerikusia duten jarduerak antolatu, kudeatu, bideratu eta gauzatzeko ardura du.
- Gazteriaren Foru Institutua (GFI), gazteriaren erabateko prestakuntza eta sustapenera emandako erakunde autonomo administratiboa da.

## SEKTORE PUBLIKO ENPRESARIALA

Foru administrazio publikoaren azpisektorea honako entitate hauek osatzen dute:

- AFaren sozietate publikoak. Sozietate horien kapitalean Aldundiak duen partaidetza ehuneko 50ekoa baino handiagoa da. Hona hemen zein diren:



Sozietate publikoak	%	
	Partaidetza	Xedea
• Araba Garapen Agentzia, SA (AGA) .....	100	Industrializazioa bultzatu eta sustatzea.
• Naturgolf, SA.....	99,98	Inguru naturalarekin lotutako hainbat jarduera, inguru sozio-ekonomikoaren garapen eta hobekuntzan lagunduko dutenak, aberastasun eta lanaren sortzaile, natur parkeen kudeaketa barne hartuta. Gaur egun, jarduera nagusia Urturi y Lagrango golf zelaien ustiapenera emana dago.
• Arabako Kalkulu Zentroa, SA .....	100	Ustiapen eta garapen informatikoarekin lotutako zerbitzuak ematea.
• Ondarea Kudeatzeko Sozietate Anonimoa Arabako Kultura Eraikia (Arabarri) .....	55,9	Birgaitze integratuko alorren esparruan hainbat jarduera.
• Arabako Lanak, SA .....	100	Azpiegituren obra publikoak proiektatu, eraiki, zaindu eta ustiatzea, bere izenean edo Arabako Foru Aldundiaren kontura.
• Fernando Buesa Arena, SA.....	100	Fernando Buesa Arena erabilera anitzeko aretoaren kudeaketa ekonomiko integrala eta ikuskizunen antolamendua.
• Araba Uraren Agentzia, SA .....	100	Ur eta lur ureztatuen hornidura eta saneamendu gaiet. aholkularitza tekniko eskaintzea; baita zerbitzu horiek Arabako Lurralde Historikoan ematearekin lotutako jarduera guztiak ere.
• Arabako Bideak, SA .....	100	Arabako Lurralde Historikoan zehar igarotzean Vitoria-Gasteiz -Eibar A-1 Autobidea eraiki, zaindu, mantendu eta berez edo hirugarren pertsonen bitartez ustiatzea.
• Laudioko Elkartegia, SA .....	89,2	Industri sustapena.
• Asparrenako Elkartegia, SA .....	98	Industri sustapena.





## **SEKTORE PUBLIKO ADMINISTRATIBOA**

### **I. IRITZIA**

#### **I.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA**

##### **A. ARABAKO FORU ALDUNDIA (AFA)**

###### **ZERGA SALBUESPENAK, KENKARIAK ETA HOBARIAK (ikus A.3.1 Eranskina)**

1.- 2009ko irailaren 9an Europako Batasuneko Lehen Auzialdiko Epaitegiak ezetsi egin ditu AFAk aurkeztutako errekurtsuak, Europako Batzordeak 18/1993 FAren 14. artikulua, 22/1994 FAren Xedapen Gehigarri 6.a eta 24/1996 FAren 26. artikulua ez-legezko izendatzeko erabakiari dagokionez. 2009ko urriaren 20an Diputatuen Kontseiluak erabaki du aurreko epaien aurka Europako Erkidegoetako Justizia Epaitegiaren aurrean kasazio errekurtsua jartzea.

Halaber, ebazteko daude 57 enpresak Foru Epaitegi Ekonomiko Administratiboaren aurrean aurkeztutako errekurtsuak, jasotako laguntza fiskalak itzultzeko agintzen dien GFAREN ebazpenei dagokienez eta beste 13 enpresek aurkeztutakoak, horien ebazpenak inongo itzulerarik eragingo ez duela. Honez gainera, 4 enpresak errekurtsuak aurkeztu dituzte Euskal Herriko Justizia Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzien Auzitegiko Aretoaren aurrean ondarearekiko kalteagatik, gaur egun arte AFARI inongo jardueraren berri eman ez zaiola. Bestalde, Europar Batzordeak ez du GFAK hartutako erabakien exekuzioari dagokionez gauzatutako jardueren gaineko irizpenik eman txosten hau idatzi dugun datan.

### **AURREKONTUA**

2.- Diputatuen Kontseiluak Batzar Nagusien aurrean 2007ko urterako Arabako Lurralde Historikoaren Aurrekontu Exekuzioaren Foru-Arau Proiektua aurkeztu zuen eta gerora, Batzar Nagusiek onetsi edo itzuli aurretik erretiratu egin zuen, Arabako Lurralde Historikoaren Araubide Ekonomiko eta Aurrekontuzkoari buruzko 53/1992 FAren 46. artikulua urratuz.

3.- Bestalde, AFAK 2007ko ekitaldian 2006ko aurrekontuetan aurreikusitako hainbat diru-laguntza luzatu ditu; ordea, ez dago 2007an izenpetutako erabaki edo hitzarmenik urteanitzeko eragimena aurreikusiko duenik eta honenbestez, 11/2004 FAK emandako idazkeran 53/1992 FAren 87.3 artikulua urratzen du. Aztertu ditugun diru-laguntzetatik ez-betetze hau oinarri-arau erregulatzailer bitartez emandako diru-laguntzetan azaleratu da, 6.060 mila euroko zenbatekoarekin; baita, publizitate eta lehiatik salbuetsitako diru-laguntzetan ere, 160 mila euroko zenbatekoarekin.

4.- AFAK 1.107 mila euroko gaitutako kredituak barne hartzen ditu, sortze berriko kontusailei dagozkienak, AFAREN sarrera-aurreikuspenen eta luzatutako kredituen kopuruaren arteko aldearekin finantzatutakoak eta aurrekontu luzapenaren araubidea



arautzen duen abenduaren 28ko 83/2006 FAREN Xedapen Gehigarri 3.ean aurreikusitako inongo suposamenduetara egokitu gabe.

## AURREKONTUETAKO DIRU-SARRERAK

5.- Finantza Publikoen Euskal Kontseiluak 2008ko otsailaren 13an ondoko eduki honekin aparteko ekarpena egiteko erabakia hartu zuen:

- 2007ko ekitaldi itxierako azken emaitzak ikusita, Eusko Jaurlaritzak 21.012 mila euro ekarriko ditu eta Bizkaiko Foru Aldundiak 8.988 mila euro, Araba eta Gipuzkoako Foru Aldundien artean zati-banatzeko, hurrenez hurren 21.000 eta 9.000 mila euroko zenbatekoekin.
- Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiek behin-betiko kitatu eta baliogabetutzat jo dituzte zergazko foru administrazioen arteko erreklamazio guztiak, kudeaketan izandako desadostasunen, beste administrazio batzuetan okerreko diru-sarrereren eta zerga mailako beste auzi batzuen ondorioz, data honetan erabakitzeke daudenak.

Foru Administrazioen arteko erreklamazioak, kitatu eta indargabetuak daudenak, ez dira ez xehatu, ezta zenbatetsi ere; gainera, aparteko kontribuzioen ekarpenak ez daude arrazoituak ez da erakundearteko finantza fluxuen zenbatespena justifikatu.

6.- AFAk ez du Finantza Publikoetarako Euskal Kontseiluari jakinarazitako itunpeko sarrereren baitan barne hartu 1.000 mila euroko zenbatekodun zerga zorren ordainketa modura AFAk aurreko urteetan jasotako ondasun baten balorazioa, Araba Garapen Agentzia, SA sozietate publikoari emandakoa, sozietate honek adituen tasazioaren arabera 2.670 mila euroko zenbatekoarekin 2007ko otsailean gauzatutako kapitalezko zabalketa hitzartu eta ordaintzeko, eta honek martxoaren 23ko EAeko aurrekontuen finantzaketarako Foru Aldundien Ekarpenean 2/2007 Legearen 24. artikuluan xedatutakoa urratzen du, 2007-2011 aldiari ezargarri zaiona. 2009an, berriz, AFAk dagokion dokumentazioa Zergak Koordinatzeko Organoari igorri dio.

7.- Halaber, 2007an emandako beste zatikapen espediente batean, zatikatutako zerga zorrak 445 mila euroko printzipala duenean, ez da emakida erabakian aurreikusitako bermea eratu, eta beste batean, 252 mila eurokoan, aurkeztutako bermeak ez dira zatikatutako zor guztiak bermatzeko behar hainbatekoak (6/2005 Arabako Zergazko Foru Arao Orokorraren 79. artikulua).

8.- AFAk ibilgetu materialaren barruan zerga zor baten ordainerako emate modura eskuratutako artelan bat barne hartu du, 103 mila euroko zenbatekoan. Espedientean ez da justifikatu zerga zorraren ordainketa modura emateko apartekotasuna justifikatzen eta gainera, ez da existitzen kultur intereseko alde aurreko adierazpenik, Arabako Zergazko 6/2005 FA Orokorraren 59.2 artikulua urratuz. Bestalde, ez da ondasunaren gaineko adituen tasaziorik egin, ALHren Ondareari buruzko 5/1998 FAREN 34. artikulua urratuz.



## LANGILERIA

9.- AFAk ez ditu Norbanakoen Urteko Irabazien gaineko Zergaren aitortpen fiskaletan barne hartu 24 goi karguduni 162 mila euroan ordaindutako kargu-uzte pentsioak, ez baitira NUIZi meneratutako ordainsaritzat hartzen; zerga arautegiak, ordea, ordainsari hauei dagokienez ez du salbuespena aurreikusten.

## ADMINISTRAZIO KONTRATAZIOA

10.- Lehiaketa bidez 1.290 mila euroan esleitutako zerbitzu espediente batean (19 zk.ko esp.), ez da dagokion lizitazio iragarkia ez DOUEn, ez BOEn argitara eman (B1 akatsa).

11.- AFAk publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bitartez eta bestelako eskaintzarik batere eskatu gabe 275 mila euroko zenbatekoan lau espediente esleitu ditu (5, 13, 16 eta 17 zk.ko esp.), berariazkotasun teknikoagatiko eskusibitate suposamenduak baliatuz eta prozedura hori erabiltzea bideratuko duten inguruabarrak egiaztatu gabe; hori dela eta, beste lehiatzaile batzuei eskatu behar zitzaizkiekeen eskariak edo lehiaketari publizitatea eman (B8 akatsa).

## DIRU-LAGUNTZAK

12.- Publizitate eta lehia egitetik salbuestea justifikatzen duten txostenak ez daude behar bezain arrazoituak irabazi asmorik gabeko bi erakunderi emandako diru-laguntzetan, 514 mila euroko zenbatekoa egin dutenetan (A.9 eranskineko A1 akatsa).

13.- Arabako Nekazal Sektoreari Laguntzak emateko Plana arautzen duen 47/2004 FDak artikulatuaren barruan landabideak egin, hobetu eta mantentzeko toki erakundeei diru-laguntzak ematea du aurreikusia, Landa-azpiegituren hobekuntza lerroaren barruan jasoak. Foru dekretu horretan ez dira hautaketa irizpide objektiboak, ez neurtuak ezartzen eta Diputatuen Kontseiluak ebazten dituen ebazpenek ez dute aurkeztutako eskabideen ematea edo ezetza justifikatzen. 2007ko urtean zehar, emandako diru-laguntzek 2.249 mila euro egiten dituzte.

Epaitegi honen ustetan, Arabako Foru Aldundiak, 1. paragrafoan azaldutako zalantza-egoera eta ondoko idatz-zatietan aipatutako lege-hausteak alde batera, zuzentasunez bete du 2007ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege araudia.



## **B. GIZARTE ONGIZATERAKO FORU INSTITUTUA (GOFI)**

1.- GOFIk zuzenean kontratatatu du enpresa batekin gasoleoaren hornidura, 99 mila euroko zenbatekoarekin, dagokion kontratazio prozedura izapidetu gabe.

2.- GOFIk ez du Norbanakoen Urteko Irabazien gaineko Zergaren aitortpen fiskaletan barne hartu goi kargudun bati ordaindutako 6 mila euroko kargu-uzte pentsioa, ez baita NUIZI meneratutako ordainsaritzat hartzen; zerga arautegiak, ordea, ordainsari hauei dagokienez ez du salbuespena aurreikusten.

3.- Elikaduraren hornidura kontratatzeke espedientean, 2007ko ekitaldian 501 mila euroko gastua eragin duenean, lehiaketa iragarkia ez da ez DOUEn, ez BOEn argitaratu (B.5 eranskinaren A2 akatsa).

4. Ontziratzeke makina baten hornidura kontratatzeke espedientean, 101 mila euro egin dituen, lehia mugatu da gehiegi zehaztu direlako hornigaiaren ezaugarri teknikoak (B5 eranskineko A3 akatsa).

5.- GOFIk urriaren 26an minusbaliotasun fisiko larriak dituzten pertsonentzako egoitza-arreta zerbitzu publikoaren kudeaketa esleitu zuen 74 mila euroko zenbatekoarekin eta publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez; ordea, prozedura hori ez da justifikatu, APKLTBren 13. artikuluekin loturik dagoen 159.2 artikulua urratuz (A4 akatsa), esleipen hartzailea zerbitzua urtarrilaz geroztik eman duen enpresa bera izan delarik, inongo lege babesik gabe eta 152 mila euroko zenbatekoarekin. Esleipenaren ondoren, 2007ko urriaren 1etik 2007ko abenduaren 31ra arteko ondorio ekonomikoak izango zituen kontratua izenpetu zen, APKLTBren 54.4 artikuluan adierazitakoa urratuz (C1 akatsa).

6.- 2008ko urterako Vitoria-Gasteizko udalerrian mendekotasuna duten pertsona helduentzako egoitza-arreta zerbitzu publikoaren kudeaketa kontratatzeke espedientea 1.171 mila euroko zenbatekoarekin eta prozedura negoziatu bidez enpresa bati esleitu zaio; ordea, espedientean ez da justifikatu lehiaketa bideratzeko ezintasuna, APKLTBren 159.2 artikulua urratuz (B5 eranskinaren A5 akatsa).

Epaitegi honen iritzira, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak, aurreko idatz-zatietan azaldutako salbuespenak alde batera, zuzentasunez bete du 2007ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jardura arautzen duen lege arautegia.



## **C. GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA (GFE)**

1.- GFEk ez ditu Norbanakoen Urteko Irabazien gaineko Zergaren aitorten fiskaletan barne hartu goi kargudun bati 6 mila euroan ordaindutako kargu-uzte pentsioa, ez baita NUIZi meneratutako ordainsaritzat hartzen; zerga arautegiak, ordea, ordainsari hauei dagokienez ez du salbuespena aurreikusten.

Epaitegi honen ustetan, Gazteriaren Foru Erakundeak, aurreko idatz-zatian azaldutako salbuespena alde batera, zuzentasunez bete du 2007ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

## **I.2 KONTUEN GAINKO IRITZIA**

### **A. ARABAKO FORU ALDUNDIA (AFA)**

Epaitegi honen iritzira, Arabako Lurralde Historikoaren Foru Administrazioaren Kontu Orokorrak alderdi esanguratsu guztietan 2007ko aurrekontu ekitaldiaren jarduera ekonomikoa erakusten du, ondarearen eta 2007ko abenduaren 31n finantza egoeraren isla leiala eta ekitaldian zehar bere eragiketen emaitzena.

### **B. GIZARTE ONGIZATERAKO FORU INSTITUTUA (GOFI)**

Epaitegi honen iritzira, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen urteko kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2007ko aurrekontu ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta ondarearen, data horretan amaitutako ekitaldiaren finantza egoeraren eta bere eragiketen emaitzen isla leiala erakusten dute.

### **C. GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA (GFE)**

Epaitegi honen iritzira, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2007ko aurrekontu ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta ondarearen, data horretan amaitutako ekitaldiaren finantza egoeraren eta bere eragiketen emaitzen isla leiala erakusten dute.



## SEKTORE PUBLIKO ENPRESARIALA

### I. IRITZIA

#### I.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

##### LANGILERIA

1. **Langileak kontratatzea:** Arabako Kalkulu Zentroa, SA sozietateak, bi langile finko hautatzeko, berariaz gaitutako enpresa batekin hautaketa prozesuak kontratatu ditu, deialdiei publikitatea eman eta sozietateei prozesuaren gaineko azken txostena ematen dienak, izangaien azken zerrenda proposatuz. Azken txosten horrekin batera aurrehautatutako izangaiak barne hartzea edo ez justifikatu edo euskarrituko duen dokumentaziorik aurkezten ez denez, ezin egiaztatu izan dugu horien kontratazioan berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak gorde direnik.

2. **Langileak kontratatzea:** 2007an Naturgolf, SAK aldi baterako hiru langile eta Arabako Kalkulu Zentroa, SAK bi langile behar hainbateko publikitaterik gabe kontratatu dituzte, deialdiaren oinarri-arauak eskuratzeko moduaren eta jarraitu beharreko prozeduraren berri ez baita eman edo adierazi eta ez baita zehaztu eskaintzen den kontratu-lotura (aldi baterakoa edo mugagabea), ez eta jarraitu beharreko prozesua eta bermeak.

Bestalde, Naturgolf, SAK jarraitutako prozesuan ez da proba objektiboak egitea aurreikusi eta proba erabakigarritzat hartzen da elkarrizketa, zehaztu gabe uzten direlarik bai ezargarri diren irizpide objektiboak, bai proben izaera baztergarria ere, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak urratuz.

3. **Kargu-uzte pentsioak:** Zazpi sozietate publikoek ez dituzte Norbanakoen Urteko Irabazien gaineko Zergaren aitorten fiskaletan barne hartu goi kargudunei 39 mila euroan ordaindutako kargu-uzte pentsioak, ez baitira NUIZi meneratutako ordainsaritzat hartzen; zerga arautegiak, ordea, ordainsari hauei dagokienez ez du salbuespena aurreikusten.

#### ONDASUN EROSKETA ETA ZERBITZUAK (Ikus D.5 eranskina)

4. **Araba Garapen Agentzia, SAK** berdeguneak zaindu, berritu eta hobetzeko lanak kontratatu ditu; baita, 600 mila euroko zenbatekoarekin 2007 eta 2008ko ekitaldietarako hainbat poligonotan mantenu lanak egitea ere, APKLTBren 2.1 artikulua aginduak bete gabe (publizitatea buletineta, sailkapena, e.a.) (A1 akatsa).

Bestalde, garraio-linearen emakidadun den enpresaren eta AAD, SAREN artean izenpetutako lankidetzaren hitzarmen baten bitartez, helburua Gojaingo industri poligonora bertako enpresetako langileak eramatea duena, sozietateak bidaiarien garraio zerbitzuaren kudeaketa egiteko konpromisoa hartu du; ordea, jarduera hau ez dator bat bere xede sozialarekin eta 2007ko ekitaldian 90 mila euroko gastua eragin du (E akatsa).



5. Arabarri, SAK, Kontrastako murrua sendotzeko lanak 103 mila euroko zenbatekoarekin kontratatu ditu APKLren 182 d) artikuluan aurreikusitako publizitaterik gabeko prozedura bitartez, behar bezala justifikatu ez dela; honenbestez, publizitate eta lehia printzipioak urratu dira (A2 akatsa).

6. Arabako Kalkulu Zentroa, SAK, publizitate eta lehia printzipioak gorde gabe esleitu du 69 mila euroko zenbatekoarekin Arabako toki entitateen informatikako kudeaketa sistema euskarrizten duen komunikazio globalaren mantentze eta euskarri sistema, jada aurreko beste kontratu baten luzapen modura (Erabiltzaileak Artatzeko Zentroari laguntza teknikoa eta AFaren eta beste erakunde publiko batzuen mikroinformatikako ingurunearen mantentzea) beste esleipen-hartzaile batek ematen zuena (A3 akatsa).

## EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK

7. Araba Garapen Agentzia, SAK, bi lankidetzaz hitzarmenen bitartez guztira 300 mila euroko diru-laguntzak eman ditu, objektibotasun, publizitate eta lehia printzipioak urratuz.

Epaitegi honen ustetan, foru sozietate publikoek, aurreko idatz-zatietan aipatutako lege hausteak alde batera, zuzentasunez bete dute 2007ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jardura arautzen duen lege arautegia.

## I.2 KONTUEN GAINEKO IRITZIA

Epaitegi honen iritzira, foru sozietate publikoen urteko kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2007ko ekitaldiaren jardura ekonomikoa erakusten dute, ondarearen eta 2007ko abenduaren 31n finantza egoeraren isla leiala eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian zehar bere eragiketen emaitzena.



## **II. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEN ETA KUDEAKETA PROZEDUREN GAINEKO IRIZPENAK**

Atal honetan jaso dira bai ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioen betetzea nabarmen eragiten ez duten hutsak, bai prozedurazko alderdiak ere, kudeaketa hobetzeko azaleratu ditugunak.

### **A. ARABAKO FORU ALDUNDIA (AFA)**

#### **II.A.1 AURREKONTU ETA KONTULARITZAKO GAIAK**

1.1 Aurrekontu luzapena: 2007ko ekitaldian, aurrekontua ez aurkeztu izanak luzapenaren erregimenaren arabera gauzatu behar izatea ekarri du. Luzapenari buruzko arautegiak ez du urtarilaren lean indarrean sartzen den sarreraren aurrekontuaren berri ematen. Horren indarrez, Aldundiak 2007rako aurrekontuen egitasmoaren balioespenak barne hartzea erabaki zuen, zerga sarrera eta erakunde konpromisoei dagokienez izan ezik, Finantzen Euskal Kontseiluak onetsitako zenbatekoen arabera aurrekontuetaratu zirenak. Irizpide honek 15.709 mila euroko hasierako aurrekontu desorekatua sortu zuen.

Honez gain, 6. kapituluko hainbat aurrekontu kontu-sail luzatu dira, 2.727 mila euroko zenbatekoa egiten zutenak eta zalantzazkoa da horiek birjartze eta mantentzekotzat hartzea. AFAk aztertu egin beharko lituzke kontu-sail horiek eta birjartze eta mantentzekoak direnak soil-soilik luzatu.

Bestalde, luzatutako aurrekontuak ez du hasierako kredituetan gastuen 7. kapitulari dagokion kontu-saila barne hartzen, erakunde-konpromisotzat hartutakoa, gerora, gaikuntza bidez 1.004 mila euroko zenbatekoarekin hornitu zena.

#### **II.A.2 DIRU-SARRERAK**

2.1 Sarreraren kudeaketa: Zerga dokumentazio guztiaren informatizazioa Ogasun Zuzendaritzaren Diru-bilketa Fiskaleko Zerbitzuak egiten du eta hori guztia Tributuen Zerbitzuek egiaztatzen dute. Agiri horiek erregistratzen Diru-bilketa Fiskalaren Zerbitzuak egiten dituen laburpenak sortzen dira, kontabilizazioaren euskarri direnak. Kontabilitatean, berriz, funtsen mugimendua soilik egiaztatzen da eta kontularitzako agirietan artekaritza formala baizik ez da egiten.

Informazio fiskalaren atal bat eskuz kontrolatzen da. Horietan bereziki gailentzen dira egoera berezietan emandako geroratze eta zatikapenak, geroratze kontua, errekurritutako zerga-zorra eta ordaindu gabeko zorra Derrigorrezko diru-bilketa agentziara igortzea.

Kontularitzako erregistroek oinarrizko helburu den kontrol-egitekoa gauzatu behar dute, kontularitzako sistemak informazio guztia jasotzen duelako ziurtasuna izateko moduan; honenbestez, lehentasun erabatekoa eman behar zaio prozesuen automatizazioaren bitartez kudeaketari buruzko informazioaren kalitatea hobetzeari eta kontularitzan diru-bilketa zerbitzuaren informazioa barne hartzeari.





Berebat, gomendagarria litzateke Finantza eta Aurrekontuen Zuzendaritzak jatorri fiskaleko eragiketen egiaztaketak egitea.

## 2.2 Zatikapenak:

- 2007ko ekitaldian zatikapena eman zitzaien bi zordunei, 625 mila euroko printzipalaren gainean, zatikapena arautegi erregulatzailan finkatutako gehienezko epea (11 hilabete).
- 350 mila euroko printzipala zuen zordun bati bermerik gabe zerga zorren zatikapena eman zaio, ALHren Diru-bilketa Erregelamenduaren 62. artikuluan jasotako dokumentazio guztia aurkeztu gabe (AFAk bere banku kontu guztien saldo eta kontu-mugimendu guztiak ezagutu ahal izateko ezinbesteko baimen dena). Zordun honek, 171 mila eurokoak, ez dio onetsitako ordainketa planari aurre egin eta premiamendura pasa da.

## II.A.3 EROSKETAK ETA INBERTSIOAK

### Kontratu txikiak eta beste

3.1 2007ko urtean zehar, AFAk indarrean eutsi dio 1990ean gauzatutako derrigorrezko diru-bilketa agentzia zerbitzua emateko administrazio kontratuari; kontratu honen luzapena 2006ko urtarrilaren 31n akats modura barne hartu zen AFAREN 2006ko txostenean.

3.2 Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketa eta inbertsioen administrazio kontratu txikietan, prozedura negoziatu bitartez izapidetu behar ziratekeen hainbat erosketa azaleratu zaizkigu, 1.288 mila eurokoak, ezaugarri bereko edo antzeko beste hainbat gauzatu baitira urtean zehar, edo hornitzaile berari data beretan antzeko eskaria egin baitzitzaion (ikus A.8.3 eranskina).

### 2007ko esleipenak eta aurreko urteetako kontratuak (Ikus A.8.1 eta A.8.2 eranskina)

2007an 20.836 mila euroan esleitutako 21 espediente aztertu ditugu eta aurreko urteetan esleitutako beste 26 espedienteren jarraipena egin, 2007an 53.002 mila euroko exekuzioa izan dutenak. Honako alderdi hauek nabarmenduko ditugu:

3.3 Aurreko urteetan 1.514 mila euroan esleitutako obra kontratu batean (42 zk.ko esp.), obrei 2007ko ekainean ekin zitzaien eraisteko baimen batekin soilik, behin-betiko lizentzia jaso zain, 2007ko azaroan eskuratuko dena (A1 akatsa) eta birplanteaketa egiaztatzeko akta gauzatu gabe (C1 akatsa). Gainera, 2007ko uztailaren lehenengo egiaztagiraren ondoren eta 2008ra arte ez da inongo hileroko ziurtagiririk jaulki (C11 akatsa).

3.4 Guztira 11.503 mila euroan esleitutako zazpi espedientetan (3, 4, 6, 7, 8, 10 eta 11 zk.ko esp.) prezioa baloratzeko erabiltzen duten formulak onuragarriagoak diren eskaintza ekonomikoak zigortzen ditu, izan ere, puntuazio handiagoa ematen baitzaie aurkeztutako



arteko batez besteko aritmetikoari gerturatzen zaizkion eskaintza ekonomikoei, balio ekonomikoagoa izateari baino. Gainera, 1.831 mila euroan esleitutako hiru espedientetan (19, 20 eta 21 zk.ko esp.), eskaintako bajaren benetako garrantzia, kasu batzuetan, aplikatutako formularen ondorioz gutxitzen da, izan ere, ez baitzaio beti eskaintzarik ekonomikoenari esleitzen puntuen kopuru osoa, eta eskaintzarik garestiena ere ez baita 0 punturekin baloratzen. Bada, Arabako Natur Parkeetan kontrol, zaintza eta arreta zerbitzuak kontratatzeke espedienteak nominalki eskaintzaren faktore ekonomikoari 25 puntu ematen dizkionak, puntu bakarreko aldea bereizi du lehian zeuden bi enpresen artean, nahiz eskaintza ekonomikoa ehuneko 9 hobetu den (A2 akatsa).

3.5 – 2.698 mila euroan esleitutako kontratu batean eta beste zerbitzu kontratu baten esleipenean (2 eta 20 zk.ko esp.), administrazio pleguek edo txosten teknikoek esleipen irizpidetat balioztatzen dituzte kontratisten gaudimenari buruzko ezaugarriak eta honenbestez, kontratuaren xedearekin lotu gabekoak (lehiatzaileen giza edo gauzako taldea). Kontratazio arauak “irizpide objektiboak” soilik erabili ahalko direla ezartzen du (APKLTB 86.1. art.), lanarekin lotuak daudenean, edo bestela, kontratuaren helburua den zerbitzuarekin lotutakoan, esate baterako prezioa, burutzeko edo entregatzeko epea, objektuaren kalitatea edo eman beharreko zerbitzua (A3 akatsa).

3.6 Guztira 115 mila euroko zenbatekoarekin esleitutako espediente batean ez da esleipen hartzailearen sailkapena egiaztatu eta ez dira zerga edo Gizarte Segurantzako egiaztagiri positiboak aurkeztu (B2 akatsa).

3.7 2.513 mila euroan esleitutako espediente batean (2 zk.ko esp.), AKPLk ez du behar hainbat zehazten esleipen irizpideak aplikatzeko modua, gerora, esleipen txosten teknikoetan zehazten direlarik irizpide horiek eta baloratzeko moduak (B3 akatsa).

3.8 Guztira 3.907 mila euroko zenbatekoarekin esleitutako lau espedientetan (15, 19 eta 21 eta itsatsitako 37 zk.ko esp.), esleipen proposamenaren euskarri diren txosten teknikoek aurkeztutako eskaintzak baloratzen dituzte, pleguan aurreikusitako irizpide eta azpi-irizpideetako bakoitzari esleitutako puntuaketak zehazten dituzte, baina ez dute lehiatzaile bakoitzari emandako puntuaketen baloraketa justifikatzen (B4 akatsa).

3.9 Lehiaketa bidez 1.290 mila euroan esleitutako obra espediente batean (19 zk.ko esp.), ez da dagozkion aldizkari ofizialetan argitara eman kontratuen esleipena eta 202 mila euroan esleitutako beste espediente batean (18 zk.ko esp.) hilabete eta erdiko atzerapenez eman da argitara (B5 akatsa).



3.10 Hainbat atzeraldi gertatu dira aztertu ditugun kontratazio espedienteak izapidetzean eta egiteratzean. Zehazki:

- 1.462 mila euroko zenbatekoarekin esleitutako espediente batean (11 zk.ko esp.) esleipena atzerapenez egiten da (3 hilabete eta 11 egun) (B6 akatsa).
- Obra espediente osagarri baten onespina (9 zk.ko esp.), 115 mila euroko zenbatekoarekin esleitutakoa, kontratu nagusia amaitu ondoren gauzatu da (B7 akatsa).
- Guztira 6.676 mila euroko zenbatekoarekin esleitutako hiru espedientetan (8, 38 eta 15 zk.ko esp.) lanerako programa atzerapenez onetsi da (20 egunetik hilabetera) (C2 akatsa).
- Guztira 10.082 mila euroan esleitutako sei obra kontratutan (3, 4, 8, 10, 11 eta 38 zk.ko esp.) Seguratasun eta Osasun Planaren onespina lanei ekin ondoren gauzatu da eta beste bi espedientetan, 179 mila euroko (9 eta itsatsitako 37 zk.ko esp.) (C3 akatsa).
- Guztira 8.337 mila euroko zenbatekoarekin esleitutako lau espedientetan (24, 25, 35 eta 36 zk.ko esp.) azken egiaztagiria atzerapenez onetsi da (hilabete 1etik 7ra) (C4 akatsa).
- Guztira 15.112 mila euroan esleitutako zazpi espedientetan (1, 2, 25, 26, 32, 35 eta 45 zk.ko esp.) aurreikusitako amaiera epearekiko atzerapenez egiten da (hilabete 1etik 9 hilabetetara) (C5 akatsa).
- Berebat, bi espedientetan (22 eta 31 zk.ko esp.), 2.613 mila euroan esleitutakoetan, kontratua likidatu aurreko txosten teknikoa atzerapenez jaulkitzen da edo ez da jaulki eta, gainera, likidazioa horretarako eskumenik ez duen atalak onetsi du (C6 akatsa).
- Guztira 6.203 mila euroan esleitutako hiru espedientetan (7, 35 eta 38. esp.) kontratuan finkatutako epe aldaketaren onespina, hasiera batean kontratua amaitzea aurreikusi zen data baino beranduago gertatu da (C8 akatsa).
- Hiru espedientetan (19, 21 eta 38 zk.ko esp.), 645 mila euroko zenbatekoa egin dutenetan, ziurtagirien ordainketa atzerapenez egiten da (hilabete 1 baino gehiago) (C10 akatsa).

3.11 Berebat, bi espedientetan (8 eta 46 zk.ko esp.), 1.876 mila euroan esleitutakoetan, lanerako programaren edukia ez zaio Kontratuen Legearen Arautegi Orokorraren 144 artikuluari egokitzen. Beste bi espedientetan, (6 eta 8 zk.ko esp.), 3.950 mila euroko zenbatekoarekin esleitutakoetan, lanerako programa horretarako eskumenik ez duen atalak onetsi du (Foru Diputatua). Beste espediente batean (42 zk.ko esp.), 1.514 mila euroko zenbatekoarekin esleitua, ez da 2007ko ekitaldian lanerako programa onetsi (C7 akatsa).

3.12 - 53.244 mila euroan esleitutako zortzi espedientetan (40, 23, 36, 27, 15, 41, 42 eta 46 osagarria zk.ko esp.) obraren finantzaketa erritmoa ez zaio exekuzio erritmoari egokitu (APKLTBren 14.3 artikulua) (C9 akatsa).



3.13 Guztira 1.378 mila euroan esleitutako bi espedientetan (21. eta 25. esp.), azken ziurtagiriak esleitutako zenbatekoaren ehuneko 10aren muga gainditzen du (ehuneko 4an eta ehuneko 2an, hurrenez hurren) (C11 akatsa).

3.14 Guztira 2.869 mila euroan esleitutako bi espedientetan (2 eta 21 zk.ko esp.), horietako batean epeen aldaketa egin zen -kontratazio atalak onetsi behar zukeena- eta bestean, bai bermea egokitzea, bai aldaketa formalizatzea, exekuzioari hasiera eman ondoren gauzatu da (C12 akatsa).

3.15 Guztira 17.436 mila euroko zenbatekoarekin esleitutako lau espedientetan (23, 7, 10 eta 41 zk.ko esp.) exekuzio epeak egoki justifikatu gabe luzatu direla ikusi dugu. Horietako batean (23 zk.ko esp.) luzapena -arrazoi ezagunen ondorioz sortutakoa- 8 hilabete igaro ondoren eskatu da (C13 akatsa).

3.16 Segurtasun eta Osasun planak segurtasun eta osasuneko koordinatzailearen aldeko txostena jaso beharko du eta kontratazio organora igaro beharko du obra hasi baino lehen. 2007ko ekitaldian esleitutako obra espedienteetan, Segurtasun eta Osasun Plana horretarako eskumenik ez duen atalak onetsi du, suskripzioa eskuordetzen zuen antolamenduzko araudia aldatu izanaren ondorioz. Sailek akats hori zuzentzeko baliokidetzak mamitu eta izapidetu dituzte; nolana dela ere, aribide hori segurtasun juridikoaren printzipioaren aurkakoa da.

3.17 Proiektuak Gainbegiratzeko Bulegoari legeak agintzen dizkion egitekoak kontratu guztietan Plangintza, Proiektu eta Obren Zerbitzuburuak egiten ditu, AFAk ez duelako Proiektuak Gainbegiratzeko bulegorik.

3.18 Arkeologia Museoa eraikitzea xede duen kontratua (30 zk.ko esp.) kontratua ez betetzeagatik baliogabe utzi zen 2006ko ekainaren 13ko Diputatuen Kontseiluaren erabaki bitartez, 1.865 mila euroko kalte-ordaina finkatu zela. Bi erabakiak Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean errekurritu ziren eta gaur egun behinbetiko ebazpenaren zain daude, auzi-jartzaileak 2008ko uztailaren 30ean ebatzitako baliogabetze epaiaren aurka egindako apelazioaren ondorioz.

#### **II.A.4 DIRU-LAGUNTZAK (IKUS A.9 ERANSKINA)**

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, lehenengo xedapen iragankorrean urtebeteko epea ezartzen zuen Lege hau indarrean sartzen zen unetik aurrera diru-laguntzak bertan ezarritako araubide juridikora egokitzeko, eta epe hori 2005eko otsailean amaitzen zen. Ordea, AFAk egokitzapen hori egin ez duenez gero, zuzenean ezarri beharreko dira 38/2003 Legeak Estatuko oinarrizko legeria izaera dutela agintzen duen alderdi horiek.



#### 4.1 Diru-laguntza izendunak:

- Arabarri, SA sozietate publikoa finantzatzeko xede duen diru-laguntzan, Arabako eraikitako kultur ondarea hedatzeko laguntzak, 153 mila eurokoa, egindako gastuen egiaztagiriak (71 mila eurokoak) ez ditu dagokion zerbitzuko zuzendariak izenpetu, emakida ebazpenean ezarrita dagoen moduan (C5 akatsa).
- Euskal Herriko Ekonomilarien Elkargoari emandako diru-laguntzan, 52 mila euro egin dituenean, aldean artean izenpetutako hitzarmenean aurreikusi diren ekintzetatik hainbat gauzatu dira diru-laguntza onetsi aurretik; eta horren aurka eragozpen txostena aurkeztu zuen AFaren artekaritzak, gerora Diputatuen Kontseilua bat etorri zela (C6 akatsa).
- Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteari emandako 38 mila euroko diru-laguntzatik justifikatutako gastuak ez zaizkio emakidaren foru aginduan ezarritakoei egokitzen eta honenbestez, 2008ko ekitaldian 29 mila euroko itzulketa espedienteari hasiera eman zaio. Ordea, 2008ko abenduaren 31ko beste foru agindu baten bitartez, diruz lagungarri diren gastuak areagotu dira eta aurkeztutako gastu guztiak onetsi eta itzulketa espedientea baliogabetu da (E akatsa).
- Santa Maria Katedrala Fundazioari 1.500 mila euroko diru-laguntzak eman zaizkio sendotze, zaharberitze eta birgaitze lanak finantzatzeko; ordea, diru-laguntza emateko urteko erabakietan ez da adierazten onuradunak bere gain hartzen dituen gauzako eta formazko obligazioen luze-zabala, diru-laguntza hori kobratzeko eskubidearen aitortpena eskuratu ahal izateko (E akatsa).

#### 4.2 Zuzeneko diru laguntzak:

- Behin eta berriz duela urte batzuek geroztik modu zuzenean eta publizitate eta lehia egitetik salbuetsiaz enpresa bati eta irabazi asmorik gabeko erakunde bati 159 mila euroko diru-laguntzak ematen zaizkie. AFak bi diru-laguntza hauek diru-laguntza izendun modura barne hartu ditu 2008 eta 2009ko aurrekontuetan (A2 akatsa).
- Toki erakunde bateko Udaletxea zaharberitzea xede duen diru-laguntzan, 711 mila eurokoan, obraren izapidea ez zaio Emakida erabakian ezarritakoari (E akatsa). Zehazki:
  - Hiru hilabeteko atzeraldia obraren proiektu teknikoa onetsi eta AFari igortzean.
  - Ez dute erabakian zehaztutako esleipenari buruzko dokumentazio guztia bidaltzen (lehiaketara aurkeztu diren eskaintza guztien zerrenda, eskaintako kopuruak adieraziaz).
  - Birplanteaketa egiaztatzeko aktan ez da AFaren teknikaririk izan eta ez dago erasota Segurtasun eta osasun Planaren onespenezko akta dagoenik.
- Udal bati erabilera anitzeko eraikin bat eraikitzeko emandako diru-laguntzan, Diputatuen Kontseiluak onetsitakoa, AFak aurkeztutako obra ziurtagirien zenbateko guztia, 701 mila eurokoa, aitortutako obligazio modura erregistratu du; ordea, egiaztagiri horiei ez zaie esleitutako zenbatekoarekiko diru-laguntza bidezko finantzaketak egiten duen ehuneko aplikatu (E akatsa). Honez gainera, 515 mila euroko zenbatekoarekin aurkeztutako



egiaztagirien atal bat konpultsatu gabe dago (C1 akatsa) eta udalak onetsi dituela egiaztatu gabe.

#### 4.3 Arautegi erregulatzailerak duten diru-laguntzak:

- Guztira 5.457 mila euroko zenbateko osoarekin emandako hamazazpi diru-laguntza lerroren hamalau oinarri-arau erregulatzaileretan, eskabideak balioztatzeko aurreikusitako irizpideetako batzuk orokorrak dira (B1 akatsa); honela, bada, zazpi diru-laguntzen txosten teknikoek, 2.200 mila eurokoak, erabilitako irizpideetariko bakoitzaren balorazioa ez dute behar hainbat arrazoitu (B2 akatsa). Honez gain, diru-laguntza horietatik bostetan, 1.743 mila eurokoetan, uko egin zaie puntuaziorik txikieneko eskabideei, aurrekontuko mugak izateagatik (B3 akatsa).
- Arabako Nekazaritza Sektoreari Laguntzak emateko Plana arautzen duen dekretuari dagozkion nekazal azpiegiturak hobetzeko lerroaren baitan jasotako diru-laguntza batean, Diputatuen Kontseilu bitartez 157 mila euroko zenbatekoarekin emandakoa, zaharberritze-lan bat oinarri-arauetan ezarritakoaren arabera legokiokeen ehunekoarekin baino handiagoarekin subentzionatu da (zaharberritzearen ehuneko 80, ehuneko60 beharrez) eta espedientean ez da behar hainbat egiaztatu laguntza horren apartekotasuna (B5 akatsa).

#### 4.4 Aztertu diren diru-laguntza mota ezberdinen akats orokorrak:

**Hitzarmenak** Diru-laguntza izendun batean eta publizitate eta lehiatik salbuetsitako beste batean, hurrenez hurren, 382 eta 454 mila euroko zenbatekoa egin dutenetan, AFaren eta erakunde hauetako bakoitzarekin gauzatutako hitzarmenen xedea ez dago behar bezain definitua, ez baitira egin beharreko ekintzak zehazten eta ez baitago ekintza bakoitzeko aurrekontu bat; honenbestez, ez dezakegu aurreikusitako ekintzak bete direla egiaztatu (B4 akatsa). 2008an diru-laguntza izendunari zegozkion 48 mila euroko itzulketa onetsi zen, diru-laguntza osorik ez justifikatzeagatik.

**Diru-laguntzen justifikazioa:** 2007ko ekitaldian emandako ondoko diru laguntzen egiaztapenean hainbat akats azaleratu dira:

- 2007ko ekitaldian 5.030 mila euro egin dituzten 21 diru-laguntzetan, gauzatutako eta diruz lagundutako gastuak justifikatuko dituzten ordainagiriak konpultsatu eta/edo zigilatu gabe aurkeztu dira, nahiz horietako bederatzitan, 642 mila eurokoetan, diruz lagundutako erakundearen arduradun administratiboak egiaztatu dituen. 3.016 mila euroko beste bostetan ez dituzte egindako gastuen egiaztagiriak aurkeztu (C1 akatsa).
- Indarreko arautegiari egokitzen ez zaion agiri justifikagarria. Honela, bada, 106 mila euro egin duten zuzeneko bi diru-laguntzatan, egindako gastuen egiaztagiri modura jardueren oroitidazkiak edo ordainagirien koadroak aurkeztu dira, egiaz egindako gastuen guztizkoaren agiri bidezko euskarririk barne hartu gabe. Honez gain, 690 mila euro egin duten beste bi diru-laguntza izendunetan, jasotako diru-laguntzen egiaztagiri modura



sarrera eta gastuen balantzea edo aurrekontuen likidazioa soilik eskatu eta aurkezten dira. Bestalde, 494 mila euroko zenbatekoarekin emandako bi diru-laguntzatan, jasotako diru-laguntzaren dokumentazio egiaztagarriaren atal modura aurkezten dituzten finantza egoerak auditatu gabe daude; eta 111 mila euroko zenbatekoarekin emandako beste diru-laguntza batean, emandako diru-laguntzaren zenbatekoa egiten duten ordainagiriak soilik aurkezten ditu (C2 akatsa).

- Diru-laguntzen araudiak 30.000 eurotik gorako obra eta 12.000 eurotik gorako hornikuntza eta zerbitzuetarako egiten den kontratistaren aukeraketa justifikatzeko exijitzen du. 3.291 mila euroko zenbatekoa egin duten diru-laguntzen justifikazioetan, lehen aipatutako zenbatekoak baino gehiagoko erosketak antzeman dira, baina ez da kontratistaren aukeraketa justifikatzeko eskatu (C3 akatsa).
- Diru-laguntzen espedienteetan, 862 mila euro egin dutenetan, dokumentazio justifikagarri guztia emakidetan finkatutako epearekiko atzerapenez aurkeztu da (1 eta 5,5 hilabete bitartean). Diru-laguntzen beste espediente batzuetan, 2.137 mila eurokoak, emakida erabaketan aurreikusitako epea amaitua zegoela onesten da exekuzio eta justifikazio epea luzatzea (C4 akatsa).
- Forondako aireportua sustatzea xede duen diru-laguntzan, 85 mila euroan aurrez publizitate eta lehia egitetik salbuetsiaz emandakoan, aitortutako obligazioa hitzarmenean jasotako ekintza guztiak bete gabe erregistratzen da (C7 akatsa).
- Diru-laguntza izendun batean eta oinarri arautzaile bitartez emandako diru-laguntza bati dagozkion hiru espedienteetan, hurrenez hurren, 111 eta 74 mila eurokoetan, aurkeztu dituzten urteko kontuek superabita erakusten dute eta honenbestez, AFAk diru-laguntzen zatizko itzulketa egitea egoki den edo ez aztertu beharko luke (C8 akatsa).

**Jarraipen batzordeak:** Guztira 2.599 mila euroko zenbatekoarekin emandako sei diru-laguntzatan, hitzarmena gauzatu da diru-laguntza jaso duen erakunde bakoitzarekin; ordea, ez dago erasota hitzarmen horien klausuletan aurreikusten den Jarraipen-batzordea eratu denik (D akatsa).

**4.5 Garraio defizitari diru-laguntzak:** 77/2000 Foru Dekretuak AFaren eta garraio publiko erregularreko zerbitzuen emakidadun ziren enpresen artean urteanitzeko hitzarmenak izenpetzea aurreikusten zuen. Nolanahi dela ere, eta 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera bidaiarien linea erregularren kostuak kalkulatzeko parametro objektiboak ezarri zituen 1367/2005 FA baliogabe utzi ondoren, partzialki 285/2006 FAk aldarazitakoa, Diputatuen Kontseilu bitartez 2007ko maiatzean AFAk eta garraioaren emakidadun diren enpresen artean izenpetzeko kontratu-programaren testua onetsi zen. 2007ko uztailean eta abenduan 9 enpresa emakidadunetatik 8ri zegozkien kontratu-programak izenpetu ziren eta azken enpresak 2008ko azaroan izenpetu zuen; honi, 2007ko ekitaldian zehar 2007ko uztailearen 26ko 583/FAn aurreikusitako defizita kalkulatzeko metodologia ezarri zitzaion. 2007ko ekitaldian zehar emandako diru-laguntza, kontratu programetan aurreikusitako kalkulu-metodoa ezarriz 2.468 mila eurokoa izan da eta 255 mila eurokoa kontratu-programa





izenpetu ez zuen enpresarentzat, foru aginduan barne hartutako metodologiatik eratorriak. Kopuru horiezaz gain, diru-laguntza lerro honetan emakidadunak berak ematen duen demandaren zerbitzu-kostuaren zati bati aurre egiteko 235 mila euro erregistratu dira eta 295 mila euro erregistratzeko daude, aurreko ekitaldiko likidazioei dagozkienak.

2006ko ekitaldian, AFAn fiskaltzari lehenagoko diru-laguntzekin lotutako jarduerak jakinarazi zizkion eta gaur egun, kontu hori Vitoria-Gasteizko Epaitegi batean instrukzio fasean dago.

Kontratu-programa ez ezik, bidaiarien garraio erregularreko sei lerroren enpresa emakidadunari emandako diru-laguntzak ere aztertu dira, 1.708 mila euroko zenbatekoa egin dutenak eta honako ondorio hauek eskuratu dira (E akatsa):

- Aztertu ditugun lerroetatik bitan, 409 mila euroko gastua egin dutenetan, emakidadunek ez dute kontratu-programetan finkatutako tarifak kobratu direla egiaztatzeko dokumentazio egiaztagarria igortzen.
- Aztertu ditugun sei lerroetatik bitan hutsik egindako bidaien kontzeptuan (autobus gordelekuetatik ibilbidearen hasiera gunera arte) 37 mila euroko diru-kopuruak ordaindu dira; ordea, kontzeptu hori aurreikusi gabe dago dagozkien fitxa teknikoetan.
- Aztertu ditugun lerro erregularren emakidadunetatik inork ere ez du egiaztatu zerga eta gizarte segurantzako obligazioetan gaurkotua dagoela.
- Emakidadunak berak emandako demandaren arabera zerbitzuari dagokionez, dela berezko baliabideen bidez edo hirugarrenen bidez, ez da eskatu Euskal herriko errepide bidezko Bidaiarien Garraio Legea garatzen duen arautegian aurreikusitako baimen bereziko araubidea bete dadin.

**4.6 Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren, Inbertsioen Plan Bereziaren eta Lurrazpiko Azpiegituren Plan Bereziaren diru laguntzak (14/1997 FA eta 49/2003 FD).** Honako alderdi hauek azpimarratuko ditugu:

- 2006rako aurrekontu exekuzioari buruzko martxoaren 8ko 2/2006 FAren 15. artikulua (2007ko ekitaldian indarrean zegoena, aurrekontu luzapenaren indarrez) Obra eta Zerbitzuen Foru Plana programatik txertatutako kredituetan gertatzen diren bajak bideratzeko esku ematen du. Berebat, 14/1997 FAn berak Plan horren likidazioa aurreikusten du, hau da, AFAn baliabide erabilgarriei buruzko egiazko datuak ezagutu ondoren, behin-betiko zuzkiduraren kalkulua; honela, bada, likidazio hori positiboa baldin bada, hurrengo ekitaldiko aurrekontuari txertatzen zaio. Aurreko horren guztiaren ondorioz, 2007ko hasierako aurrekontuetan barne hartua zegoen Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren hasierako zuzkiduraz gain, 13.980 mila euroan zifratua zegoena, ekitaldian zehar 26.850 mila euro txertatzea ekarri du, zeinetatik 26.116 mila euro Planaren beraren bajetatik eratorritako kreditu gaituei dagozkien; 387 mila euro 2006ko likidazioaren emaitzari eta 347 mila euro, erabili gabeko aurrekontu kredituari. Berebat, 2007ko ekitaldian zehar aribideko aurrekontuan 24.770 mila euroko zenbatekoa egin duten kredituei baja eman zaie, 2008ko urtekoan birbanatzeko. Honen guztiaren ondorioz, azken aurrekontua 16.060 mila eurokoa izan da.





- 2007ko ekitaldian hautatutako zortzi espedienteen azterketatik, 3.714 mila eurokoak eta lehenago urteetan 6.626 mila euroko zenbatekoarekin emandako hamabi diru-laguntzari egindako jarraipenetik, zera azpimarratu behar dugu:
  - 2.566 mila euroko lau espedientetan, exekuzio aurrekontua atzerapenez aurkeztu da (26 egunetik 9 hilabetera bitartean) eta aurrekoetatik bitan eta beste batean, 936 mila euro egin dutenetan, proiektuarekin baterako dokumentazio administratiboa atzerapenez aurkeztu da (22 egunetik 9,5 hilabetera). Bestalde, beste bi espedientetan finantzaketako behin-betiko plana edo toki erakundeak gauzatutako obren kontratazioari dagokion dokumentazioa atzerapenez aurkeztu da (1,6 eta 14,5 hilabete), hurrenez hurren, 909 eta 590 mila euroko zenbatekoarekin.
  - 3.593 mila euro egin dituzten sei espedientetan, ez da aurkeztu proiektuarekin batera doan dokumentazio administratibo guztia eta horietako bitan, gainera, 1.054 mila euroko zenbatekoarekin, ez da proiektua aurkeztu.
  - Lau espedientetan, berriz, 1.121 mila euro egin dituenak, ez dago erasota obrak hartzeko akta gauzatzean Foru Planaren zerbitzuko teknikari bat bertan egon denik; ez eta, 748 mila euroko espediente baten zuinketa akta egiterakoan ere.

## II.A.5 LANGILEEN GASTUAK

5.1 Kontratazioa Lan poltsak kudeatzeko sistemak ez du uzten gerora egiaztatzen AFak egindako kontratazioetan poltsa horietan finkatutako hurrenkera gorde dela.

Komenigarria litzateke gerora lan poltsen kudeaketa egiaztatzea bideratuko duen sistema finkatzea.

## B GIZARTE ONGIZATERAKO FORU INSTITUTUA (GOFI)

### II.B.1 KONTRATAZIOA (Ikus B.5 Eranskina)

1.1 Ondasun, zerbitzu eta hornigaiak erosteko, horien urteko gastuak, kontzeptu homogeneoka hartuta, kontratu txikietarako ezarrita dauden mugak gaintzen baditu eta urteroko gastu hori aldakorra dela aurreikusten bada, gure ustez, zer behar den, lizitazioak edo eskaintzak eskatu beharko lirateke, aleko-prezioka. Izaera bereko erosketak, 1.374 mila euroko zenbatekoarekin egin direla ikusi dugu (ikus B.5 eranskina).

1.2. Administrazioa hiru kontratutan dagokion luzapena gauzatu gabe zerbitzuak ematen eta erosten jarraitu da, 189 mila euroko zenbatekoarekin.

1.3 Elikagaien horniketa kontratatzeke espedientean, 2007ko ekitaldian ogi, esne, arrai izoztu eta helduentzako prestakin nutrizionalei dagokien gastua 501 mila eurokoa izan dena, esleipen irizpidetzat Vitoria-Gasteiz udalerrian banaketa zentro bat izatea hartzen da; ordea,



irizpide hau kontratistaren antolamenduari dagokio eta ez kontratuaren xedeari (A.1 akatsa).

1.4 Uda partean egonaldi laburrak egiteko zerbitzu publikoaren kudeaketa kontratatzeko espedientean, 2007ko ekitaldian 199 mila euro egin dituen, esleipenaren txosten teknikoak pleguetan barne hartu gabeko azpi-irizpideak barne hartzen ditu (B1 akatsa).

## II.B.2 HITZARMENAK

2.1 **Gizarte zerbitzuekin hitzarmenak:** Institutuak egoitza eta eguneko zentroyen laguntza zerbitzuen hainbat prestazio finantzatzen ditu, toki entitate, enpresa pribatu, elkarte eta bestelako erakundeekin sinatutako hitzarmenen bidez, ondotik zehaztutako arauketa babes harturik:

- 5/1996 legea, txosten hau egin dugun datan Gizarte Zerbitzuen 12/2008 legeak baliogabetutakoa.
- Eusko Jaurlaritzaren 40/1998 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoaren gizarte zerbitzuen baimena, erregistroa, homologazioa eta ikuskaritza arautzen dituen; honenbestez, laguntza zerbitzuak eman nahi dituzten erakundeek dagokion homologazioa eskuratu behar dute.
- Eusko Jaurlaritzaren 41/1998 Dekretua, hirugarren adinekoentzako egoitza zerbitzu sozialei buruzkoa, 125/2005 Dekretuak eta 195/2006 Dekretuak aldarazitakoa.
- Eusko Jaurlaritzaren 202/2000 Dekretua, mendeko diren zaharrentzako eguneko zentroyei buruzkoa.
- Eusko Jaurlaritzaren 64/2004 Dekretua, EAEn gizarte zerbitzuen erabiltzaile eta profesionalen eskubide eta obligazioen gutuna onesten duena.
- 39/2007 Foru Dekretua, Arabako Lurralde Historikoan mendekotasun egoera aitortzeko prozedura, beregain izaten laguntzen duen sistemaren zerbitzuak jasotzeko eskubidea eta mendekoei eskaini beharreko laguntzak arautzen dituen.
- 45/2007 Foru Dekretua, honen bidez, mendekotasun egoera onartuta ez duten pertsonak Arabako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Foru Sarera sartzeko eta lekuz aldatzeko erregimena arautzen duen arautegia onartzen da. Pertsona horiek sarearen erabiltzaile izan behar dute.



Ondotik, 2007ko ekitaldian aurreko ekitaldiarekiko kontzeptu nagusien gastuak izan duen bilakaera erakutsiko dugu, eguneko zentroak eta egoitzak kontzeptuetan, hain zuzen ere:

GIZARTE ZERBITZUEN HITZARMENAK	Mila euro					
	EGUNEKO ZENTROAK		EGOITZAK		GUZTIRA	
ZERBITZUA EMATEN DUTEN ENTITATEAK	2006	2007	2006	2007	2006	2007
Toki Entitateak .....	841	930	1.226	1.385	2.067	2.315
Elkartek .....	248	338	5.631	6.641	5.879	6.979
Erakunde erlijiosoak .....	74	90	1.840	2.190	1.914	2.280
Besterik .....	-	-	171	176	171	176
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.163</b>	<b>1.358</b>	<b>8.868</b>	<b>10.392</b>	<b>10.031</b>	<b>11.750</b>

Institutuak hainbat erakunde publiko eta irabazi asmorik gabeko erakunde pribaturekin gauzatutako lankidetzak hitzarmenak aztertu ditugu eta 2007ko ekitaldian zehar zerbitzuak areagotu direla ikusi dugu, plaza, profesional eta laguntza programen kopuruek gora egin dutelako.

Enpresa pribatuek emandako zerbitzuen igoaldia aintzat hartuta, komenigarria litzateke zerbitzu horien handitzeak argitara ematea, zerbitzua emateko beharrezko betekizunak betetzen dituen zeinahi enpresak horretarako aukera izan dezan.



## **C. GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA (GFE)**

### **II.C.1 DIRU-LAGUNTZAK**

1.1 Gazteria-programak garatzeko elkarte, entitate eta gazte taldeei emandako diru-laguntzei dagokien gastua justifikatzeko, 67 mila euroko zenbatekoarekin, soil-soilik diruz lagundutako zenbatekodun ordainagiriak aurkezten dira eta ez diruz lagundutako jardueren guztizko zenbatekoarekin.

### **II.C.2 KONTRATAZIOA**

#### **Kontratu txikiak**

2.1 Bost hornitzaileei elikagaiak hornitzetik eratorritako 113 mila euroko gastuak kontratu txikiak gauzatu ahal izateko finkatutako mugak gainditu ditu; izan ere, egokiagoa baita lizitazioak edo eskaintzak egiteko eskatzea, zer behar den, aleko prezioen arabera.

#### **2007ko esleipenak (ikus C.3 eranskina)**

2.2 Carlos Abaitua aterpetxean bazkariak emateko zerbitzuaren espedientean, 2007an 45 mila euro egin dituen, esleipen irizpideen artean enpresaren egitura eta esperientzia moduko irizpideak baloratu dira; ordea, alderdi horiek lizitazioan egiaztatu behar dira eta ez daitezke aintzat hartu esleipena egiteko orduan (A1 akatsa).

2.3 Guztira 249 mila euroko zenbatekoarekin esleitu diren bi espedientetan, esleipen irizpideak, oinarri-arau teknikoaren arabera eta AKPPetan ezarri diren moduan, orokorrak eta zehaztugabeak dira (A2 akatsa). Honez gainera, bi espediente hauetan eta beste batean, 45 mila eurokoan, esleipenerako oinarri diren txosten teknikoek ez dituzte egoki arrazoitzen lehiatzaile bakoitzari emandako puntuaketak (B2 akatsa).

2.4 “2007ko ikasgelen” jarduerak antolatzea xede duen espedientean, 29 mila euroko zenbatekoarekin esleitutakoan, AKPPetan barne hartutako esleipen irizpideak ez daude balio-neurtuak (B1 akatsa). Honez gainera, bai espediente honetan, bai Udalekuak 2007koan, hurrenez hurren prezioaren ehuneko 60a eta ehuneko 70a zerbitzua ematen hasi aurretik aurreratatu da, hori arrazoituko duen txostenik batere egin gabe (C1 akatsa).

2.5 Zuazako ugartean bazkariak emateko zerbitzua kontratatze espedientean, 2007an 425 mila euro egin dituen, kontratazioa Kudeatzaileak gauzatu du, horretarako eskumena Administrazio-kontseiluari dagokionean (B3 akatsa). Honez gainera, esleipena atzerapenez eman da argitara ALHAOn, AKPPetan ezarritako epearekiko (B4 akatsa). Bestalde, kontratuaren kreditua gehitzea onetsi da, 70 mila euroko zenbatekoarekin, behin zerbitzua eman ondoren (B5 akatsa).



## **D. FORU ENPRESA PUBLIKOAK**

### **II.D.1 EROSKETAK ETA ZERBITZUAK: KONTRATAZIOA (IKUS D.5 ERANSKINA)**

1.1 **Lehia printzipioa:** Naturgolf, SA sozietateak zuzenean kontratatu du bi obra egitea, 71 mila euroko zenbatekoarekin, lehia printzipioa errespetatu gabe (A4 akatsa).

1.2 **Lizitazio atalean aintzat hartu behar ziratekeen esleipen irizpideak:** Lau sozietateri dagozkien hamahiru kontraturen esleipenean, 4.600 mila euro egin dutenetan (Araba Garapen Agentzia, SA: Lau kontratu 1.633 mila eurokoak; Arabarri, SA: 1.445 mila euro egin duten bost kontratu; Arabako Kalkulu Zentroa, SA: 1.097 mila euro egin duten hiru kontratu; eta Arabako Lanak, SA: 425 mila euro egin duen kontratu bat) esleipen irizpide modura lizitazio atalean eskaintzak onartzeko betekizun modura aintzat hartu behar ziratekeen haiek baloratu dira (esate baterako: baliabideak, lantaldearen gaitasuna, eskaintzen betekizun formalak betetzea, egindako antzeko lanak eta egin beharreko lanen gaineko ezaguera) (B1 akatsa).

1.3 **Arrazoitu gabeko esleipen-txosten teknikoak:** Bi sozietateri dagozkien hiru kontraturen esleipenean, 1.001 mila euroko zenbatekoa egin dutenak (Araba Garapen Agentzia, SA sozietatearen bi kontratu, 954 mila eurokoak eta Arabarri, SA sozietatearen kontratu bat, 47 mila eurokoa) esleipena euskarritzen duten txosten teknikoek ez dituzte emandako puntuaketak arrazoitu (B2 akatsa).

1.4 **Araba Garapen Agentzia, SA:** - 79 milioi euroan esleitu zen poligonoak mantentzeko espediente batean, esleipena euskarritzen duten txosten teknikoak eskaintza ekonomikoaren balorazioan azpi-irizpide bat barne hartzen du, AKPPetan jasotakoa garatzen duena (B2 akatsa). Edonola ere, errorea gertatu da azpi-irizpide hori ezartzerakoan eta horren ondorioz, kontratuaren esleipena ez da txosten tekniko horretan jasotako irizpideak aplikatu izan balira puntuaziorik handiena eskuratuko zukeen lehiatzailearen alde atera (B3 akatsa).

1.5 **Arabako Kalkulu Zentroa, SA:** 2007ko urtean zerbitzu informatikoen enpresen alde aurreko hautaketarako lehiaketak indarrean dirau, eta horretarako, esleipen irizpide modura kualifikazio tekniko-profesionala eta sozietatearen ezaugarri partikularretara egokitzeko gaitasuna finkatu ziren. Behin enpresa homologatuak hautatu ondoren, gai edo zerbitzu jakin baten kontratazioa gauzatzeko, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuari ekin zitzaion, hautatutako enpresak gonbidatuaz. 2007ko ekitaldian eta 277 mila euroko zenbatekoa egin zuten bi kontratu esleitzeko, kontratistak onartzeko diren irizpideak esleipen irizpide modura balioztatu dira. Sozietateak kontratazio indibidualak egiten dituenean, homologatutako hornitzaileei eskaintzak eskatzen dizkie eta horien ezaugarriak berriro baloratzen ditu (E akatsa).



1.6 Aztertu ditugun kontratuen exekuzioan ez dira APKLn aurreikusitako klausulak betetzen (C.1 akatsa). Zehatzago esanda:

**Araba Garapen Agentzia, SA:** - 86 mila euro egin dituzten bi kontratutan ez dira luzapenak gauzatu.

**Arabarri, SA:**

- Guztira 176 mila euroan esleitutako bi kontratutan atzerapenak gertatu dira obren exekuzioan, AKPPetan finkatutako epeen aldaketa onetsi gabe.
- Guztira 104 mila euroko zenbatekoarekin esleitutako hiru espedientetan, sozietateak abuztuko hilabetea baliogabekotzat hartzea erabaki zuen gerora, eskaintzak hartzeko epea zehazteko ondorioetarako. Horrezaz gain, gutun-azalen irekiera atzerapenez egin da AKPPetan zehaztutako epearekiko.

**Arabako Bideak, SA:**

- AP-1 autobidea eraikitzeke obra kontratuan, Luko-Gipuzkoako probintziarekiko mugaren bide-zatian, eta obra zuzendaritzari laguntza teknikoa emateko kontratuan, aurreko urteetan 77.212 mila euroan esleitu zirenak, exekuzio epearen luzapenak kontratuetan aurreikusitako amaiera data ondoren onetsi dira. Honez gain, laguntza teknikoa emateko kontratuan, luzapen horietatik bi obraren kontratu nagusia jada amaitua zegoela onetsi dira, azkenean luzapena onetsi ez delako.
- Aurreko urteetan esleitu ziren obra zuzendaritzari laguntza teknikoa emateko bi kontratuetan, 2007ko ekitaldian 349 mila euroan onetsi ziren aldaketak ez dira agiri administratiboan jaso.

1.7 **Araba Garapen Agentzia, SA:** AFAk “La Blanca Pabiloia” eta “Samaniego Zinemak” foru areto modura gaitzeko zaharberritze lanak kontratatu, exekutatu eta finantzatzeko sozietateari egindako mandatuen exekuzio erregimena aztertu dugu; lan hauek 4.850 mila euroko zenbatekoarekin esleitu ziren eta 2007an exekutaturako zenbatekoak 2.961 mila euro egin ditu; honela, bada, ikusi dugu ez direla mandatuan aurreikusitako egitekoak gauzatu, erakundearen xede sozialean barne hartutako egiteko edo zerbitzu materialak ematea dena, izan ere, AGA, SAK soil-soilik berezko aurrekontuarekin ziurtagirien kontratazio eta ordainketa funtzio administratiboak gauzatu baititu, eta ez ditu obraren exekuzioari buruzko egitekoak batere gauzatu, bere xede soziala dena (E akatsa).

## II.D.2 BESTELAKOAK

2.1 **Arabarri, SA:** Administrazio Kontseiluak 2002ko martxoaren 22an onartutako arautegiak, 16. artikuluan Sozietateak toki entitateei emango dizkien diru-laguntzak arautzen dituenak,



ez du zehaztasunez definitzen finantzatuko diren ekintzak, ezta proiektu bakoitzean ezargarria den diru-laguntzaren ehunekoa ere.

Diru-laguntzak arautzen dituzten arau arautzaileek diruz lagunduko diren ekintzak eta kasu bakoitzean ezarriko diren ehunekoak zehaztu behar dituzte.



### III. FINANTZEN ANALISIA

Abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoaren Erregimen Ekonomiko eta Aurrekontuzkoari buruzkoak, honela sailkatzen du foru sektore publikoa:

- Foru Administrazioa (Foru Aldundia)
- Erakundeen administrazioa. Bi entitate motek osatzen dute administrazio hori, alde batetik, zuzenbide publikoaren menpeko entitateak, erakunde autonomoak izenekoak, eta, beste aldetik, funtsean zuzenbide pribatuaren menpe dauden entitateak.

Hala eta guztiz ere, 2007ko ekitaldiko ALHren Kontu Orokorraren finantza analisia ondotik egituratuko dugu, ALHren foru sektore publikoaren multzoa honela sailkatuz:

- Foru Administrazio Publikoa, Arabako Foru Aldundiak (AFA) eta Administrazio instituzionalaren atal batek osatzen dutena, batetik. Administrazio instituzionalaren zati horretan daude kontabilitate publikoaren menpe dauden entitateak, hau da, erakunde autonomo administratiboak: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea (GOFE) eta Gazteriaren Foru Erakundea (GFE).
- Foru enpresa publikoak, bestetik. Hau da, Administrazio instituzionala osatzen duten gainerako entitateak, enpresa kontabilitatearen erregimenaren menpe dauden entitate eta sozietate publikoak, alegia.

#### III.1 SEKTORE PUBLIKO ADMINISTRATIBOA

ALHren sektore publiko administratiboaren finantza azterketa ondoko atal hauetan garatzen da:

1. Osatzen duten erakunde bakoitzaren aurrekontu likidazioa eta kontsolidatua.
2. Osatzen duten erakunde bakoitzaren ondare kontuak eta kontsolidatua.
3. Kontziliazioa, ALHren sektore publiko administratiboaren aurrekontu saldoaren eta ondare emaitza ekonomikoaren artekoa.





### III.1.1 AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

#### a) 2007ko Aurrekontuaren Likidazioa

ALHaren foru administrazio publikoaren 2007ko aurrekontuaren likidazioan aurrekontu arruntaren likidazioa jasotzen da, hau da, administrazio hori osatzen duten entitate guztien aitortutako eskubide garbien multzoa eta aitortutako obligazioen multzoa eta kontsolidatua. Ez ditu jasotzen, beraz, itxitako ekitaldien likidazioen emaitzak; horiek, ordea, ondare kontuetan jasotzen dira, jakina.

2007 URTEA	Mila euro			
AURREKONTUAREN DATUAK	AFA	GOFI	GFE	KONTSOLIDATUA
Zerga zuzenak.....	1.056.881	-	-	1.056.881
Zeharkako zergak.....	1.142.798	-	-	1.142.798
Tasak eta bestelako sarrerak.....	108.754	19.872	1.726	130.306
Transferentzia arruntak .....	109.647	135.619	3.543	128.975
Ondare sarrerak .....	9.449	48	19	9.516
(Erakundeko konpromisoak).....	(1.841.249)	-	-	(1.841.249)
<b>Sarrera arrunt propioak</b>	<b>586.280</b>	<b>155.539</b>	<b>5.288</b>	<b>627.227</b>
Langileen gastuak .....	54.162	60.806	2.298	117.266
Ondasun erosk. eta zerbitzuak .....	45.045	59.976	2.455	107.430
Finantza gastua.....	6.896	-	-	6.896
Transferentzia arruntak .....	2.100.133	34.182	359	2.014.840
(Erakundeko konpromisoak).....	(1.841.249)	-	-	(1.841.249)
<b>Gastu arrunt propioak</b>	<b>364.987</b>	<b>154.964</b>	<b>5.112</b>	<b>405.183</b>
<b>ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA (1)</b>	<b>221.293</b>	<b>575</b>	<b>176</b>	<b>222.044</b>
Inbertsioen besterentzea .....	147	-	-	147
Kapital transferentziak .....	33.957	2.453	-	33.998
<b>kapitalezko sarrerak</b>	<b>34.104</b>	<b>2.453</b>	<b>-</b>	<b>34.145</b>
Inbertsio errealetan gastua.....	101.190	1.045	104	102.339
Kapital transferentziak .....	36.681	1.354	-	35.623
<b>kapitalezko gastuak</b>	<b>137.871</b>	<b>2.399</b>	<b>104</b>	<b>137.962</b>
<b>KAPITAL ERAGIKETEN SALDOA (2)</b>	<b>(103.767)</b>	<b>54</b>	<b>(104)</b>	<b>(103.817)</b>
Finantza aktiboen gutxitzea.....	232	124	15	371
Finantza pasiboen igoera.....	-	-	-	-
<b>Finantzaketa sarrerak</b>	<b>232</b>	<b>124</b>	<b>15</b>	<b>371</b>
Finantza aktiboen igoera .....	16.191	120	13	16.324
Finantza pasiboen gutxitzea .....	5.556	-	-	5.556
<b>Finantzaketa gastuak</b>	<b>21.747</b>	<b>120</b>	<b>13</b>	<b>21.880</b>
<b>FINANTZA ERAGIKETEN SALDOA (3)</b>	<b>(21.515)</b>	<b>4</b>	<b>2</b>	<b>(21.509)</b>
<b>AURREKONTUKO SALDOA (1+2+3)</b>	<b>96.011</b>	<b>633</b>	<b>74</b>	<b>96.718</b>



Aurrekontuaren likidazio horren analisisa ataletan garatzen da:

### Eragiketa arrunten saldoa

- Sarrera arrunten zenbatekoa Aldundiak bere zereginak garatzeko xedatu dituen sarreretatik bereizteko asmoz, xedea edo gastua legez edo Finantzen Euskal Kontseiluan ezarrita duten zerga sarreren zenbatekoa kendu egin da aurreko taulan; sarrera horiek “erakunde konpromisoak” modura izendatzen dira identifikatze aldera, eta honakoak dira:

2007 URTEA	Mila euro
Estatuari kupoa .....	254.378
EAEren Administrazio orokorra .....	1.386.530
Itunpeko zergetan udalaren partaidetza .....	200.341
<b>Erakundeen konpromisoak guztira</b>	<b>1.841.249</b>

Horien bidez, “sarrera arrunt propioak” eta “gastu arrunt propioak” izendapenak sortu dira.

- Eragiketa arrunten saldo kontsolidatuak sarrera arrunt propioen eta gastu arrunt propioen arteko aldea adierazten du, eta positiboa izan da 222.044 milioi eurotan, hau da, sarrera arrunt propioen ehuneko 35,4 egiten duena.

### Kapital eragiketen saldoa

- Kapital eragiketen saldo kontsolidatuak kapital sarreren eta kapital gastuen arteko aldea adierazten du, eta negatiboa izan da, 103.817 mila euroan.
- Kapital sarrera kontsolidatuak (34.145 mila euro) kapital gastu kontsolidatuen ehuneko 24,7raino iritsi dira (137.962 mila euro).
- Eragiketa arrunten saldo kontsolidatu positiboa (222.044 mila euro), kapital eragiketen saldo kontsolidatu negatiboa baino handiagoa izan da (103.817 mila euro). Horrek esan nahi du ez dela finantza eragiketak erabiltzeko beharrik izan kapital gastuen multzoa finantzatzeko, hau da, inbertsio publikoak eta kapital transferentziak.

### Finantza eragiketen saldoa

- Finantza eragiketen saldo kontsolidatuak finantza sarreren eta finantza gastuen arteko aldea adierazten du, eta negatiboa izan da, 21.509 mila eurotan.
- Ez da beste zorpetze batera jo baliabideak eskuratzeko eta zorra 5.556 mila euroan amortizatu da.



### Aurrekontu saldoa

- Aurrekontuaren saldo kontsolidatua ekitaldian aitortutako aurrekontu eskubide garbien eta ekitaldian aitortutako aurrekontu obligazioen arteko aldea da, eta positiboa izan da 96.718 mila eurotan.
- Aurrekontuaren saldo positiboak, zeina eragiketa arruntei, kapital eragiketei eta finantza eragiketei dagozkien aurrekontu saldoen batuketa eginez lortzen baita, aditzera ematen du zein neurritan gainditu dituzten aurrekontu sarrerek aurrekontu gastuen finantzaketa beharrak 2007ko ekitaldian.

### b) Aurrekontu kontsolidatuaren likidazioaren bilakaera

Hona hemen zein diren ALHaren foru administrazio publikoaren aurrekontu kontsolidatuaren azken lau likidazioetako aurrekontu daturik adierazgarrienak:

	Mila euro			
AURREKONTUAREN DATUAK	2004	2005	2006	2007
Sarrera arruntak .....	1.754.172	1.959.456	2.137.104	2.468.476
Erakunde konpromisoak.....	(1.367.761)	(1.526.036)	(1.668.649)	(1.841.249)
Sarrera arrunt propioak .....	386.411	433.420	468.455	627.227
Gastu arrunt propioak.....	(273.754)	(314.868)	(333.003)	(405.183)
<b>ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA (1)</b>	<b>112.657</b>	<b>118.552</b>	<b>135.452</b>	<b>222.044</b>
kapitalezko sarrerak .....	25.613	21.613	40.963	34.145
kapitalezko gastuak .....	(75.311)	(81.321)	(110.584)	(137.962)
<b>KAPITAL ERAGIKETEN SALDOA (2)</b>	<b>(49.698)</b>	<b>(59.708)</b>	<b>(69.621)</b>	<b>(103.817)</b>
Eragiketa ez finantzarioak (1+2).....	62.959	58.844	65.831	118.227
Finantza aktiboan aldaketa garbia .....	(24.047)	(21.122)	(1.572)	(15.953)
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA</b>	<b>38.912</b>	<b>37.722</b>	<b>64.259</b>	<b>102.274</b>
Finantza pasiboan aldaketa garbia.....	6.106	6.106	(4.889)	(5.556)
<b>AURREKONTU SALDOA</b>	<b>45.018</b>	<b>43.828</b>	<b>59.370</b>	<b>96.718</b>

### Eragiketa arrunten saldoa

- Eragiketa arrunten saldo kontsolidatua positiboa izan da aztertu den aldiko urte guztietan. Zenbatekoak gora egin du 109.387 mila euroan, 2004ko urtean 112.657 mila euro izatetik, 2007ko urtean 222.044 mila euro izatera aldatuz.

Horrek esan nahi du sarrera arrunt propioei dagokienez, aipatutako aurrekontu datu hori 2004 urtean ehuneko 29,2 izatetik 2007an ehuneko 35,4 izatera aldatu dela.

- Eragiketa arrunten saldo kontsolidatuaren bilakaera positibo hori, aurrekontuko hitzetan adierazita, gertatu da sarrera arrunt propioek aztertutako aldian ehuneko 62,3 gora egin duten bitartean, gastu arrunt propioak, berriz, ehuneko 48 gehitu direlako.



### Kapital eragiketen saldoa

- Kapital eragiketen saldo kontsolidatua negatiboa izan da aztertutako aldiko urte guztietan. Hau da, kapital gastuak kapital sarrerak baino altuagoak izan dira. Horren zenbatekoa ehuneko 108,9 gehitu da aztertutako aldian, 2004. urteko 49.698 mila eurotatik 2007. urteko 103.817 mila eurotara igaro baita.
- Aztertu den aldian, eragiketa arrunten aurrekontu saldo positiboaren bidez lasai finantzatu ahal izan da kapital eragiketen aurrekontuko saldo negatiboa.

### Aurrekontuaren emaitza

Aurrekontuaren emaitza kontsolidatua, eragiketa ez finantzarioei eta finantza aktiboan aldaera garbiari dagozkien zenbatekoen batuketa eginez lortzen dena (eta ekitaldiko aurrekontuaren superabita edo defizita islatzen duena), positiboa izan da aztertu ditugun urteetako bakoitzean.

### Aurrekontu saldoa

- Aurrekontuaren saldo kontsolidatua, aurrekontuaren emaitzari eta finantza pasiboan aldaera garbiari dagozkien zenbatekoen batuketa eginez lortzen dena, positiboa izan da aztertu ditugun urteetako bakoitzean.
- Honek adierazten du, aurrekontuko sarrerek gainditu egin dituztela urte bakoitzean aurrekontu gastuen finantzaketa beharrak.

### c) Sarreren eta gastuen egituraren bilakaera

ALHren sektore administratibo publikoaren sarrera eta gastuen egituraren bilakaera honakoa da:

#### Sarreren egituraren bilakaera

Aزتututako azken lau urteetan aitortutako sarrera guztien aurrekontu magnituderik esanguratsuenen egituraren bilakaera honakoa izan da, oinarria ehun dela:

	Mila euro							
	2004	%	2005	%	2006	%	2007	%
Sarrera arrunt propioak.....	386.411	91,0	433.420	92,7	468.455	88,8	627.227	94,8
kapitalezko sarrerak .....	25.613	6,0	21.613	4,6	40.963	7,8	34.145	5,2
Finantzaketa sarrerak .....	12.529	3,0	12.417	2,7	18.370	3,4	371	0,1
<b>Aurrekontuetako diru-sarrerak</b>	<b>424.553</b>	<b>100,0</b>	<b>467.450</b>	<b>100,0</b>	<b>527.788</b>	<b>100,0</b>	<b>661.743</b>	<b>100,0</b>

Sarrera arrunt propioek garrantzia erlatiboa gehitu dute eta aldiz, kapital eta finantza-sarrerek gutxitu.



### Gastuen egituraren bilakaera

Aztertutako azken lau urteetan aitortutako obligazio guztien aurrekontu magnituderik esanguratsuenen aurrekontu gastuen gastu-egituraren bilakaera honakoa izan da, oinarria ehun dela:

	Mila euro							
	2004	%	2005	%	2006	%	2007	%
Gastu arrunt propioak .....	273.754	64,5	314.868	67,3	333.003	63,1	405.183	61,2
kapitalezko gastuak.....	75.311	17,7	81.321	17,4	110.584	21,0	137.962	20,8
Finantzaketa gastuak.....	30.470	7,2	27.433	5,9	24.831	4,7	21.880	3,3
Aurrekontu gastuak .....	379.535	89,4	423.622	90,6	468.418	88,8	565.025	85,4
Aurrekontuaren superabita.....	45.018	10,6	43.828	9,4	59.370	11,2	96.718	14,6
<b>Aurrekontu gastuak guztira</b>	<b>424.553</b>	<b>100,0</b>	<b>467.450</b>	<b>100,0</b>	<b>527.788</b>	<b>100,0</b>	<b>661.743</b>	<b>100,0</b>

- Gastu arrunt propioek garrantzia erlatiboa murrizteko joera dute eta aldiz, kapitalezko gastuek gehitzekoa.
- 2007ko aurrekontu saldoa 96.718 mila eurotara igo da. Aurrekontuaren soberakin honek diruzaintza geldikina 46.208 mila euroan gehitzea bideratu du.
- Diruzaintza geldikinak, 2007ko abenduaren 31n 216.714 mila eurokoa denak, honako osaera hau erakutsi du:

	Mila euro
Kobratzeko dauden eskubide garbiak .....	158.279
Ordaintzeke dauden obligazioak.....	(122.886)
Fondo likidoak.....	181.321
<b>Diruzaintzako geldikina</b>	<b>216.714</b>



### III.1.2 ONDARE KONTUAK

#### a) Egoeraren balantze kontsolidatuaren bilakaera

ALHaren foru administrazio publikoaren egoera balantze kontsolidatuaren bilakaera honako hau izan da azken lau urteetan:

KONTSOLIDATUTAKO EGOERA BALANTZEAK				Mila euro
	2004	2005	2006	2007
Azpiegitura eta erabil. orok. ondas.	65.097	43.889	63.254	82.350
<b>Ibilgetua</b>	<b>307.303</b>	<b>309.386</b>	<b>325.233</b>	<b>342.048</b>
Ezmateriala .....	6.432	12.145	12.355	12.659
Materiala.....	149.023	149.580	152.639	161.354
Indarrekoa.....	23.372	6.370	9.386	11.881
Finantzarioa .....	128.476	141.291	150.853	156.154
<b>Hainbat ekitalditan banatzeko gastuak</b>	<b>45</b>	<b>38</b>	<b>32</b>	<b>25</b>
<b>Zordunak</b>	<b>60.547</b>	<b>30.567</b>	<b>59.079</b>	<b>104.667</b>
Aitortutako eskubideak .....	153.286	157.418	204.175	247.922
Hornidurak.....	(92.739)	(126.851)	(145.096)	(143.255)
Besteren baliabideen kudeaketa .....	-	-	-	-
<b>Finantza-kontuak</b>	<b>165.176</b>	<b>188.931</b>	<b>212.317</b>	<b>200.994</b>
Inbertsio finantzario iragankorrak .....	71.286	85.014	96.579	115.481
Diruzaintza.....	93.275	103.548	114.503	72.159
Bestelako kontuak.....	615	369	1.235	13.354
<b>GUZTIRA AKTIBOA</b>	<b>598.168</b>	<b>572.811</b>	<b>659.915</b>	<b>730.084</b>
<b>BEREZKO FONDOAK</b>	<b>294.168</b>	<b>269.472</b>	<b>350.092</b>	<b>472.378</b>
Ondarea.....	225.733	225.733	225.733	225.733
Lagapenean dagoen ondarea .....	5.891	5.396	5.396	4.662
Lagatako ondarea .....	(63.745)	(63.804)	(65.131)	(67.264)
Atxikita dagoen ondarea .....	-	-	-	-
Atxikitako ondarea .....	-	-	-	-
Erabilera orokorreko ondarea .....	(344.375)	(407.524)	(428.146)	(464.605)
Aurreko emaitzak.....	392.944	471.116	509.730	612.300
Galdu-lrabaziak.....	78.173	38.614	102.569	161.620
Kontsolidatzen ari diren entitat. errets. ....	(453)	(59)	(59)	(68)
<b>Arrisku eta gastuen hornidura</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>-</b>
<b>Epe luzeko zorrak</b>	<b>146.981</b>	<b>146.015</b>	<b>131.757</b>	<b>117.388</b>
Finantza zorra .....	146.555	145.574	131.222	116.803
Hartzekodun publikoak .....	147	-	-	-
Bestelako hartzek.....	279	441	535	585
<b>Epe laburreko zorrak</b>	<b>157.019</b>	<b>157.324</b>	<b>178.066</b>	<b>140.318</b>
Finantza zorra .....	19.143	6.488	6.747	6.873
Hartzekodun publikoak .....	5.398	5.464	5.199	6.217
Bestelako hartzek.....	94.432	84.755	97.101	102.676
Aplikatzeko dauden sarrerak .....	11.864	33.374	40.877	2.997
Aldizkapenengatiko doiketak .....	26.182	27.243	28.142	21.555
<b>PASIBOA GUZTIRA</b>	<b>598.168</b>	<b>572.811</b>	<b>659.915</b>	<b>730.084</b>



Aurreko taulan, 2004-2007ko aldian ALHaren Administrazio Publikoaren kotsolidatutako egoera balantzeak izan duen bilakaera erakusten duen horretan, besteak beste, zera ikus daiteke:

- Erabilera propiora emandako ibilgetu material garbiko inbertsioa 12.331 mila euro gehitu dela.
- Erabilera orokorrera emandako ondare-inbertsioak 120.230 milioi euroan gehitu direla, hau da, 40.077 mila euro urteko batez besteko.
- Finantza ibilgetuko inbertsioak, batez ere sektore publiko enpresarialeko partaidetzetara emanak, 27.678 milioi euroan gehitu direla, hau da, 9.226 mila euro urteko batez besteko.
- Guztizko finantza zorra 42.022 milioi euroan murriztu dela.
- Diruzaintzako kontuak 35.818 mila euroan gehitu direla.
- Aztertutako aldian emaitza ekonomikoek 380.976 mila euro egin dutela gora.



## b) Galeren eta irabazien kontu kontsolidatuaren bilakaera

Foru administrazio publikoaren galera eta irabazien kontu kontsolidatuaren bilakaera honako hau izan da azken lau ekitaldietan:

KONTOLIDATUTAKO GALDU-IRABAZIEN KONTUA				Mila euro
GASTUAK	2004	2005	2006	2007
<b>Funtzionamendu gastuak</b>	<b>222.157</b>	<b>274.818</b>	<b>269.589</b>	<b>329.504</b>
Langileen gastuak .....	100.493	104.627	110.531	117.248
Hornidurak eta kanpoko zerbitzuak .....	95.221	102.932	108.238	120.195
Finantza gastua .....	5.603	6.848	7.591	7.078
lbilgetuaren amortizazioa .....	6.136	8.406	7.806	8.159
Hornigaien urteko zuzkidura .....	14.704	52.005	35.423	76.824
<b>Transferentziak eta diru laguntzak</b>	<b>118.577</b>	<b>139.769</b>	<b>157.188</b>	<b>209.510</b>
Arruntak .....	1.458.126	1.640.265	1.787.803	2.014.840
Erakunde konpromisoak .....	(1.367.761)	(1.526.036)	(1.668.649)	(1.841.249)
kapitalezkoak .....	26.501	24.977	37.538	35.622
Kap. erag. beste ente batz. egindako lanak .....	1.711	563	496	297
<b>Gastu bereziak</b>	<b>3.530</b>	<b>7.732</b>	<b>7.587</b>	<b>8.817</b>
<b>Aurreko ekitaldietako galerak</b>	<b>11.350</b>	<b>18.069</b>	<b>14.925</b>	<b>35.837</b>
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>355.614</b>	<b>440.388</b>	<b>449.289</b>	<b>583.668</b>
<b>DIRU-SARRERAK</b>				
Salmentak eta zerbitzuen emakida	17.260	18.259	20.568	22.898
<b>Kudeaketa arrunteko sarrerak</b>	<b>322.978</b>	<b>338.271</b>	<b>376.985</b>	<b>399.654</b>
Zerga sarrerak .....	1.686.896	1.859.713	2.038.496	2.231.943
Erakunde konpromisoak .....	(1.367.761)	(1.526.036)	(1.668.649)	(1.841.249)
Sarrera finantzarioak .....	3.575	4.358	6.408	8.677
Bestel. kudeaketa sarrerak .....	268	236	730	283
<b>Transferentziak eta diru laguntzak</b>	<b>71.588</b>	<b>96.044</b>	<b>107.434</b>	<b>169.479</b>
Arruntak .....	46.550	76.852	75.590	126.856
kapitalezkoak .....	25.038	19.192	31.844	42.623
<b>Diru-sarrera bereziak</b>	<b>8.085</b>	<b>6.841</b>	<b>29.768</b>	<b>3.502</b>
<b>Aurreko ekitaldietako mozkinak</b>	<b>13.876</b>	<b>19.587</b>	<b>17.103</b>	<b>149.754</b>
<b>DIRU-SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>433.787</b>	<b>479.002</b>	<b>551.858</b>	<b>745.287</b>
<b>EKITALDIAREN EMAITZA</b>	<b>78.173</b>	<b>38.614</b>	<b>102.569</b>	<b>161.619</b>

Aurreko taulan, 2004-2007ko aldian ALHren Administrazio Publikoaren Galdu-Irabazien Kontu kontsolidatua erakusten duena, besteak beste, zera ikus daiteke:

- "Funtzionamendu gastuak" 107.347 mila euroan gehitu direla; honek urteko batez besteko ehuneko 16,1eko igoera egiten du 2004ko urtearekiko, oinarria ehun dela.

Osagarri adierazgarrienen aldaera honako hau da:

- Langileria gastuak: Urteko batez besteko ehuneko 5,6ko igoera.
- Hornidurak eta kanpoko zerbitzuak Urteko batez besteko ehuneko 8,7ko igoera.
- Zerga sarrerak 545.047 mila euro gehitu direla eta honek urteko batez besteko ehuneko 10,8ko igoera ekarri du.
- "Erakunde konpromisoek" eragindako transferentziak 473.488 mila euro gehitu direla eta honek urteko batez besteko ehuneko 11,5eko igoera ekarri du.





- Transferentzia eta diru-laguntzek eragindako gastu propioak 90.933 mila euro gehitu direla eta honek urteko batez besteko ehuneko 25,6ko igoera ekarri du.
- Transferentzia eta diru-laguntzek eragindako sarrerak 97.891 mila euro gehitu direla eta honek urteko batez besteko ehuneko 45,6ko igoera ekarri du.

### III.1.3 KONTZILIAZIOA, AURREKONTU SALDOAREN ETA ONDARE EMAITZA EKONOMIKOAREN ARTEKOA

Aurrekontuaren saldo kontsolidatuak eta galeren eta irabazien kontuak ematen duten informazioa ezberdina da, izan ere, lehenengoa aurrekontu izaerako magnitude bat baita eta bigarrena, berriz, ekonomia izaerako magnitudea. Horregatik, jarraian bi magnitude horien arteko kontziliazioa aurkeztuko dugu, haien artikulazioa ulergarriagoa egiteko asmoz.

ALHaren foru administrazio publikoaren aurrekontu saldo kontsolidatuaren eta galera eta irabazien kontuaren arteko kontziliazioa honako hau da 2007. urteari dagokionez:

2007 URTEA	Mila euro
<b>AURREKONTUAREN SALDO KONTOLIDATUA</b>	<b>96.718</b>
Aurreko urtealdietako emaitza.....	(35.486)
Egiazko inbertsio garbiak.....	89.035
Ibilgetuaren amortizazioa .....	(8.159)
Finantza aktiboen aldaketa garbia .....	15.954
Finantza pasiboen aldaketa garbia .....	5.555
Ibilgetu finantzarioaren zuzkiduraren aldaketa.....	(111)
Ibilgetu materialetik eratorritako mozkinak .....	3.098
Ibilgetu materialetik eratorritako galerak.....	(634)
Kaudimengab. zuzkid. aldak.....	(7.893)
Aparteko irabaziak .....	162
Ibilgetu finantzarioaren emaitza.....	(8.056)
Geroko urteald. aitortutako eskubideen aldaketa.....	(7.102)
Finantzaketaren desbideraketen aldak. ....	6.589
Finantza doiketaren zuzkidura aldaketa .....	12.072
Beste batzuetan.....	(123)
<b>EKONOMIA ETA ONDARE EMAITZA KONTOLIDATUA</b>	<b>161.619</b>

- ALHren foru administrazio publikoaren galera eta irabazien kontuak ekonomiaren eta ondarearen aldetik erakusten duen emaitza 2007ko ekitaldian lortutako aurrezkoa dela ulertu behar da. Emaitza positiboa du, 161.619 mila eurokoa.
- ALHaren foru administrazio publikoaren aurrekontu saldo kontsolidatuak, 96.718 milioi euroko aurrekontu soberakina duenak, 2007. urtean lortutako aurrekontu sarrerek zenbateko horretan urte horretako gastuak finantzatzeko beharrak gainditu dituztela erakusten du.



### III.2 SEKTORE PUBLIKO ENPRESARIALA

Foru sozietate publikoak dira Aldundiaren partaidetza kapital sozialaren % 50a baino handiagoa denean. Hona hemen zeintzuk diren:

Sozietate publikoak	% Partaidetza	Xedea
1 Araba Garapen Agentzia, SA (AGA).....	100	Industrializazioa bultzatu eta sustatzea.
2 Naturgolf, SA.....	99,98	Inguru naturalarekin lotutako hainbat jarduera, inguru sozio-ekonomikoaren garapen eta hobekuntzan lagunduko dutenak, aberastasun eta lanaren sortzaile, natur parkeen kudeaketa barne hartuta. Gaur egun, jarduera nagusia Urturi y Lagrango golf zelaien ustiapenera emana dago.
3 Arabako Kalkulu Zentroa, SA .....	100	Ustiapen eta garapen informatikoarekin lotutako zerbitzuak ematea.
4 Ondarea Kudeatzeko Sozietate Anonimoa Arabako Kultura Eraikia (Arabarri).....	55,9	Birgaitze integratuko alorren esparruan hainbat jarduera.
5 Arabako Lanak, SA .....	100	Azpiegituren obra publikoak proiektatu, eraiki, zaindu eta ustiatzea, bere izenean edo Arabako Foru Aldundiaren kontura.
6 Fernando Buesa Arena, SA.....	100	Fernando Buesa Arena erabilera anitzeko aretoaren kudeaketa ekonomiko integrala eta ikuskizunen antolamendua.
7 Araba Uraren Agentzia, SA .....	100	Ur eta lur ureztatuen hornidura eta saneamendu gaiet. aholkularitza tekniko eskaintzea; baita zerbitzu horiek Arabako Lurralde Historikoan ematearekin lotutako jarduera guztiak ere.
8 Arabako Bideak, SA .....	100	Arabako Lurralde Historikoan zehar igarotzean Vitoria-Gasteiz-Eibar A-1 Autobidea eraiki, zaindu, mantendu eta berez edo hirugarren pertsonen bitartez ustiatzea.
9 Laudioko Elkartegia, SA .....	89,2	Industri sustapena.
10 Asparrenako Elkartegia, SA.....	98	Industri sustapena.

Ondare kontuen kontsolidazioa elkarrekiko eragiketak gehitu eta kentzeko prozedura bidez gauzatzen da.



### a) Egoeraren balantze kontsolidatuaren bilakaera

Foru enpresa publikoen sektorea osatzen duten entitate multzoaren egoera-balantze kontsolidatuaren bilakaera honako hau izan da azken lau urteetan:

KONTSOLIDATUTAKO EGOERA BALANTZEAK				Mila euro
	2004	2005	2006	2007
<b>AKTIBOA</b>				
<b>Ezarpen gastuak</b>	<b>112</b>	<b>79</b>	<b>50</b>	<b>24</b>
<b>Ibilgetua</b>	<b>36.975</b>	<b>56.241</b>	<b>94.626</b>	<b>151.491</b>
Ezmateriala .....	55	41	135	105
Materiala.....	7.777	7.196	69.513	123.841
Indarrekoa.....	3.928	24.944	-	-
Finantzarioa: .....	25.215	24.060	24.978	27.545
<b>Hainbat ekitalditan banatzeko gastuak</b>	<b>1.426</b>	<b>1.425</b>	<b>1.424</b>	<b>1.424</b>
<b>Zirkulatzailea</b>	<b>86.309</b>	<b>94.680</b>	<b>81.786</b>	<b>77.692</b>
Eskatutako ordainketen akziodunak .....	-	9.320	-	-
Izakinak .....	41.475	48.294	48.225	35.721
Zordunak .....	29.492	25.216	28.474	35.040
Inbertsio finantzario iragankorrak .....	185	197	984	576
Diruzaintza.....	15.145	11.639	4.093	6.128
Aldizkakotzeagatikoko doiketak.....	12	14	10	227
<b>GUZTIRA AKTIBOA</b>	<b>124.822</b>	<b>152.425</b>	<b>177.886</b>	<b>230.631</b>
<b>PASIBOA</b>				
<b>Berezko fondoak</b>	<b>97.550</b>	<b>119.370</b>	<b>120.697</b>	<b>121.019</b>
Kapital harpidetua.....	76.588	96.907	96.907	99.577
Erretserbak .....	19.398	23.503	24.017	25.362
Pilatutako emaitzak .....	(1.985)	(2.075)	(1.973)	(1.806)
Galdu-irabaziak .....	(3.130)	(5.821)	(6.074)	(10.111)
Galerak berdintzeko bazkideen ekarp. ....	6.679	6.856	7.820	7.997
<b>Hainbat urt. banatzeko sarr.</b>	<b>3.396</b>	<b>2.169</b>	<b>3.444</b>	<b>3.428</b>
<b>Arrisku eta gastuen hornidura</b>	<b>1.285</b>	<b>1.321</b>	<b>1.560</b>	<b>3.298</b>
<b>Hartzekodunak epe luzera</b>	<b>772</b>	<b>779</b>	<b>18.158</b>	<b>56.632</b>
Kreditu entitateak .....	601	451	17.801	56.450
Hartzekodunak.....	171	328	357	182
<b>Hartzekodunak epe laburrera</b>	<b>21.819</b>	<b>28.786</b>	<b>34.027</b>	<b>46.254</b>
Kreditu entitateak .....	150	150	302	1.731
Hartzekodun publikoak .....	537	831	3.469	3.941
Hartzekodunak.....	19.623	26.560	29.188	39.714
Trafiko eragiket. zuzkidurak .....	1.503	1.239	1.039	846
Aldizkakotzeagatikoko doiketak.....	6	6	29	22
<b>PASIBOA GUZTIRA</b>	<b>124.822</b>	<b>152.425</b>	<b>177.886</b>	<b>230.631</b>

Aurreko taulan, 2004-2007ko aldian ALHren Administrazio Publikoaren Galdu-Irabazien Kontu kontsolidatua erakusten duena, besteak beste, zera ikus daiteke:

- Ibilgetuan egindako inbertsioak 114.516 mila euroan gehitu direla.
- guztizko diruzaintza 9.017 milioi euroan murriztu dela.
- Kapital harpidetuen zenbatekoak 22.989 mila euroko hazkundera izan duela.
- Finantzetxeekiko zorra 57.430 milioi euroan gehitu dela.



- Aztertutako aldiaren galdu-irabazien kontuak 25.136 mila euroko galera erakutsi duela eta bazkideek galerak berdintzeko egindako ekarpenak 29.352 mila eurokoak izan direla.

## b) Galeren eta irabazien kontu kontsolidatuaren bilakaera

Foru enpresa publikoen sektorea osatzen duten entitate multzoaren egoera-balantze kontsolidatuaren bilakaera honako hau izan da azken lau urteetan:

KONTSOLIDATUTAKO GALDU-IRABAZIEN KONTUA	Mila euro			
	2004	2005	2006	2007
<b>GASTUAK</b>				
<b>USTIAKETA GASTUAK</b>	<b>45.337</b>	<b>30.009</b>	<b>29.219</b>	<b>33.821</b>
Ustiaketako kontsumoak.....	34.341	19.499	17.256	20.720
Langileen gastuak.....	7.006	6.994	7.633	7.880
Amortizaziorako zuzkidura.....	386	351	347	445
Bestelako ustiaketa gastuak.....	3.604	3.165	3.983	4.776
Finantza gastua	22	22	63	18
Gastu bereziak	1.227	536	546	6.993
<b>Aurreko ekitaldietako galerak</b>	<b>96</b>	<b>23</b>	<b>-</b>	<b>-</b>
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>46.682</b>	<b>30.590</b>	<b>29.828</b>	<b>40.832</b>
<b>SARRERAK</b>				
<b>Ustiaketako sarrerak</b>	<b>39.114</b>	<b>20.299</b>	<b>18.869</b>	<b>24.727</b>
Salmentak eta errentamenduak.....	36.575	17.463	15.423	20.324
Zerbitzu emakida.....	1.051	1.513	2.315	2.845
Bestelako ustiaketa sarrerak.....	1.488	1.323	1.131	1.558
<b>Sarrera finantzarioak</b>	<b>886</b>	<b>918</b>	<b>1.114</b>	<b>1.427</b>
<b>Diru-laguntzak</b>	<b>3.526</b>	<b>3.391</b>	<b>3.737</b>	<b>3.393</b>
Arruntak.....	3.128	3.054	3.155	2.942
kapitalezkoak.....	398	337	582	451
<b>Aurreko ekitaldietako mozkinak</b>	<b>11</b>	<b>52</b>	<b>2</b>	<b>1.114</b>
<b>Aparteko irabaziak</b>	<b>15</b>	<b>109</b>	<b>32</b>	<b>60</b>
<b>DIRU-SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>43.552</b>	<b>24.769</b>	<b>23.754</b>	<b>30.721</b>
<b>EMAITZA</b>	<b>(3.130)</b>	<b>(5.821)</b>	<b>(6.074)</b>	<b>(10.111)</b>

Aurreko taulan, 2004-2007ko aldiaren ALHren Administrazio Publikoaren Galdu-Irabazien Kontu kontsolidatua erakusten duena, besteak beste, honako puntuak nabarmentzen dira:

- Sarrera finantzarioak finantza gastuak baino handiagoak izan direla.
- 2007ko ekitaldian jasotako diru laguntzek ustiaketa gastuen ehuneko 10 egiten dutela.
- Urte bakoitzaren emaitzek galerak islatzen dituztela.

## IV. ALH-AREN FORU SEKTORE PUBLIKOAREN KONTUAK

Arabako Lurralde Historikoaren Kontu Orokorrak 2007an indarreko arautegiak agintzen duen informazioa barne hartzen du eta Gobernu Kontseiluak 2008ko uztailaren 1ean onetsi zuen, Arabako Batzar Nagusiek behin-betiko onetsi zain dagoela.



Honako kontu hauez osatua dago:

1. Arabako Foru Aldundiaren Kontuak.
2. Erakundearen Administrazioaren Kontuak
  - Erakunde Autonomo Administratiboak.
  - Foru enpresa publikoak

## IV.1 ARABAKO FORU ALDUNDIAREN KONTUAK

### AURREKONTU KONTUAK

#### A.1 Aurrekontuaren likidazioa

Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuaren likidazioa, indarreko aurrekontuaren likidazioak eta itxitako ekitaldietako hondakinen likidazioak osatzen dute.

2007-KO EKITALDIAREN AURREKONTU LIKIDAZIOA							Mila euro
Sarrerak	Eransk.	Hasierako aurrek.	Kreditu aldaketa	B.-betiko aurrek.	Kitatutako eskubideak	Kobr.	Kobr. zain
1.- Zerga zuzenak .....	A.3.1	967.907	28.162	996.069	1.056.881	1.027.576	29.305
2.- Zeharkako zergak .....	A.3.1	1.175.013	20.012	1.195.025	1.142.798	1.119.898	22.900
3.- Tasak eta bestelako sarrerak .....	A.3.1	13.621	680	14.301	108.754	57.615	51.139
4.- Transferentzia arruntak.....	A.3.2	35.261	73.432	108.693	109.647	109.074	573
5.- Ondare sarrerak .....	A.3.3	5.035	2.318	7.353	9.449	7.993	1.456
6.- Inbertsio errealen bester. ....	A.3.4	400	-	400	147	147	-
7.- Kapitalezko transferentziak ..	A.3.2	22.322	3.776	26.098	33.957	8.059	25.898
8.- Finantza aktiboan aldaketa ..	A.3.5	24.506	16.528	41.034	232	232	-
9.- Finantza aktiboan aldaketa ..		37.909	-	37.909	-	-	-
<b>DIRU-SARRERAK GUZTIRA</b>		<b>2.281.974</b>	<b>144.908</b>	<b>2.426.882</b>	<b>2.461.865</b>	<b>2.330.594</b>	<b>131.271</b>

							Mila euro
Gastuak	Eransk.	Hasierako aurrek.	Kreditu aldaketa	B.-betiko aurrek.	Aitortutako eskubideak	Ordain.	Ordain. zain
1.- Langileen gastuak .....	A.4.1	53.001	3.406	56.407	54.162	54.138	24
2- Ondasun arr. eta zerb. erosk. ..	A.4.2	40.172	7.382	47.554	45.045	37.557	7.488
3.- Finantza gastuak.....	A.4.3	6.636	581	7.217	6.896	5.476	1.420
4.- Transferentzia arruntak.....	A.4.4	1.977.149	137.312	2.114.461	2.100.133	2.080.092	20.041
6.- Inbertsio errealak.....	A.4.5	112.579	53.584	166.163	101.190	76.636	24.554
7.- Kapitalezko transferentziak ..	A.4.4	55.572	16.876	72.448	36.681	21.342	15.339
8.- Finantza aktiboan aldaketa ..	A.4.6	15.600	671	16.271	16.191	9.261	6.930
9.- Finantza aktiboan aldaketa ..	A.6.6	5.556	-	5.556	5.556	5.556	-
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>		<b>2.266.265</b>	<b>219.812</b>	<b>2.486.077</b>	<b>2.365.854</b>	<b>2.290.058</b>	<b>75.796</b>
<b>SARRERAK - GASTUAK</b>		<b>15.709</b>	<b>(74.904)</b>	<b>(59.195)</b>	<b>96.011</b>	<b>40.536</b>	<b>55.475</b>



## A.2 Aurrekontu itxien aldaketa

		Mila euro			
	Eranskina	Hasierako egitekoa	Baliog.	Kobr./ ordaink.	Azkena egitekoa
Zordunak .....	A.6.3	169.073	(35.725)	(77.448)	55.900
Hartzekodunak .....	A.6.7	76.529	298	72.609	3.622
<b>AURREKONTU ITXIAK</b>		<b>92.544</b>	<b>(35.427)</b>	<b>(4.839)</b>	<b>52.278</b>

## A.3 Urteanitzeko gastuen egoera

		Mila euro				
Geroko gastuak (2007. urtea eta gerokoak)	Eransk.	Hasierako kredituak	Alda- ketak	itxierako kredituak	Baimend. kredit.	Hitzartu- takoak
2.- Ondasun arrunt eta zerb. erosketa .....	A.4.2	1.069	211	1.280	638	385
4.- Transferentzia arruntak .....	A.4.4	6.891	3.134	10.025	8.533	6.147
6.- Inbertsio errealak .....	A.4.5	135.420	81.331	216.751	87.668	78.629
7.- Kapitalezko transferentziak .....	A.4.4	36.054	35.755	71.809	58.867	58.060
<b>GEROKO GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>A.5</b>	<b>179.434</b>	<b>120.431</b>	<b>299.865</b>	<b>155.706</b>	<b>143.221</b>
				2008 urtea .....		88.276
				2009 urtea .....		18.625
				2010 urtea .....		13.316
				2011 urtea eta hurr. ....		23.004

## A.4 Zorraren egoera eta abalak

	Mila euro	
	ERANSKINA	
Maileguak .....	A.6.6	33.778
Bonoak.....	A.6.6	35.400
<b>FINANTZA PASIBOAK GUZTIRA</b>		<b>69.178</b>
<b>ABALAK</b>		<b>542</b>



## A.5 Ekitaldiaren emaitza

EKITALDIAREN EMAITZA ETA DIRUZAINZA GELDIKINA		Mila euro
<b>AURREKONTU ARRUNTA 2007</b>		
Eskubide kitatuak.....	2.461.865	
- Obligazio aitortuak .....	2.365.854	
<b>AURREKONTU ARRUNTAREN SUPERABITA</b>		<b>96.011</b>
<b>EKITALDI ITXIAK</b>		
Zordunak Eskubide kitatuak baliogabetzea .....	(35.725)	
Zordunak Kaudimengab. zuzkid. aldak.....	(14.451)	
Obligazio aitortuak baliogabetzea .....	298	
<b>AURREKONTU ITXIEN DEFIZITA</b>		<b>(49.878)</b>
<b>EKITALDIAREN EMAITZA</b>		<b>46.133</b>
<b>DIRUZAINZA GELDIKINA 06/12/31n</b>		<b>170.361</b>
<b>(Elkarfinantzatutako proiektuen finantzaketaren desbideraketak)</b>		<b>(21.544)</b>
<b>DIRUZAINZA GELDIKINA 07/12/31n</b>		<b>194.950</b>
<b>(Finantzaren doiketa)</b>		<b>(32.035)</b>
<b>DIRUZAINZA GELDIKIN ERABILGARRIA 07/12/31-N</b>		<b>162.915</b>

DIRUZAINZAKO GELDIKINA		Mila euro
Diruzaintza (A.6.4).....	179.973	
Aurrekontu arruntaren zordunak.....	131.271	
Aurrekontu itxien zordunak .....	55.900	
Aurrekontu arruntaren hartzekodunak .....	(75.796)	
Aurrekontu itxien hartzekodunak.....	(3.622)	
Aurrek. kanp. (hartzek. zordunetatik garbi) .....	33.326	
Huts egindakoen hornidura (A.6.3) .....	(104.558)	
(Elkarfinantzatutako proiektuen finantzaketaren desbideraketak) .....	(21.544)	
(Finantzaren doiketa) .....	(32.035)	
<b>DIRUZAINZA GELDIKIN ERABILGARRIA 07/12/31-N</b>		<b>162.915</b>



## B. ONDARE KONTUAK

Hona hemen Arabako Foru Aldundiaren egoeraren balantze garbia eta galdu-irabazien kontua:

### B.1 Egoeraren balantzea

2007.12.31n eta 2006.12.31n				Mila euro			
AKTIBOA	Eranskina	2007	2006	PASIBOA	Eranskina	2007	2006
<b>IBILGETUA</b>		<b>389.912</b>	<b>353.922</b>	<b>BEREZKO FONDOAK:</b>		<b>437.636</b>	<b>315.346</b>
Azpiegiturak .....	A.6.1	82.350	63.254	Ondarea .....	A.6.5	223.574	223.574
Ezmateriala .....	A.6.1	19.279	18.617	Lagapen. dagoen ondarea	A.6.5	4.662	5.396
Amort. ezmateriala .....	A.6.1	(6.620)	(6.262)	Atxikitako ondarea.....	A.6.5	(42.334)	(41.961)
Materiala eta abian .....	A.6.1	202.600	188.983	Lagatako ondarea .....	A.6.5	(67.264)	(65.131)
Amort. materiala.....	A.6.1	(63.667)	(61.334)	Erabilera orokorrakoa.....	A.6.5	(464.605)	(428.146)
Ibilgetu finantzarioa .....	A.6.2	155.970	150.664	Aurreko emaitzak .....	A.6.5	621.614	518.389
				Ekitaldiaren emaitza.....	A.6.5	161.989	103.225
<b>BANATZEKO GASTUAK</b>		<b>25</b>	<b>32</b>				
<b>ZORDUNAK</b>		<b>99.145</b>	<b>55.290</b>	<b>HARTZEK. EPE LUZERA</b>		<b>117.341</b>	<b>131.710</b>
Aurrek. zordunak.....	A.6.3	192.516	179.213	Obligazioak eta bonoak ....	A.6.6	35.400	35.400
Zordun ez aurrekont. ....	A.6.8	48.568	20.431	Epe luzeko zorrak .....	A.6.6	81.403	95.822
Hornidurak .....	A.6.3	(141.939)	(144.354)	Epe luzeko bermeak.....	A.6.8	538	488
<b>FINANTZA-KONTUAK</b>		<b>186.254</b>	<b>209.211</b>	<b>HARTZEK. EPE MOTZERA</b>		<b>109.081</b>	<b>103.511</b>
Denbor. finant. inberts.....	A.6.4	115.444	96.542	Aurrekont. hartzekod.....	A.6.7	78.951	76.081
Diruzaintza .....	A.6.4	70.810	112.669	Hartzekodun ez aurrek.....	A.6.8	19.854	17.578
				Ente publ., likidatzeko sarr...	A.6.8	2.034	1.796
				Entitate publikoak.....	A.6.8	1.366	1.298
				Epe laburreko bermeak .....	A.6.8	3	11
				Beste zor batzuk .....	A.6.6	6.873	6.747
<b>APLIK. DAUDEN ORDAINK.</b>		<b>13.127</b>	<b>1.082</b>	<b>APLIKATZ. DAUDEN SARR.</b>	<b>A.6.8</b>	<b>2.861</b>	<b>40.837</b>
<b>ALDIZKAPENAGATIKO DOIKUNTZAK</b>			-	<b>ALDIZKAPENAGATIKO DOIK.</b>		<b>21.544</b>	<b>28.133</b>
<b>GUZTIRA AKTIBOA</b>		<b>688.463</b>	<b>619.537</b>	<b>PASIBOA GUZTIRA</b>		<b>688.463</b>	<b>619.537</b>





## B.2 Galdu-irabazien kontua

		Mila euro			
GASTUAK	2007	2006	SARRERAK	2007	2006
<b>FUNTZIONAMENDU GASTUAK</b>	<b>120.850</b>	<b>136.994</b>	<b>SALMENTA ETA ZERBITZU EMAKIDA</b>	<b>1.371</b>	<b>761</b>
Langileen gastuak .....	54.144	51.518	Salmenta garbiak .....	926	359
Ibilgetua amortiz. zuzkidura .....	7.012	6.636	Zerbitzu emakida .....	445	402
Trafiko zuzkiduren aldak .....	(4.753)	18.530			
Bestelako ustiaketa gastuak .....	57.055	52.460	<b>KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK</b>	<b>2.240.671</b>	<b>2.045.578</b>
Tributuak .....	315	259	Zerga zuzenak .....	1.054.860	915.668
Finantza gastua .....	6.967	6.175	Zeharkako zergak .....	1.141.686	1.102.370
Finantza zuzkid. aldak .....	111	1.416	Bestel. tributuak .....	37.092	13.994
			Gerorapen ktu. eta zor trib. berezia ..	(1.695)	6.464
			Bestelako ondare sarrerak .....	119	718
			Kapital partaidetzako sarr. ....	-	279
			Balore negoziag. sarrerak .....	8.609	6.085
<b>EMAND.TRANSF &amp; DIRU-LAG.</b>	<b>2.137.111</b>	<b>1.903.672</b>	<b>JASOTAKO TRANSF. ETA DIRUL.</b>	<b>150.201</b>	<b>89.826</b>
ITXITAKO EKIT. GALERAK	35.733	14.925	ITXIT. EKIT. MOZKINAK	68.755	477
IBILGETUKO GALERAK	8.692	7.487	IBILGETUTIK ERATOR. MOZKIN.	3.110	27.348
APARTEKO GALERAK	125	100	APARTEKO IRABAZIAK	392	2.413
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>2.302.511</b>	<b>2.063.178</b>	<b>DIRU-SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>2.464.500</b>	<b>2.166.403</b>
<b>EKITALDIAREN EMAITZA</b>	<b>161.989</b>	<b>103.225</b>			



## IV.2 ERAKUNDEAREN ADMINISTRAZIOAREN KONTUAK

ALHren Erakundeen Administrazioaren kontuak hauetan biltzen dira:

1. Erakunde Autonomo Administrazioaren kontuak
2. Foru Enpresa Publikoen Kontuak

### IV.2.1 ERAKUNDE AUTONOMO ADMINISTRATIBOEN KONTUAK

#### A. AURREKONTU KONTUAK

##### A.1 Aurrekontuaren likidazioa

Gizarte Ongizatearen Foru Erakunderen (GOFE) eta Gazteriaren Foru Institutuaren (GFI) aurrekontuaren likidazioak, indarreko aurrekontuaren likidazioak eta itxitako ekitaldien likidazioak osatzen dituzte.

#### A. 2007-KO EKITALDIAREN AURREKONTU LIKIDAZIOA Mila euro

SARRERAK	GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA			GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA		
	AZKEN AURREK.	KITATUTAKO ESKUBIDEAK	KOBR.	AZKEN AURREK.	KITATUTAKO ESKUBIDEAK	KOBR.
3.-Tasak eta bestelako sarrerak .....	17.882	19.872	15.563	1.638	1.726	1.669
4.- Transferentzia arruntak .....	146.504	135.619	125.193	3.543	3.543	3.543
5.-Ondare sarrerak.....	24	48	22	-	19	9
6.- Inbertsio errealak .....	-	-	-	-	-	-
7.- Kapital transferentziak .....	3.448	2.453	1.041	-	-	-
8.- Finantza aktiboen aldaketa .....	181	124	124	19	15	15
<b>AURREKONTU ARRUNTA GUZTIRA</b>	<b>168.039</b>	<b>158.116</b>	<b>141.943</b>	<b>5.200</b>	<b>5.303</b>	<b>5.236</b>
"Arabako lurraldeetan aurrera eramateko jarduerak zehazte aldera, hainbat bilera egin eta gero, N-1 errepidean obrak finantzatu eta gauzatzeko Sustapen Ministerioaren eta Arabako Foru Aldundiaren artean sinatutako Lankidetzeta eta Laguntza Hitzarmenaren Programazio, Jarraipen eta Kontrolerako Batzorde Mistoaren 21. bilkuran, otsailaren 20an, lehen aipatutako proiektuari aldaketa bat egitea erabaki zen, Aldundiak onartzeko moduko irizpide eta baldintza teknikoak jarraituz egin dadin. Era berean, proiektuaren aldaketa Arabako Foru Aldundiak agin zezan erabaki zen.

Proiektuari dagozkion obrak dagoeneko lehiaketan jarri eta esleitu egin dira, eta oso denbora laburrean proiektuari aldaketa handia egin behar zaio; gainera, horretarako beharrezkoa da, proiektua eta ingurua ez ezik, Mirandako saihebideari buruz dagoen proiektua eta Arabako Foru Aldundiak A-1 errepidean planifikaturik dituen jarduerak ere zehatz ezagutzea. Hartara, horiek kontuan izanik, x enpresari eskaintza egiteko eskatu zaio, hau da, Sustapen Ministerioarentzat bai oraingo aldaketa hau egin behar zaion proiektua bai Mirandako saihebideta egiteko proiektua idatzi zuen enpresari; izan ere, arlo teknikoaren aldetik dauden baldintza bereziak direla eta, ulertzen da hori dela proiektuaren aldaketa hori hain denbora laburrean aski bermez egin dezakeen enpresa bakarra, eta, noski, eskaintza ekonomiko doituagoarekin."

Gaineratu behar da, proiektuaren inguruko ardura teknikoaren aldetik, erabat desegokia izango zatekeela bi egile egotea, eta esleitzeko beste prozedura bat erabiliz gero, hori gerta zitekeen.

Azaldutako guztiagatik, ulertu zen berezitasun teknikoaren ziozko eskusibotasunez publizitaterik gabeko prozedura negoziatua erabiltzeko moduko baldintzak gertatzen zirela.

2.- Hainbat eraikinetan igogailuen akatsak zuzentzeari dagokionez, Mantentze Zerbitzuaren 2007ko urtarrilaren 11ko txostenean azaldutako arrazoiez gain (txosten hori espedienteetan jasota dago), orain gehitu behar da lan horiek egin behar izan zirela elementu horiek nahitaez egin beharreko ikuskapenetan atzemandako akatsen ondorioz; halako ikuskapenetan elementuok mantentzeko kontratuaren esleipena duen enpresa ere nahitaez egon behar du, igogailu elektromekanikoen instalazioetarako segurtasun arauetara dagokien ikuskapen tekniko 15. artikulua arabera.





Erantzukizun zibileko nahitaezko polizaren zenbatekoa Arabako Foru Aldundiaren eta mantentzea esleituta duen enpresaren artean izenpeturiko mantentze kontratuari loturik dago, eta, hortaz, enpresa horretakoa ez den beste edozein langilek esku hartzeko, enpresa horrek baimena eman behar du aurretik, eta Industriako Ordezkaritzari horren berri eman behar zaio. Agerikoa denez, mantentze arrunta esleituta duen enpresaz beste enpresa batek esku hartuz gero, ezin gaindituzko zailtasunak sor daitezke, geroagoko arazoen aurrean, halakorik gertatuz gero, bataren eta bestearen erantzukizunak zehazteari dagokionez.

3.- Kalkulu Gunea energia elektrikoko bateriaz hornitzeko kontratuari dagokionez, Mantentze Zerbitzuaren 2007ko martxoaren 12ko txostenean azaldutako arrazoiez gain (txosten hori espedientean jasota dago), orain gehitu behar da proposamen teknikoa zela nikel/kadmiozko bateriak instalatzea, eta haien osagaien kausaz -kadmioaren kausaz, batik bat- neurri bereziak behar direla haiek manipulatzeko, oso kutsagarriak dira eta. Duela urte gutxi arte, bateria horiek osorik egiten zuen enpresa batek Gasteizen. Prozesu osoa egiten zuen, ontziak kapsulatzetik hasi eta elektrolitoa kargatzeraino, zegozkien probak eta egiaztapenak eginda. Hemendik herrialde guztietara esportatzen ziren.

Globalizazioaren ondorioz, enpresa horrek lantegiak ireki zituen mundu osoan, Indian batez ere. Hala, enpresa bakoitzean osagaiak bereiz egiten ziren, eta muntaia Europan zegoen zentralizaturik, Europan hain zuzen ematen zirela ziurtapenak. Prozesuan parte hartzen duten enpresek zeinek bere izena dute, baina haietako batek ere ezin du berez produktu bukatua eskaini.

Gaur egun, Espainian bateria horiek merkaturatzen dituen enpresa kontratu hori esleituta duena da, eta, lehen esan bezala, produktu hori hasiera batean Gasteizen egiten zuen enpresan du jatorria.

Beste alde batetik, esleipenaren helburuen artean kadmioa jaso, garraiatu eta birziklatzea sartu zen, eta hori baimendutako langileek baino ezin dute egin. Horretan diharduen nazioartean ezagututako enpresa bakarra kontratuaren esleipena duena da.

4.- Jauretxeko teknikarien bulegoetarako altzariz hornitzeko kontratuari dagokionez, Arkitektura Zerbitzuaren 2007ko urriaren 18ko txostenean azaldutako arrazoiez gain (txosten hori espedientean jasota dago), orain gehitu behar da zerbitzu horren irizpidea probintziaren eraikinetan kasuan kasuko altzari estiloari eustea dela eta Jauretxeari eta, zehazki, teknikarien bulegoei altzarien k-net modelo dagokiela; hartara, hori kontuan hartuta, enpresa esleipendunari eksklusibotasun teknikoaren zioz esleitzea proposatu zen, altzarien modelo hori fabrikatzen zuen bakarra zen eta.

## **DIRU-LAGUNTZAK**

*12.- Publizitate eta lehia egitetik salbuestea justifikatzen duten txostenak ez daude behar bezain arrazoituak irabazi asmorik gabeko bi erakunderi emandako diru-*



*laguntzetan, 514 mila euroko zenbatekoa egin dutenetan (A.9 eranskineko A1 akatsa).*

## ALEGAZIOA

Oharrean hurrengo dirulaguntzak aipatzen dira:

- Diputatuen Kontseiluak, maiatzaren 29ko 514/2007 Erabakiaren bidez, Turismoa eta ekonomia sustatzeko elkartea – Arabako Errioxako ardoaren bidea izeneko elkarteari emandako dirulaguntza, Arabako Errioxako Ardoaren Bidea deritzon horretan turismoa sustatzeko jarduerak gauza daitezen.
- Diputatuen Kontseiluak, ekainaren 5eko 548/2007 Erabakiaren bidez, Amurrio Club-i emandako dirulaguntza, Aiarako Haraneko futbola sustatzeko.

Bi kasuetan, gai horietan eskudun den sailak publizitaterik eta lehiarik ez egoteko arrazoiak behar bezala justifikatzen dituen txostena jaso da espedientean.

Turismoa eta ekonomia sustatzeko elkartea – Arabako Errioxako ardoaren bidea izeneko elkarteari emandako dirulaguntzaren kasuan, gainera, 2006ko ekainaren 13an izenpeturiko lankidetzaren hitzarmena ahalbidetzen zuen laguntza hark; hain zuzen, hitzarmenean 2007an luzatzea zegoen jasota, aldeetako batek hilabete lehenago denuntziatu ezean, eta 2006. aldeek ez zuten hori egin.

*13.- Arabako Nekazal Sektoreari Laguntzak emateko Plana arautzen duen 47/2004 FDak artikulatuaren barruan landabideak egin, hobetu eta mantentzeko toki erakundeei diru-laguntzak ematea du aurreikusia, Landa-azpiegituren hobekuntza lerroaren barruan jasoak. Foru dekretu horretan ez dira hautaketa irizpide objektiboak, ez neurtuak ezartzen eta Diputatuen Kontseiluak ebazten dituen ebazpenek ez dute aurkeztutako eskabideen ematea edo ezetza justifikatzen. 2007ko urtean zehar, emandako diru-laguntzek 2.249 mila euro egiten dituzte.*

## ALEGAZIOA

Aditzera eman den lehen akatsari dagokionez, esan behar da Diputatuen Kontseiluak, uztailearen 6an, 2000-2006ko Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako Planean sartutako laguntzak era arrazionalagoan arautzeko eman zuen 47/2004 Foru Dekretu 38/2003 Diru Laguntzen Lege Orokor berriak egokitzeko eman zuen epea agortu baino lehen onetsi zela. Nahiz eta egia izan foru dekretu hori gero ere aldatu egin zela, aldaketok ez zioten testu osoari eragin, Europako araudiak Landa Garapenerako Planean bertan sarturiko aldaketak gehitzeko beste helbururik ez baitzuten.

Landa bideak egin, hobetu eta onik zaintzeko laguntzak ematerakoan erabiltzen ziren aukeratze irizpideak dirulaguntza horien izaerarako eta helbururako egokientzat jotako irizpideak ziren, alegia, bidearen erabilera zein egoeratan zegoen eta konpontzeko zer premia zegoen, eta oso zaila zen gehiago zehaztu eta neurtzea. Foru Dekretuak berak ahalbidetzen du epez kanpo aurkeztutako eskabideak onartzea, haien xedea bada bide egiturako kalteak premiaz konpontzea, erabiltzaileentzat arrisku larria ekartzeagatik.



Azpitarratu behar da Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuko teknikariak ikuskatzen dituztela eskatutako laguntzen helburu diren bideak, eta haiek beren balioztapena espediente bakoitzean dagoen txostenean justifikatzen dute, bideen egoera erakusten duten argazkiekin ere bai, askotan.

Egia da Diputatuen Kontseiluaren erabakiak ez duela laguntzak ematea justifikatzen, baina, hala ere, espediente bakoitzean jasoriko txosten teknikoan eta proposamenean badago banakako justifikazioa.

Bestalde, esan behar da 2008ko deialdiaz geroztik laguntza horiek emateko prozeduran aldaketak sartu direla, erabaki berean sartuta bai onartzen diren bai onartzen ez diren laguntzak, ez onartzeko arrazoiak ere azalduta; era berean, laguntzak emateko lehentasunaren irizpideak aldatu dira dauden laguntza motak emateko oinarriak Diru Laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean xedatutakoaren arabera egokitzen dituen beste foru dekretu bat onartuta (urriaren 28ko Diputatuen Kontseiluaren 92/2008 Foru Dekretua).

## **B. GIZARTE ONGIZATERAKO FORU INSTITUTUA (GOFI)**

*1.- GOFIk zuzenean kontratatu du enpresa batekin gasolioaren hornidura, 99 mila euroko zenbatekoarekin, dagokion kontratazio prozedura izapidetu gabe.*

### **ALEGAZIOA**

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak 2007. urtean C gasolioaren hornikuntza formula bidezko prezioarekin, deskontu bat eginda, eduki zuen esleituta. Espediente bat abiarazi zen 2008ko azaroaren 18an GOFEn zentroentzako C gasolioaren hornikuntza kontratatzeke, eta lehiaketa bukatu zen 2008ko azaroaren 18ko behin betiko esleitzeko ebazpenarekin. Hartara, gaur egun Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak hornikuntza hori 2009ko apirilaren 1etik 2010eko martxoaren 31ra bitartean du esleituta, luzapen bakar baten aukera dagoela.<sup>3</sup>

*2.- GOFIk ez du Norbanakoen Urteko Irabazien gaineko Zergaren aitortpen fiskaletan barne hartu goi kargudun bati ordaindutako 6 mila euroko kargu-uzte pentsioa, ez baita NUIZi meneratutako ordainsaritzat hartzen; zerga arautegiak, ordea, ordainsari hauei dagokienez ez du salbuespena aurreikusten.*

---

<sup>3</sup> Aipagai duten kontratua 2005ekoa da eta ez zegoen indarrean 2007an.



## ALEGAZIOA

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Arauko 18. artikuluari k) letra gehitu zitzaion, 2008ko urtarrilaren 1az geroztik ondorioak izateko. Delako puntuaren arabera, herri hauteskundeetan hautetsitako kargudun politikoek jasotzen dituzten kopuruak ere lan etekintzat hartzen dira, bai eta kargutik kendu izanagatik izendapen askeko kargudunak jasotzen dituztenak ere, edozein izanda kentzeko arrazoia eta karguan emandako denbora.

Era berean, eta ondorioak egun beretik dituela, 19. artikuluari beste idatz zati bat, hirugarrena, gehitu zitzaion. Idatz zati horretan, lanaren etekin osoa, oro har, kargua utzi ondoren jasotako ordainsari guztiek osatuko dutela eta, etekin horien sortzealdia bi urtetik gorakoa denean eta aldi behin edo behin eta berriz jasotzen ez denean, aplikatuko zaien integrazio ehunekoa %60 izango dela, eta etekinen sortzealdia bost urtetik gorakoa denean edo arauz etekinok denboran zehar oso modu irregularrean jasotakoak direla zehazten denean, integrazio ehunekoa %50 izango dela.

Hartara, argi geratzen da, zergari buruzko foru arauari eginiko aldaketen ildotik, 2008ko urtarrilaren 1az geroztik kargua utzi ondorengo ordainsariak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari loturiko eta salbuetsi gabeko lan etekintzat hartzen direla, lehenagoko ekitaldietakoak, beraz, salbuetsita egonda.

*3.- Elikaduraren hornidura kontratatzeke espedientean, 2007ko ekitaldian 501 mila euroko gastua eragin duenean, lehiaketa iragarkia ez da ez DOUEn, ez BOEn argitaratu (B.5 eranskinaren A2 akatsa).*

## ALEGAZIOA

Elikagaien hornikuntzari dagokionez, haren kontratazioa 260.072,00 eurotan kalkulatu zen, eta 247.212,94 eurotan esleitu zen, BEZa barne, eta ez zen ez EBAOn ez BOEn argitaratu, nahi gabean, nahiz eta ALAHOn argitaratu bai.

Beste aldetik, 501.000 euroko 2005eko gastuari dagokionez, esan behar da lehiaketa horren esleipena zuten enpresa batzuek bazutela aldi berean elikagaien hornikuntzarako 2005. urtean esleitutako beste kontratu batzuen esleipena, eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak adierazi duen kontrako iritzia ezin daitekeela inola ere haietara heda.

*4. Ontziratzeke makina baten hornidura kontratatzeke espedientean, 101 mila euro egin dituen, lehia mugatu da gehiegi zehaztu direlako hornigaiaren ezaugarri teknikoak (B5 eranskineko A3 akatsa).*

## ALEGAZIOA

Ezin etor daiteke bat Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren iritziarekin, behin kontratazio espedientearen nondik norakoak aztertuta.



Ontziratzeke makinaz hornitzeko kontratazio espedientea abiarazteko ebazpenean makina erosteko beharra adierazten zen, ontziak orduan ekoizten zituen makina zaharra zaharkiturik zegoelako. Makina hura 1993. urtean eskuratu zen, eta erabat amortizatuta zegoen; hain zuzen ere, hain zaharra izaki, kalitate arazoak sortzen zituen lanen emaitzetan, eskaeraren bat kalitate eskasiagatik itzuli izana ere eraginda.

Azken produktuaren ezaugarriak eta kalitatea atxikitzeke beharra zela eta, gutxienez aurreko makinaren ezaugarri berberak izango zuen makina berria erosi behar izan zen, eta, hortaz, erosi beharreko produktuaren ezaugarri teknikoak erabili zen xehetasunarekin zehaztu behar izan ziren, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen testu berrituko 52.2 artikuluan ezarritakoa ez betetzea saihestuta (ez zen markarik, patentarik edo motarik adierazi, eta ez zen jatorri edo produkzio zehatzik aipatu).

*5.- GOFIk urriaren 26an minusbaliotasun fisiko larriak dituzten pertsonentzako egoitza-arreta zerbitzu publikoaren kudeaketa esleitu zuen 74 mila euroko zenbatekoarekin eta publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez; ordea, prozedura hori ez da justifikatu, APKLTBren 13. artikuluekin loturik dagoen 159.2 artikulua urratuz (A4 akatsa), esleipen hartzailea zerbitzua urtarrilaz geroztik eman duen enpresa bera izan delarik, inongo lege babesik gabe eta 152 mila euroko zenbatekoarekin. Esleipenaren ondoren, 2007ko urriaren 1etik 2007ko abenduaren 31ra arteko ondorio ekonomikoak izango zituen kontratua izenpetu zen, APKLTBren 54.4 artikuluan adierazitakoa urratuz (C1 akatsa).*

## ALEGAZIOA

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak 2003. urtetik lankidetzaz hitzarmena zuen osasun arloko mutualitate batekin, San Jose poliklinikaren instalazioetan zazpi pertsonari egoitza laguntzako zerbitzua emate aldera. San Jose poliklinika merkataritza sozietate bati saldu zitzaionez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratu bat formalizatu behar izan zuen aipatutako pertsonari laguntzen zitzaien instalazioen jabe berria zen enpresarekin.

*6.- 2008ko urterako Vitoria-Gasteizko udalerrian mendekotasuna duten pertsona helduentzako egoitza-arreta zerbitzu publikoaren kudeaketa kontratatzeke espedientea 1.171 mila euroko zenbatekoarekin eta prozedura negoziatu bidez enpresa bati esleitu zaio; ordea, espedientean ez da justifikatu lehiaketa bideratzeko ezintasuna, APKLTBren 159.2 artikulua urratuz (B5 eranskinaren A5 akatsa).*

## ALEGAZIOA

Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Sailak, bere Ikuskatze Zerbitzuaren bitartez, eskuduna da gizarte zerbitzuak ematen dituzten titulartasun pribatuko zerbitzu, zentro, eta erakundeak baimentzeko eta, hala badagokio, homologatzeko, bai eta, halakoei dagokienez,



ikuskatzeko eta zigortzeko ahala erabiltzeko ere. Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Sailak, bere eskumena erabiltzean, Arabako Lurralde Historiko osoan dauden egoitza baliabide guztien berri du, bai eta haien betetze mailaren eta beste alderdien berri ere.

Horregatik, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluak, aipatutako saileko diputatua lehendakaria dela, kontratazio espediente hori nahiz espedientea prozedura negoziatuaren bitartez izapidetzea onestean, jakin bazekien enpresa esleipenduna espedientean azaldutako beharriaz (instalazioak Gasteizen egotea, kontratatu beharreko lekuen kopurua eta mota, ezaugarriak, eta abar) erantzuteko moduko enpresa bakarra zela.

Hala, bada, formazko akatsa aipa daiteke, alegia, espedientea egoera hori azaltzeko berariazko agiria ez jasotzea, nahiz eta hitzarmenean bertan aipatu egiten zen.

### **C. GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA (GFE)**

*1.- GFEk ez ditu Norbanakoen Urteko Irabazien gaineko Zergaren aitorpen fiskaletan barne hartu goi kargudun bati 6 mila euroan ordaindutako kargu-uzte pentsioa, ez baita NUIZi meneratutako ordainsaritzat hartzen; zerga arautegiak, ordea, ordainsari hauei dagokienez ez du salbuespena aurreikusten.*

### **ALEGAZIOA**

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Arauko 18. artikuluari k) letra gehitu zitzaion, 2008ko urtarrilaren 1az geroztik ondorioak izateko. Delako puntuaren arabera, herri hauteskundeetan hautetsitako kargudun politikoek jasotzen dituzten kopuruak ere lan etekintzat hartzen dira, bai eta kargutik kendu izanagatik izendapen askeko kargudunak jasotzen dituztenak ere, edozein izanda kentzeko arrazoia eta karguan emandako denbora.

Era berean, eta ondorioak egun beretik dituela, 19. artikuluari beste idatz zati bat, hirugarrena, gehitu zitzaion. Idatz zati horretan, lanaren etekin osoa, oro har, kargua utzi ondoren jasotako ordainsari guztiek osatuko dutela eta, etekin horien sortzealdia bi urtetik gorakoa denean eta aldi behin edo behin eta berriz jasotzen ez denean, aplikatuko zaien integrazio ehunekoa %60 izango dela, eta etekinen sortzealdia bost urtetik gorakoa denean edo arauz etekinok denboran zehar oso modu irregularrean jasotakoak direla zehazten denean, integrazio ehunekoa %50 izango dela.

Hartara, argi geratzen da, zergari buruzko foru arauari eginiko aldaketen ildotik, 2008ko urtarrilaren 1az geroztik kargua utzi ondorengo ordainsariak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari loturiko eta salbuetsi gabeko lan etekintzat hartzen direla, lehenagoko ekitaldietakoak, beraz, salbuetsita egonda.



## **SEKTORE PUBLIKO ENPRESARIALA**

### **I. IRITZIA**

#### **I.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA**

##### **LANGILERIA**

*1. Langileak kontratatzea: Arabako Kalkulu Zentroa, SA sozietateak, bi langile finko hautatzeko, berariaz gaitutako enpresa batekin hautaketa prozesuak kontratatu ditu, deialdiei publikitate eman eta sozietateei prozesuaren gaineko azken txostena ematen dienak, izangaien azken zerrenda proposatuz. Azken txosten horrekin batera aurre-hautatutako izangaiak barne hartzea edo ez justifikatu edo euskarrituko duen dokumentaziorik aurkezten ez denez, ezin egiaztatu izan dugu horien kontratazioan berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak gorde direnik.*

##### **ALEGAZIOA**

ARABAKO KALKULU GUNEA, SAK, bere langile beharrak betetzeko egiten dituen hautatze prozesu guztietan, aintzat hartzen ditu eta errespetatu egiten ditu berdintasunaren, merezimenduaren eta gaitasunaren printzipioak aurkezten diren hautagai guztientzat, eta era berean bete eta errespetatu egiten dituzte printzipio horiek prozesuetan esku hartzen dituzten enpresek.

ARABAKO KALKULU GUNEA, SAK, halaber, datu pertsonalak babesteko araudia betetzen du une oro, eta, horren ondorioz, ezin du gorde langileak hautatzeko erabilitako datu pertsonalak epe jakin bat igaro eta gero, hautagaien berariazko baimena izan ezean; hala, bada, hautatu ez diren pertsonen loturiko informazio guztia suntsitu egin behar du Arabako Kalkulu Guneak.

*2. Langileak kontratatzea: 2007an Naturgolf, SAK aldi baterako hiru langile eta Arabako Kalkulu Zentroa, SAK bi langile behar hainbateko publikitaterik gabe kontratatu dituzte, deialdiaren oinarri-arauak eskuratzeko moduaren eta jarraitu beharreko prozeduraren berri ez baita eman edo adierazi eta ez baita zehaztu eskaintzen den kontratu-lotura (aldi baterakoa edo mugagabea), ez eta jarraitu beharreko prozesua eta bermeak.*

*Bestalde, Naturgolf, SAK jarraitutako prozesuan ez da proba objektiboak egitea aurreikusitako proba erabakigarritzat hartzen da elkarrizketa, zehaztu gabe uzten direlarik bai ezargarri diren irizpide objektiboak, bai proben izaera baztergarria ere, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak urratuz.*

##### **ALEGAZIOA**

2007ko uztailaren 29ko iragarkian zegoen informazioa oinarritzkoa eta nahikoa zen hautatze prozesua aurrera eramateko; izan ere, iragarkian honako hauek adierazi ziren, interesdunak, oro har, jakin zitzaten: bete beharreko lanpostu motak; lanpostuak lortzeko behar ziren





tituluak; eskatuko ziren ezaguerak; hautatze prozesuan parte hartzeko behar ziren eskabideak eta agiriak bidali beharreko tokia; eta balioztatuko ziren oinarrizko betekizunak.

Une oro errespetatu dira publizitatearen, berdintasunaren, merezimenduaren eta gaitasunaren printzipioak lanpostu horietako bat lortzeko interesa zuten pertsona guztientzat, eta, beraz, ezin etor daiteke bat kasu honetan adierazitako iritziarekin.

Era berean, ezin etor daiteke bat NATURGOLF, SAk ekitaldi horretan 3 langile kontratatu izanari buruz adierazitako iritzia; hain zuzen, kontratazio horretarako erabilitako prozesua aurreko batzuetan erabilitakoen antzekoa izan zen.

- Publizitatearen printzipioa betetzearren, prentsan iragarki bat argitaratu zen, El Correo egunkarian, 2007ko apirilaren 22an. Hona hemen iragarki horren edukia:

NATURGOLF, SA

enpresak behar ditu

JENDEARI KASU EGITEKO ETA BERE INSTALAZIOETAKO KANPO ZERBITZUETARAKO LANGILEAK

ASTEKO 40 ORDUKO KONTRATUA

- Sei hilabeteko iraunaldia, mugagabe luzatzeko aukera dagoela..
- Goizeko eta arratsaldeko ordutegiak. Larunbat, igande eta jaiegunetan ere lan egingo da.
- Urteko soldata gordina: 17.723,16 euro.

ASTEKO 16 ORDUKO KONTRATUA

- Sei hilabeteko iraunaldia, mugagabe luzatzeko aukera dagoela..
- Goizeko eta arratsaldeko ordutegiak.
- Lan egiteko egunak: larunbat eta igandeak.
- Urteko soldata gordina: 7.089,26 euro.

- 
- Lanlekua: Urturiko eta Lagrango golf zelaia.
  - Aurkezteko azken eguna: 2007ko apirilaren 30a.

Bidali C.V. —argazki berri batekin eta LANGILEAK erreferentzia eta lortu nahi den kontratua (40 ordu ala 16 ordu) adierazita gutun-azalean— helbide honetara: NATURGOLF, S.A. Urturiko golf zelaia - 01119 Urturi-Araba

Iragarkian, ezarriko den kontratu lotura zehazten da; hau da, hasieran aldi baterakoa izango zen, baina, NATURGOLF, SAn langileen aldetik dagoen mugikortasuna dela medio, hutsuneren bat sortuz gero, kontratu mugagabea egin zitekeen.

Aurreikuspen horretan oinarriturik, lanpostu mugagabea esleitu zitazioan hautatutako langileetako bati. Bigarren tokian hautatutako pertsona esleitzeko arrazoi bakarrak baliabide publikoak erabiltzeko eraginkortasuna eta efizientzia izan ziren, bakoitzak





kontratuaren hasierako aldian aurrera eramaniko jarduerari zegokion egoera objektiboan oinarrituta. Egoera hori izan zen, hain zuzen, lehen tokian haukeratutakoak ez zuela lanpostuan jardun haren kontratuaren sei hilabeteetako azken lauetan, gaixotasun arruntagatik baja hartu zuen eta. Nabarmendu behar da egoera horrek bazirauela hasierako kontratua bukatu zenean, bi kontratu etako bat mugagabe egiteko erabakia hartu zen unean, hain zuzen.

- Kontratatu beharreko langile berriak hautatzeko prozesuan, batetik, curriculum vitaearen edukiak balioztatu ziren, eta, bestetik, lehen prozeduran puntuazio jakin bat (oinarrietan ezarritakoaren %50etik gora) gainditu zuten hautagaiekin elkarriketa egin zen.

Jardueraren berezitasuna zela eta, funtsezkotzat jo zen puntuak emango zituen elkarriketa bat egitea, eta halako elkarriketetan lanpostua lortzeko aurkeztu zirenen %60ak parte hartu zuen. Elkarriketetan, lanpostuan eskatzen zenari erantzuteko ezinbestekotzat hartzen ziren alderdi objektibo batzuk balioztatu ziren.

Nolanahi ere, gaur egun langileak kontratatzeko oinarriak egokitu egin dira; hala, elkarriketari balio txikiagoa eman zaio, eta,aldi berean, elkarriketan puntuatzeko irizpideak xehatuta ematen dira, guztiz objektiboak diren alderdietan oinarriturik. Irizpide horrexeri jarraituz, hain zuzen, egin dira azken kontratuak 2009. urtean.

*3. Kargu-uzte pentsioak: Zazpi sozietate publikoek ez dituzte Norbanakoen Urteko Irabazien gaineko Zergaren aitorpen fiskaletan barne hartu goi kargudunei 39 mila euroan ordaindutako kargu-uzte pentsioak, ez baitira NUIZi meneratutako ordainsaritzat hartzen; zerga arautegiak, ordea, ordainsari hauei dagokienez ez du salbuespena aurreikusten.*

## ALEGAZIOA

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Arauko 18. artikuluari k) letra gehitu zitzaion, 2008ko urtarrilaren 1az geroztik ondorioak izateko. Delako puntuaren arabera, herri hauteskundeetan hautetsitako kargudun politikoez jasotzen dituzten kopuruak ere lan etekintzat hartzen dira, bai eta kargutik kendu izanagatik izendapen askeko kargudunak jasotzen dituztenak ere, edozein izanda kentzeko arrazoia eta karguan emandako denbora.

Era berean, eta ondorioak egun beretik dituela, 19. artikuluari beste idatz zati bat, hirugarrena, gehitu zitzaion. Idatz zati horretan, lanaren etekin osoa, oro har, kargua utzi ondoren jasotako ordainsari guztiek osatuko dutela eta, etekin horien sortzealdia bi urtetik gorakoa denean eta aldi behin edo behin eta berriz jasotzen ez denean, aplikatuko zaien integrazio ehunekoa %60 izango dela, eta etekinen sortzealdia bost urtetik gorakoa denean edo arauz etekinok denboran zehar oso modu irregularrean jasotakoak direla zehazten denean, integrazio ehunekoa %50 izango dela.



Hartara, argi geratzen da, zergari buruzko foru arauari eginiko aldaketen ildotik, 2008ko urtarrilaren 1az geroztik kargua utzi ondorengo ordainsariak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari loturiko eta salbuetsi gabeko lan etekintzat hartzen direla, lehenagoko ekitaldietakoak, beraz, salbuetsita egonda.

#### **ONDASUN EROSKETA ETA ZERBITZUAK (Ikus D.5 eranskina)**

*4. Araba Garapen Agentzia, SAK berdeguneak zaindu, berritu eta hobetzeko lanak kontratatu ditu; baita, 600 mila euroko zenbatekoarekin 2007 eta 2008ko ekitaldietarako hainbat poligonotan mantenu lanak egitea ere, APKLTBren 2.1 artikuluaaren aginduak bete gabe (publizitatea buletinetan, sailkapena, e.a.) (A1 akatsa).*

#### **ALEGAZIOA**

Ezin ukatuzkoa da Herri Kontuen Euskal Epaitegiak oraingo honetan baieztatu duena; hori, dena den, ARABA GARAPEN AGENTZIA, SAK kontratuei buruzko araudia oker interpretatzeagatik gertatu zen, eta ez bere jardueran bete behar zituen publizitate eta lehia printzipioak saihesteko asmoa izateagatik. Delako kontraturako lehiaketan erabili zen prozedura lehiaketa irekia izan zen (2006ko abenduan). Publizitatea prentsan egin zen, hasieran ez baitzen aurrez ikusi urteko mantentze gastuek 236.000 euroak gaudituko zituztenik; izan ere, kopuru hori merkataritza sozietateak beren jarduera Herri Administrazioen Kontratuen Legean enpresen gaitasunari, publizitateari, lehiaketa prozedurari eta esleitzeko moduari buruz ezarritakoei egokitzera behartzen duen kopurua baino txikiagoa zen.

*Bestalde, garraio-linearen emakidadun den enpresaren eta AAD, SAREN artean izenpetutako lankidetzaz hitzarmen baten bitartez, helburua Goiaingo industri poligonora bertako enpresetako langileak eramatea duena, sozietateak bidaiarien garraio zerbitzuaren kudeaketa egiteko konpromisoa hartu du; ordea, jarduera hau ez dator bat bere xede sozialarekin eta 2007ko ekitaldian 90 mila euroko gastua eragin du (E akatsa).*

Kasu honetan, ezin etor daiteke bat Herri Kontuen Euskal Epaitegiak adierazitako iritziarekin. ARABA GARAPEN AGENTZIA, SAREN sozietate xedearen barruan, besteak beste, jarduera hauek daude, haren sozietate estatutu-tuetako 2. artikuluan jasota dagoenez:

- e) Sustatutako industria azalei zerbitzuak ematea.
- i) Industria sarerik ahalik onena lortzea sozietatearen xede nagusia denez, xede horrekin zuzenean edo zeharka zerikusia duen beste edozein jarduera.

Gure aburuz, langileak Goiaingo industrialdera eramaten dituen garraio zerbitzua kudeatzea zati batean transkribatu den sozietate xedearen barruan dagoela, batere zalantzarik gabe.



Nolanahi ere, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egindako oharrarekin zerikusirik ez duten egokitasun arrazoiengatik, hitzarmena denuntziatu egin zen 2008ko abenduan.

*5. Arabarri, SAK, Kontrastako murrua sendotzeko lanak 103 mila euroko zenbatekoarekin kontratatu ditu APKLren 182 d) artikuluan aurreikusitako publizitaterik gabeko prozedura bitartez, behar bezala justifikatu ez dela; honenbestez, publizitate eta lehia printzipioak urratu dira (A2 akatsa).*

## ALEGAZIOAK

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak arazo honetan duen iritzia aztertzeko, komeni da kontratazio espediente horri lotutako aurrekariak eta egoera laburbiltzea.

ARABARRI, SAKo Administrazio Kontseiluari, 2005eko azaroaren 21ean, proposatu zitzaion, Kontrastan, pilotalekuaren eta A-2128 errepidearen artean, dagoen horma sendotzea; hain zuzen ere, herriko Administrazio Batzarrak horma horrek zuen egoera txarraren berri emana zion ARABARRI, SAKi. Administrazio Batzarrak jarduera hori onetsi zuen 2005eko azaroaren 25ean eginiko bilkuran.

Zegokion proiektua idaztea bi arkitektoen esku utzi zen 2005eko abenduaren 23an. Lehen lanen xedea izan zen aurkitutako akatsen jatorria eta nondik norakoak zehaztea, jarduerarik egokiena zehaztearren eta inguruko elementuei ez eragitearren, elementuok ondare balio handia zuten eta (Kontrastako eliza eta Erdi Aroko harresiaren hondarrak, pilotalekuaren azpian, bai eta pilotalekuaren eta proiektuaren helburu zen hormaren artean egon zitezkeen aztarna arkeologikoak ere) Arkitektoen Elkargo Ofizialak proiektua ikus-onetsi zuen 2006ko uztailaren 31n.

Igarotako denbora zela medio, horma gero eta gehiago hondatu zen, eta elizpea arriskuan jartzen zuen. 2006ko abenduan, ARABARRI, SAKo Administrazio Kontseiluari proposatu zitzaion funtsak esleitu zitzala, obra egite aldera, lan horien premia eta elizpean gertatzen ari ziren kalteak adierazita. Administrazio Kontseiluak funtsak esleitzea onetsi zuen 2006ko abenduaren 19ko bilkuran.

Horma gero eta gehiago hondatzen ari zenez eta errepidearen gainean erortzeko arriskua zegoenez, inguruko eraikinak kaltetzeko arriskua ere bazegoela, Herri Administrazioen Kontratuen Legeko 141.c) artikuluan jasotako premia sortu zen; premia horren ildotik, aukera dago obrak publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez kontratatzeko, eta hala jaso zen ebazpenaren aurreko 2006ko abenduaren 27ko txostenean.

Enpresa esleipenduna esleitzeko ebazpena 2007ko martxoaren 6an eman zen. Ebazpen horren aurretik egin zen txostenean hormaren egonkortasuna gero eta gehiago okertzearen ondoriozko premia nabarmendu zen publizitaterik gabeko prozedura negoziatua justifikatzeko.

*6. Arabako Kalkulu Zentroa, SAK, publizitate eta lehia printzipioak gorde gabe esleitu du 69 mila euroko zenbatekoarekin Arabako toki entitateen informatikako kudeaketa*



*sistema euskarrizten duen komunikazio globalaren mantentze eta euskarri sistema, jada aurreko beste kontratu baten luzapen modura (Erabiltzaileak Artatzeko Zentroari laguntza teknikoa eta AFAREN eta beste erakunde publiko batzuen mikroinformatikako ingurunearen mantentzea) beste esleipen-hartzaile batek ematen zuena (A3 akatsa).*

## ALEGAZIOA

Arabako Foru Aldundiak, 2005eko ekainaren 7an “Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen kudeaketa informatikoko sistemari eusten dion komunikazio globaleko sistemarako mantentze lanak egin eta laguntza emateko” kontratua esleitu zuen, urtebeterako, beste urtebetez luzatzeko aukera zegoela. Kontratu hura luzatu, eta 2007ko abuztuaren 2an bukatu zen haren indarraldia.

Arabako Foru Aldundiak, 2007ko ekainaren 20an, ARABAKO KALKULU GUNEA, SARI eman zion kudeatzeko ardura Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen sistema informatikorako laguntza teknikoaren zerbitzua emateari zegokionez, 2007ko abuztuaren 3tik abenduaren 31ra bitarteko aldirako, 69.010 eurotan.

ARABAKO KALKULU GUNEA, SAK 2007rako kontratu bat zuen izenpeturik, 682.435,34 eurotan, Arabako Foru Aldundiaren mikroinformatika ingurunearen erabiltzaileei laguntza teknikoa eman eta ingurune hori mantentzeko zerbitzuak (laguntza teknikoa) emateko. Kontratu hartan jasota zegoen agirian aurrez ezarrita ez zeuden lan gehigarriak egiteko, bi aldeak alde aurretik ados jarrita, proiektuaren kostua gehi zitekeela, haren zenbatekoaren %20raino, gehienez ere.

Arabako Foru Aldundiak ARABAKO KALKULU GUNEA, SARI Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen sistema informatikorako laguntza teknikoaren zerbitzua emateko esleitu zizkion lanek ARABAKO KALKULU GUNEA, SAK 2007rako Arabako Foru Aldundiaren mikroinformatika ingurunearen erabiltzaileei laguntza teknikoa eman eta ingurune hori mantentzeko zerbitzuak (laguntza teknikoa) emateko izenpeturik zuen kontratuan ezarritako lanen izaera tekniko bera eta eduki berbera zituzten; hartara, eraginkortasunaren eta efikaziaren arrazoiengatik, egokitzat jo zen kontratu hori 69.010 eurotan zabal zedin, aldeak ados jarri eta gero, eta enpresa esleipendunak antola zezan Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeentzako laguntza zerbitzua ematea, 2007ko abuztuaren 3tik abenduaren 31ra bitarteko aldirako, kopuruak ez baitzuen gainditzen proiektuaren zenbatekoaren %20rainoko zabaltze muga<sup>4</sup>.

---

<sup>4</sup> Ekainaren 15eko 139/2007 Foru Dekretuak mandatua 240 mila euroan ezartzen du, 08/12/31ra arteko indarraldiarekin; kopuru honek kontratu nagusiaren % 20a gainditzen du.



## EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK

*7. Araba Garapen Agentzia, SAK, bi lankidetza hitzarmenen bitartez guztira 300 mila euroko diru-laguntzak eman ditu, objektibotasun, publizitate eta lehia printzipioak urratuz.*

## ALEGAZIOA

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak bere txosteneko atal honetan zalantzan jarritako dirulaguntzak ondorengo lankidetza hitzarmenetan ezarritakoak dira:

1. Disonancias programa garatzeko ARABA GARAPEN AGENTZIA, Saren eta Asociación Foro de Gestión Cultural elkartearen arteko lankidetza hitzarmenean.
2. ARABA GARAPEN AGENTZIA, Saren eta SEA – Empresarios Alaveses delakoaren arteko lankidetza hitzarmenean.

Bi lankidetza hitzarmenok I+G+B jarduerak bultzatzeko helburuaren barruan zeuden, hain zuzen, halakoek ARABA GARAPEN AGENTZIA, Saren jardun ardatzetako bat osatzen dute.

Lehen hitzarmenean, Disonancias programari babesa ematen zitzaion. Asociación Foro de Gestión Cultural delakoaren ekimen horren helburua arte sormenaren eta teknologiazko berrikuntzaren arteko portuak sortzea, enpresa munduaren eta haren ingurune teknologikoaren, batetik, eta sormenezko ingurunearen, bestetik, arteko elkarrikketa berria garatuta. Proiektua apartekoa zen, eta irabazi asmorik gabeko elkarte batek garatzen zuen, elkartearen fundazio xedea izanik arte sormenaren eta enpresa nahiz gizarte arloko berrikuntzaren arteko harremana sustatzeko jarduerak antolatzea.

Bigarren lankidetza hitzarmenari dagokionez, hitzarmenaren xedea zen I+G+B jarduerak sustatzea zen Arabako enpresen artean, Arabako Foru Aldundiak, SEA-Empresarios Alaveses elkartearen laguntzarekin (Arabako enpresaburuak elkartzen dituen enpresa erakundea da), aurretik egin zuen azterlan baten harira.

Bestalde, ARABA GARAPEN AGENTZIA, Saren ohiko jarduna batez ere industria lurzorua kudeatzean datza, eta ez da ohikoa dirulaguntzak ematea; horregatik, ez du arautzeko oinarririk onesten eta ez du dirulaguntzetarako deialdirik egiten.

Arrazoi horiengatik erabaki zuen Administrazio Kontseiluak, ohiz kanpoko eran, aipatu lankidetza hitzarmenak izenpetzea eta dirulaguntza horiek ematea, aldeztu aurretik deialdi publikorik egin gabe, otsailaren 7ko 3/1997 Foru Arauko 7.3 artikulurekin bat, artikulua horrek hitzez hitz honela dio eta:

“Administrazio Kontseiluak edo Organo Zuzendariak, Foru Baltzu Publikoen eta Foru Sektore Publikoaren beste Entitate batzuen eremuan, artikulua honetako 1. idatz zatian ezarritako lehiaren baldintza salbuetsi ahal izango dute edozein dirulaguntza ematean, baldin eta dirulaguntza horretan ez bairik gabe haren apartekotasuna ezartzen bada, eta lehiarik sustatu ezina behar bezala justifikatzen”.



Kasu bietan, bi dirulaguntzen helburuen nahiz jasotzaileen aldetik zetorren apartekotasuna, eta Administrazio Kontseiluak bi lankidetza hitzarmenak eta haiei loturiko gastua berretsi egin zituela jaso egin zen.

## **II. IRIZPENAK**

### **A. ARABAKO FORU ALDUNDIA (AFA)**

#### **II.A.1 AURREKONTU ETA KONTULARITZAKO GAIAK**

*1.1 Aurrekontu luzapena: 2007ko ekitaldian, aurrekontua ez aurkeztu izanak luzapenaren erregimenaren arabera gauzatu behar izatea ekarri du. Luzapenari buruzko arautegiak ez du urtarrilaren 1ean indarrean sartzen den sarreraren aurrekontuaren berri ematen. Horren indarrez, Aldundiak 2007rako aurrekontuen egitasmoaren balioespenak barne hartzea erabaki zuen, zerga sarrera eta erakunde konpromisoei dagokien ez, Finantzen Euskal Kontseiluak onetsitako zenbatekoen arabera aurrekontuetaratu zirenak. Irizpide honek 15.709 mila euroko hasierako aurrekontu desorekatua sortu zuen.*

*Honez gain, 6. kapituluko hainbat aurrekontu kontu-sail luzatu dira, 2.727 mila euroko zenbatekoa egiten zutenak eta zalantzazkoa da horiek birjartze eta mantentzekotzat hartzea. AFAk aztertu egin beharko lituzke kontu-sail horiek eta birjartze eta mantentzekoak direnak soil-soilik luzatu.*

*Bestalde, luzatutako aurrekontuak ez du hasierako kredituetan gastuen 7. kapituluari dagokion kontu-saila barne hartzen, erakunde-konpromisotzat hartutakoa, gerora, gaikuntza bidez 1.004 mila euroko zenbatekoarekin hornitu zena.*

## **ALEGAZIOA**

6. kapituluko hainbat partidaren luzapenari dagokionez, aurrekontuan gastu batzuk zehazteko ezarritako kapitulua gorabehera, inbertsioen kapituluan badaude gastu batzuk berritzeako edo mantentzekoak direnak eta nahitaez agertu behar direnak aurrekontuaren luzapenean, ezinbestekoak baitira erakundearen ohiko jarduna aurrera eramateko. Ondorio hori atera zen luzatutako kredituak zehazteko unean, partidak banan-banan aztertu eta gero.

Ezin etor daiteke bat, beraz, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak adierazitako iritziarekin, aipaturiko partidak berritzeako edo mantentzekoak direla zalantzan jarri duenean.

#### **II.A.2 DIRU-SARRERAK**

*2.1 Sarreraren kudeaketa: Zerga dokumentazio guztiaren informatizazioa Ogasun Zuzendaritzaren Diru-bilketa Fiskaleko Zerbitzuak egiten du eta hori guztia Tributuen Zerbitzuek egiaztatzen dute. Agiri horiek erregistratzen dituzten Diru-bilketa Fiskalaren Zerbitzuak egiten dituen laburpenak sortzen dira, kontabilizazioaren euskarri direnak. Kontabilitatean, berriz, funtsen mugimendua soilik egiaztatzen da eta kontularitzako agirieta artekaritza formala baizik ez da egiten.*



*Informazio fiskalaren atal bat eskuz kontrolatzen da. Horietan bereziki gailentzen dira egoera berezietan emandako geroratze eta zatikapenak, geroratze kontua, errekurritutako zerga-zorra eta ordaindu gabeko zorra Derrigorrezko diru-bilketa agentziara igortzea.*

*Kontularitzako erregistroek oinarrizko helburu den kontrol-egitekoa gauzatu behar dute, kontularitzako sistemak informazio guztia jasotzen duelako ziurtasuna izateko moduan; honenbestez, lehentasun erabatekoa eman behar zaio prozesuen automatizazioaren bitartez kudeaketari buruzko informazioaren kalitatea hobetzeari eta kontularitzan diru-bilketa zerbitzuaren informazioa barne hartzeari.*

*Berebat, gomendagarria litzateke Finantza eta Aurrekontuen Zuzendaritzak jatorri fiskaleko eragiketen egiaztaketak egitea.*

## ALEGAZIOA

Une honetan, Ogasun Saila eraldatzen ari da eta, sail hori osatzen duten zerbitzu guztiek erabiltzen dituzten prozedurak berraztertu eta berritzen ari dira, eta zerbitzu horien artean dago Zergabilketa Zerbitzua.

### *2.2 Zatikapenak:*

- *2007ko ekitaldian zatikapena eman zitzaien bi zordunei, 625 mila euroko printzipalaren gainean, zatikapena arautegi erregulatzailean finkatutako gehienezko epea (11 hilabete) gairiditzen duten aldiatarako onetsi zaie (11 eta 25 hilabete)*

## ALEGAZIOA

Halako kasuetan, zergazko zorrak eta zigorrak zatikatzea arautzen duen araudiak berak ezartzen du Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak oro har xedatutako epea baino handiagoa den epe baterako zatikapenak onar ditzakeela.

### **II.A.3 EROSKETAK ETA INBERTSIOAK**

#### **Kontratu txikiak eta beste**

*3.1 2007ko urtean zehar, AFAk indarrean eutsi dio 1990ean gauzatutako derrigorrezko diru-bilketa agentzia zerbitzua emateko administrazio kontratuari; kontratu honen luzapena 2006ko urtarrilaren 31n akats modura barne hartu zen AFAREN 2006ko txostenean.*





## ALEGAZIOA

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren otsailaren 27ko 199/2009 Foru Aginduaren bidez (2009ko martxoaren 23ko ALHAO, 35. zk.), behin betiko esleitu zitzaion zuzenbide publikoko sarrerak betearazpeneko aldian biltzea kudatzen laguntzeko zerbitzua —aginteaz baliatzea edo funts publikoak zaintzea berekin ez dakartzaten sarreretakako— zegokion administrazio lehiaketan (zerbitzu hori esleitzeko erabili beharreko prozedurarako deialdia baimentzeko Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 4ko 735/2008 Erabakiaren bidez onetsi zen) esleipendun atera zen enpresari.

*3.2 Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketa eta inbertsioen administrazio kontratu txikietan, prozedura negoziatu bitartez izapidetu behar ziratekeen hainbat erosketa azaleratu zaizkigu, 1.288 mila eurokoak, ezaugarri bereko edo antzeko beste hainbat gauzatu baitira urtean zehar, edo hornitzaile berari data beretan antzeko eskaria egin baitzitzaion (ikus A.8.3 eranskina).*

## ALEGAZIOA

Oharrak kasu hauek aipatzen ditu:

- “Moldiztegiko materialaren hornidura”.

Moldiztegiko era askotako materialez hornitu da eta, gainera, artikulua bakoitza formatu eta tamaina askotan. Hori dela eta, betiere zentzuzko irizpide bat aintzat hartuta, zerbitzua kontratatzeko prozedura ireki eta denboran zehar eguneratuta mantentzea ekonomikoki ez da bideragarria.

Horrez gainera, gogoan izan behar da paper gauzen eta antzekoen merkatuak oso hegazkorrak direla eta prezioak etengabe aldatzen direla: horrek are gehiago eragozten du aleko prezioetan oinarritutako kontratazio prozedura aurrera eramatea eta prozedurok denboran luzatzea.

- “Ibilgailuak konpontzea eta mantentzea”.

Gastu horiek hainbat hornikuntza eta zerbitzuri dagozkie. Alabaina, hornikuntza eta zerbitzu horiek ez ziren homogeneoak; lokabeak eta denboran aurreikusi ezinezkoak ziren, zein beharizan baterako direlako. Horrenbestez, ezin dira kontratazio bakar bat edo gehiagotan sartzeko moduko baldintza koherenteetan (dagokion legerian aurreikusitakoetan) bateratu, zatikatutzat jo daitekeen kontrataziorako xede uniformeak osatzen ez dutelako.

- “Eraikinak konpontzea eta mantentzea”.

Aipatutako kasuak ekonomia ekitaldian zehar ausaz eginiko kontratuen bidezko lan batzuei dagozkie. Halako lanek duten edukia eta betetzen duten beharrezko kontuan hartuta, obra bereizi eta loturarik gabekoak dira, nahiz eta eraikin berean egin; hartara, ezin batu daitezke kontratu xede bakar batean. Bestalde, banaka harturik, haien





zenbatekoek ez dute gainditzen obra kontratu txiki baterako ezartzen den gehieneko kopurua.

- “Ostatu, mantenu eta lunch gastuak”.

Kontzeptu hori dagokio 47.349 euro ordaindu izanari Fossilx3 biltzarreko txostengile eta bildutakoentzako ostatu, mantenu eta garraio zerbitzuen fakturengatik (faktura horiek baliozkotu egin dira).

- “Hainbat zerbitzu ematea”.

Planteatutako kasuen artean hauek daude, baliozkotu direnez gain: Izkiko parke naturalean moduluak alokatu, bildu eta garbitzeko zerbitzua (21 faktura), zenbatekoa, guztira, 9.330,01 euro dela; Gorbeia parke naturalean komun eramangarriak garbitu eta biltzea, 2.576 euro (4 faktura); Uribarri Ganboako urtegi moduluak alokatzea, 2.032,70 euro (5 faktura); Gesaltza Añanako Gatz Haranean komunak alokatzea, 4.979,89 euro (9 faktura); eta hainbat toki erakunde eta zenbait parke komun eramangarri hornitzea, 7.346,81 eurotan batera (18 faktura), zerbitzu horiek guztiak enpresa berarekin hitzarturik. Horren inguruan esan behar da zerbitzu eta hornikuntza bereziak eta heterogeneoak direla, erabiltzen diren tokiaren arabera behar bereziak betetzekoak baitira, eta, hortaz, ezin batu daitezke haiek jasoko dituen kontratu bat lehiaketan jartzeko. Bestalde, ez da inoiz gainditu zerbitzu edo hornikuntza kontratu txiki baterako eskatzen den gehieneko zenbatekoa.

- “Kultura jarduerak”.

Kasu honetan dagozkion fakturen ordainketa planteatzen da. Faktura bat Carmelo Bernaola Nazioarteko IV. Musika Jaialdirako azpiegitura, eszenografia eta argiztapen zerbitzuari ordaindu zitzaion (2.000 euro)<sup>5</sup>, eta gainerakoak (5) testuen irakurketa dramatizaturako eta birsorkuntzarako ordaindu ziren (batez besteko zenbatekoa: 5.020,48 euro).

Irakurketak eta birsorkuntzak esleipendunak aurrera eramandako jardueraren osagaietako bat eratzen zuten, eta ezaugarri berezi eta berezkoak dituen testu batean gauzatzen zirenez, zerbitzu berezi eta lokabea ziren, haietako bakoitzean zerbitzu kontratu txiki baterako eskatzen den gehieneko kopurua gainditu gabe.

- “Ekitaldiak antolatzea”.

Aipatutako kasuen artean hauek daude: anbarreko inklusioei buruzko mundu biltzarra antolatzeko zerbitzua (1.527,41 euro); paleontologia jardunaldietarako laguntza teknikoa (11.980 euro), eta Museo Zerbitzuarentzat agiri teknikoak atontzea (10.402,47 euro), guztiak esleipen berarekin hitzartutakoak. Ikus daitekeenez, zerbitzuak bereziak dira, eta bakoitzaren zenbatekoa kontratu txiki baterako eskatzen den gehieneko kopurua baino txikiagoa da.

---

<sup>5</sup> Ez-betetzean barne hartu gabeko ordainagiria.



- “Zuhatza uharteko obrak”.

Aipatzen diren bi kontabilitate agiriak bi fakturari dagozkie: bata Zuhatza uharteko 5. kanpalekuan ezinduentzako komunak eraikitzeari dagokio (29.973,04 euro), eta bestea Zuhatza uhartean arrapalak eta eskudelak eraikitzeari buruzkoa da (8.297,31 euro). Komunak erakintzen bukatuta, eta 5. kanpalekua osatzen duten bost etxolak jarrita, ezinduen ibilerraztasuna hobetzeko beharrari antzeman zitzaion, kanpaleku horretako eraikinak eta sukalde eta jantoki aldea hondartzari arrapala eta eskudel batzuen bitartez lotze aldera. Hala, bada, komunak egitea hitzartzerakoan ezezaguna zen arestian azaldutako beharra, eta, horrenbestez, bi zerbitzuak bateratzeko kontratazio espediente bat izapidetu behar izan zen; bestela ere, banaka hartuta, ez zuten gainditzen obra kontratu txiki baterako ezartzen den gehieneko zenbatekoa.

- “Elektrizitateko konponketak”.

Aztertzen den kasua Buesa Arena pabiloiko berrikuntzei dagokie, eskaileretako balizetan (29.814 euro) eta barneko aretoen argiztapenean (29.829,24 euro), hain zuzen. Ikus daitekeenez, obra horien edukiak bata bestearen desberdinak dira erabat, eta, horrenbestez, ezin dira kontratazio espediente berean bateratu; bestalde, banaka harturik, ez zuten gainditzen kontratu txiki baterako ezartzen den gehieneko zenbatekoa.

- “Programa eta ekipo informatikoen lizentziak”.

Planteatutako kasuen artean dago, baliozkotu direnez gain, enpresa bati 2007ko ekitaldian zehar informatikako hainbat ekipo, osagai eta elementu erosi izana. Hornikuntza bereiziak izan ziren, eta, denborari dagokionez, unean uneko beharrizanak sortu ahalekoak; beraz, ezin dira bateratu kontratu xede baten edukiaren definizioan, eta, gainera, banaka harturik, kontratu txiki baterako ezartzen den gehieneko kopurua baino txikiagoak dira.

- “Liburu hornikuntza”.

Beste horrenbeste fakturari dagozkien 194 agiri aipatzen dira (zenbateko handienekoa 4.733,11 eurokoa da). Horri dagokionez, ekonomia ekitaldi baten zehar hainbat liburu heterogeneo eskuratzea ezin da kontratu xede zehatz eta uniforme baten definizioan sartu, eta eginez gero, kontratu zatikatu gisa egin beharko litzateke. Bestalde, banaka harturik, ez dute gainditzen hornikuntza kontratu txiki baterako ezartzen den gehieneko kopurua.

- “Apalen eta altzarien hornikuntza”.

Beste hainbeste fakturari loturiko 26 agiri aipatzen dira (zenbateko handienekoa 11.952,64 eurokoa da). Halakoak alde zuzenetik planifikatu gabeko beharrei dagozkien altzari hornikuntzak dira, une jakin batzuetan, ustekabean eta bat-batean sortutakoak ekonomia ekitaldian zehar; hortaz, ez ziren ezagun alde zuzenetik haien xedeak, ezaugarriak eta prezioak, ez eta bete beharreko beharrak ere. Bestalde, banaka harturik, ez dute gainditu hornikuntza kontratu txiki baterako ezartzen den gehieneko kopurua.



### **2007ko esleipenak eta aurreko urteetako kontratuak (Ikus A.8.1 eta A.8.2 eranskina)**

*3.3 Aurreko urteetan 1.514 mila euroan esleitutako obra kontratu batean (42 zk.ko esp.), obrei 2007ko ekainean ekin zitzaien eraisteko baimen batekin soilik, behinbetiko lizentzia jaso zain, 2007ko azaroan eskuratuko dena (A1 akatsa) eta birplanteaketa egiaztatzeke akta gauzatu gabe (C1 akatsa). Gainera, 2007ko uztailaren lehenengo egiaztagiraren ondoren eta 2008ra arte ez da inongo hileroko ziurtagiririk jaulki (C11 akatsa).*

### **ALEGAZIOA**

Oharrak Espejoko aterpe etxeko obra kontratua: 1. aldia, sukaldearen eta jantokiaren modulua delakoa aipatzen du. Kontratu hori gauzatzen hasteko, ezinbesteko baldintza zen zegokion obra baimena lortzea. Baimen hori ematea luzatu egin zenez, eta obra gehiago ez atzeratzeko, eraikina eraisteko baimena eskatzea erabaki zen. Behin baimen hori eman eta gero (2007ko ekainaren 15a), zuinketa egiaztapenaren akta formalizatu zen 2007ko uztailaren 16an, eraisketarako bakarrik; hain zuzen, eraisketa hori kontratuaren xedearen barruan zegoen eta bazeuden hura egiteko beharrezko baimenak.

Jarduera hori Arkitektura Zerbitzuaren 2007ko abuztuaren 3ko txosten batekin osatu zen. Txostenean, amaitutzat jo ziren eraiste lanak, kontratua gauzatzea eten egin zen, eta jakinarazten da egin beharreko gainerako obrak egiteko baimena onartzean ekingo zaiela berriro lanei.

Gaubeako Udalak, 2007ko azaroaren 26an, obrak gauzatzeko baimena eman zuela jakinarazi zuen, eta, horrenbestez, Espejoko aterpe etxea eraikitzeke obren (1. aldia, sukaldearen eta jantokiaren modulua) zuinketa egiaztapenaren akta formalizatu zen

Obrak gauzatzea eten izanaren ondorioz, azaldu denez, etenaldian ziurtagiriak egitea ere eten zen<sup>6</sup>.

*3.4 Guztira 11.503 mila euroan esleitutako zazpi espedientetan (3, 4, 6, 7, 8, 10 eta 11 zk.ko esp.) prezioa baloratzeko erabiltzen duten formulak onuragarriagoak diren eskaintza ekonomikoak zigortzen ditu, izan ere, puntuazio handiagoa ematen baitzaie aurkeztutakoaren arteko batez besteko aritmetikoari gerturatzen zaizkion eskaintza ekonomikoari, balio ekonomikoagoa izateari baino. Gainera, 1.831 mila euroan esleitutako hiru espedientetan (19, 20 eta 21 zk.ko esp.), eskainitako bajaren benetako garrantzia, kasu batzuetan, aplikatutako formularen ondorioz gutxitzen da, izan ere, ez baitzaio beti eskaintzarik ekonomikoari esleitzen puntuen kopuru osoa, eta eskaintzarik garestiena ere ez baita 0 punturekin baloratzen. Bada, Arabako Natur Parkeetan kontrol, zaintza eta arreta zerbitzuak kontratatzeke espedienteak nominalki eskaintzaren faktore ekonomikoari 25 puntu ematen dizkionak, puntu*

---

<sup>6</sup> Ez da APKLTBren 102. artikuluan zehaztutako etete akta gauzatu.



*bakarreko aldea bereizi du lehian zeuden bi enpresen artean, nahiz eskaintza ekonomikoa ehuneko 9 hobetu den (A3 akatsa).*

## ALEGAZIOA

Aipaturiko espediente guztietan, kontratazio organoak esleitzeko aukeratu zuen prozedura lehiaketa izan zen. Herri Kontuen Euskal Epaitegiak hemen egindako oharrak ez du kontuan hartzen ezen lehiaketen, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen testu berrituko 88.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, Administrazioak aukera dezakeela edo kontratua proposamen abantailatsuenari esleitzea edo, administrazio klausula berezien agirian ezarritako irizpide objektiboak aplikatuz, lehiaketa esleitu gabe uztea.

Aztertutako kasu guztietan, zegozkien agirietan eskaintzak balioztatzeke sartutako irizpideen helburua zen ekonomikoki abantailatsuen eta orekatuena zen eskaintza hautatzea, baina eskaintza horrek ez zuen nahitaez zertan merkeena izan. Gainera, kontratuei buruzko araudiaren arabera, prezioa balioztatzeke erabilitako formulak baziren guztiz objektiboak, eta gardenak, eta lehiakide guztiek alde aurretik ezagutzen zituzten.

Hori dela eta, ezin etor daiteke bat prezioa balioztatzeke erabili ziren formulei egindako gaitzespenarekin.

*3.6 Guztira 115 mila euroko zenbatekoarekin esleitutako espediente batean ez da esleipen hartzailearen sailkapena egiaztatu eta ez dira zerga edo Gizarte Segurantzako egiaztagiri positiboak aurkeztu (B2 akatsa).*

## ALEGAZIOA

9 Sarbide berria Campillarren, A-124 errepidea egokitzeko sarbidearen osagarri.

Bai sailkapena, bai zerga arloko eta Gizarte Segurantzako betebeharrak betetzearen ziurtagiriak kontratu nagusia esleitzeko izapideturiko administrazio espedientearen jasota daude.<sup>7</sup>

*3.7 2.513 mila euroan esleitutako espediente batean (2 zk.ko esp.), AKPLk ez du behar hainbat zehazten esleipen irizpideak aplikatzeko modua, gerora, esleipen txosten teknikoetan zehazten direlarik irizpide horiek eta baloratzeko moduak (B3 akatsa).*

---

<sup>7</sup> Printzipala amaitua zegoen kontratu berriari ekin aurretik, ziurtagiriak 2006koak zirelarik eta baldintzei eusten zitzaiela egiaztatu ez dela.



## ALEGAZIOA

Espediente horri dagokionez, eskudun sailak egindako txosten teknikoan eta esleipen proposamenean, administrazio klausulen agirietan jasotako esleitzeko irizpideak betez balioztatu ziren eskaintzak. Alabaina, jarduera horri dagokion nahierakotasun teknikoa baliatuz, haien barruan sartzeko moduko alderdi batzuen arabera interpretatu, garatu eta gauzatu ziren irizpideak. Azken finean, askotan nolabaiteko abstrakzioa duten balioztatze irizpide batzuen aplikazioa ahalik eta gehien arrazoitu eta objektibizatu nahi izan da.

Ez da ahaztu behar Herri Administrazioen Kontratuen Legearen testu berrituan, bai eta kontratuen indarreko araudian ere, jasota dagoela irizpide batzuek, objektiboak izan behar badute ere, era berean, berez nolabaiteko abstrakzioa izen dezaketela, eta haiek balioztatu eta interpretatzeko lan teknikoa egin behar izango dela (esaterako, kalitatea, balio teknikoa, ezaugarri estetikoak edo funtzionalak), formula matematiko hutsak aplikatu beharrean.

*3.8 Guztira 3.907 mila euroko zenbatekoarekin esleitutako lau espedientetan (15, 19 eta 21 eta itsatsitako 37 zk.ko esp.), esleipen proposamenaren euskarri diren txosten teknikoek aurkeztutako eskaintzak baloratzen dituzte, pleguan aurreikusitako irizpide eta azpi-irizpideetako bakoitzari esleitutako puntuaketak zehazten dituzte, baina ez dute lehiatzaile bakoitzari emandako puntuaketen baloraketa justifikatzen (B4 akatsa).*

Ohar honetan aipatzen diren espedienteetan, eskudun sailek egindako txosten teknikoak eta esleipen proposamenak jasotzen dira. Horiek administrazio klausulen agirian jasotako esleipen irizpideak betez balioztatu zituzten eskaintzak, baina Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren ustez ez da behar bezala arrazoitu lehiakide bakoitzari emandako puntuazioa.

Ohar hori oso subjektiboa dela alde batera utzita, paradoxikoa da bai arrazoitze praktika soila zein kontrakoa zentsuratu dela ikustea, batez ere aurreko oharrean zalantzan jarri denean esleipenari buruzko txosten teknikoetan irizpide horiek eta balioztatze modu hori zehaztu beharra<sup>8</sup>.

*3.9 Lehiaketa bidez 1.290 mila euroan esleitutako obra espediente batean (19 zk.ko esp.), ez da dagozkion aldizkari ofizialetan argitara eman kontratuen esleipena eta 202 mila euroan esleitutako beste espediente batean (18 zk.ko esp.) hilabete eta erdiko atzerapenez eman da argitara (B5 akatsa).*

---

<sup>8</sup> HKEEK adierazi du lau espediente hauetan txosten teknikoek ez dutela lehiatzaile bakoitzari emandako puntuaketen balorazioa justifikatu.



## ALEGAZIOA

Herri Administrazioen Kontratuen Legearen testu berrituko 93. artikulua arabera, esleipena argitaratu behar da BOEn edo autonomia erkidegoei eta toki erakundeei dagozkien egunkari edo aldizkari ofizialetan, berrogeita zortzi eguneko epean, gehienez, kontratua esleitzen den egunetik zenbatzen hasita.

Arabako parke naturaletan kontroleko, zaintzako eta jendearentzako laguntzako zerbitzuen kontratuaren kasuan publizitate hori 2007ko maiatzaren 18ko ALHAOn egin zen, egokitzat irizitako eran, lehen ere azaldu denez, ez baitzen nahitaezkoztat jo iragarkia EBAOn argitaratzea, kontratua, haren xedearen zioz, ez baitzen sartzen Administrazioen Kontratuen Legearen testu berrituko 206. artikuluko 1etik 16ra arteko kategorietakoren batean, hau da, EBAOn halako publizitatea egitea nahitaezkoa duten kategorietako batean, baldin kontratua 211.129 eurokoa baino gehiagokoa bada, BEZ sartu gabe<sup>9</sup>.

*3.10 Hainbat atzeraldi gertatu dira aztertu ditugun kontratazio espedienteak izapidetzean eta egiteratzean. Zehazki:*

- *1.462 mila euroko zenbatekoarekin esleitutako espediente batean (11 zk.ko esp.) esleipena atzerapenez egiten da (3 hilabete eta 11 egun) (B6 akatsa).*

## ALEGAZIOA

Herri Administrazioen Kontratuaren Legearen testu berrituko 89. artikuluan hiru hilabeteko gehieneko epea dago ezarriarik, kontratua esleitzeko proposamenak aurkezteko epea irekitzen denetik zenbatzen hasita. Alabaina, aipatutako gehieneko epe hori ez betetzearen ondorio bakarra zen lehiakideek proposamenetan atzera egiteko aukera zutela eta, orduan, emandako bermea itzultzeko eskubidea balia zezaketela. Egia da atzerapen horiek aipatutako espedientean gertatu zirela, baina lehiakideek ez zuten baliatu eskubide hori. Horrenbestez, onartutako esleipena erabat baliozkotzat jotzekoa da.

- *Guztira 15.112 mila euroan esleitutako zazpi espedientetan (1, 2, 25, 26, 32, 35 eta 45 zk.ko esp.) aurreikusitako amaiera epearekiko atzerapenez egiten da (hilabete 1etik 9 hilabetetara) (C5 akatsa).*

## ALEGAZIOA

45. espedienteari dagokionez (museoetako erakusketen hornikuntza eta instalazioa diseinatzea eta gauzatzea), kontratuaren iraunaldia 7 hilabete zen, esleipendunaren eskaintzaren arabera, baina gauzatzean etenaldiak izan ziren, aldi bakoitzaren hasiera baldintzatuta zegoelako.

---

<sup>9</sup> Kontratuaren xedea zerbitzu garestienei dagokienez APKLTBren 206. artikulua 1etik 16ra bitarteko kategoriatan jaso dago.



Aldi hauek zituen 7 hilabeteko gauzatzeko epea:

- Erakusketen programaren behin betiko idazketa: 1 hilabete, kontratua formalizatzen denetik.
- Hornikuntza gauzatzeko diseinuaren idazketa: 2 hilabete, erakusketen programa onesten denetik.
- Erakusketaren hornikuntza eta instalazioa: 4 hilabete, zuinketa egiaztapenaren akta formalizatzen denetik.

Espedientean jasota daude aldi bakoitza ordaintzeko onespena ematen zuten Arkitektura Zerbitzuaren txostenak, behin enpresa esleipenduna kontratua gauzatzen batere atzeratu ez dela egiaztatu eta gero.

- *Hiru espedientetan (19, 21 eta 38 zk.ko esp.), 645 mila euroko zenbatekoa egin dutenetan, ziurtagirien ordainketa atzerapenez egiten da (hilabete 1 baino gehiago) (C10 akatsa).*

## ALEGAZIOA

Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren baieztapen batzuen zehaztasunik eza agerian utzi dituzten goiko alegazio horietan adierazitako alderdi berezietan gain, aditzera eman behar da, halaber, 3.10 ataleko ohar guztiak adierazitako kontratazio espedienteetan izapide batzuk betetzean izandako atzerapenei dagozkiela, eta atzerapen horiek ez ziotela batere kalte ekonomikorik ekarri Arabako Foru Aldundiari; bestalde, barne kontrolaz arduratzen diren unitate organikoek zegokion unean ohartarazi zuten kontratazio espedienteetatik zetozen betebeharrak, materialak izan zein formalak izan, zorrotzago bete behar zirela.

*3.11 Berebat, bi espedientetan (8 eta 46 zk.ko esp.), 1.876 mila euroan esleitutakoetan, lanerako programaren edukia ez zaio Kontratuen Legearen Arautegi Orokorraren 144 artikuluari egokitzen. Beste bi espedientetan, (6 eta 8 zk.ko esp.), 3.950 mila euroko zenbatekoarekin esleitutakoetan, lanerako programa horretarako eskumenik ez duen atalak onetsi du (Foru Diputatua). Beste espediente batean (42 zk.ko esp.), 1.514 mila euroko zenbatekoarekin esleitua, ez da 2007ko ekitaldian lanerako programa onetsi (C7 akatsa).*

## ALEGAZIOA

42. espedientean (Espejoko aterpe etxeko obra kontratua: 1. aldia, sukaldearen eta jantokiaren modulua) jasota dagoenez, esleipendunak lan programa eskaintzako gainerako agiriekin batera aurkeztu zuen, eta programa hura ez zen ezertan aldatu, nahiz eta ez zen berariaz aurkeztu esleipenaren ondoren. Hau da, lan programarik ez egotea egoera formala baino ez da, agiri hori esleipenaren ondoren aurkeztu ez baitzen eta kontratazio organoak





hura halakotzat onetsi ez baitzuen, nahiz eta espedientean bazegoen jasota eta, hortaz, kontratua gauzatzen zela kontrolatzeko eta horren jarraipena egiteko baliatu zen.

*3.12 - 53.244 mila euroan esleitutako zortzi espedientetan (40, 23, 36, 27, 15, 41, 42 eta 46 osagarria zk.ko esp.) obraren finantzaketa erritmoa ez zaio exekuzio erritmoari egokitu (APKLTBren 14.3 artikulua) (C9 akatsa).*

## ALEGAZIOA

Ohar honetan aipatzen diren kontratazio espedienteetan atzerapenak izan dira eta, ondorioz, hasierako esleipenetan ezarri ziren gauzatze epeak aldatu behar izan dira. Espediente bakoitzean jaso dira gauzatzeko atzerapenak sortu dituzten eta, azken batean, finantzaketan beharrezko doikuntzak egitera behartu duten kasuak.

Kasu guztietan bete dira finantzaketaren erritmoa lanak gauzatzeko erritmoari egokitzeko beharrezkoak ziren izapideak, baina batzuetan egokitzapen hori Herri Kontuen Euskal Epaitegiak txosten honetan aztertutakoa baino ekitaldi bat geroago egin da, askotan lanak askoz aurreratuago egon arte ezin izan zaiolako zenbatespen berri eta fidagarria egin lanerako programari.

Gainera, aipatutako kontratuak urte anitzekoak ziren, eta bermatuta zegoen kontratuak indarrean ziren bitartean sortzen ziren betebeharrak guztiak ordaintzeko aurrekontu kreditua.

*3.13 Guztira 1.378 mila euroan esleitutako bi espedientetan (21. eta 25. esp.), azken ziurtagiriak esleitutako zenbatekoaren ehuneko 10aren muga gainditzen du (ehuneko 4an eta ehuneko 2an, hurrenez hurren) (C11 akatsa).*

## ALEGAZIOA

25. espedienteari dagokionez (A-3310 errepidea egokitzea Manzanoseko trenbide pasabidean), Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 17ko 730/2007 Erabakiaren bidez onetsitako obren amaierako ziurtagiriaren zenbatekoak %9,71 gainditu zuen esleipen zenbatekoa, eta, hortaz, kontratuei buruzko araudian xedaturiko %10aren barruan dago.

Gero, Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 28ko 1186/2007 Erabakiaren bidez, esleipendunak Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 17ko 730/2007 erabakiaren aurka — obren amaierako ziurtagiria onesteko erabakiaren aurka, hain zuzen— jarri zuen berraztertze errekurtsoa zati batean onetsi zuen. Errekurtso hartan, esleipendunak egin zituen eta behar bezala balioztatu ez ziren lan batzuk ordaintzeko eskatzen zuen. Horren ondorioz, beste gehikuntza bat onetsi zen, kontratuaren hasierako prezioaren %13,62koa.

*3.14 Guztira 2.869 mila euroan esleitutako bi espedientetan (2 eta 21 zk.ko esp.), horietako batean epeen aldaketa egin zen -kontratazio atalak onetsi behar zukeena-*





*eta bestean, bai bermea egokitzea, bai aldaketa formalizatzea, exekuzioari hasiera eman ondoren gauzatu da (C12 akatsa).*

## ALEGAZIOA

2. espedientea (ahots eta datuen telefonia finkoko zerbitzua) esleitu zenean, hasiera batean, haren iraunaldia izango zen "esleipena formalizatzen den unetik 2010eko abenduaren 31 arte, gehienez urteko bi luzapen egiteko aukerarekin", bai administrazio klausula berezien agirian bai 2007ko ekainaren 15ean izenpeturiko kontratuaren agirian bertan jasota dagoenez. Epe horri aldaketarik egin izanaren berririk ez dagoenez, ez da ulertzen hemen Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egin duen oharra<sup>10</sup>.

*3.15 Guztira 17.436 mila euroko zenbatekoarekin esleitutako lau espedientetan (23, 7, 10 eta 41 zk.ko esp.) exekuzio epeak egoki justifikatu gabe luzatu direla ikusi dugu. Horietako batean (23 zk.ko esp.) luzapena –arrazoi ezagunen ondorioz sortutakoa- 8 hilabete igaro ondoren eskatu da (C13 akatsa).*

## ALEGAZIOA

7 A-2134 errepidearekin bat egiten duen lekutik aurrera A-4001 errepidea aldatzeko proiektua.

Badago 2007ko abenduaren 10eko txosten tekniko bat jasota espedientean, esleipendunari ezin egotz dakizkion arrazoiak badaudela eta halakoek atzerapena eragin dutela justifikatzen duena; txostenak, bada, epea hilabete eta erdi luzatzea justifikatu zuen, eta kontratazio organoak hura erabaki zuen. Zehazki, atzeratzeko emandako arrazoiak izan ziren zerbitzu batzuei eragitea (zirkulazioa erregulatzeko Eusko Jaurlaritzaren semaforoak eta linea elektrikoa) eta ureztapena etetea. Bestalde, ingurumena lehengoratzeko aurrera eraman behar diren jarduerak klima baldintza jakin batzuek behar dituzte; hain zuzen, landatzeko eta landatukoa haziko dela ziurtatzeko aldi begetatiborik egokiena abendu eta urtarrilekoa da. (Onartu zen luzapena eskatutakoa —hiru hilabete— baino gutxiagokoa izan zen, eta kontratistak emandako beste arrazoi batzuk zirela medio —neguko meteorologia baldintzak egokiak ez izatea gurpil geruza hedatzeko—).

10 A-3214 eta A-3224 errepideen (Eskuernagaren eta Mañuetaren artean) trazadura hobetu eta plataforma zabaltzea.

Badago 2007ko abenduaren 11eko txosten tekniko bat jasota espedientean, esleipendunari ezin egotz dakizkion arrazoiak badaudela eta halakoek atzerapena eragin dutela justifikatzen duena; txostenak, bada, epea hiru hilabete luzatzea justifikatu zuen, eta kontratazio organoak hura erabaki zuen.

---

<sup>10</sup> Izatez gauzatu zen epeen aldaketa, ez zen formalizatu.



### 23 Maeztu aldeko ureztatzea hobetzeko obrak

Badago 2007ko abenduaren 3ko txosten tekniko bat jasota espedientean, esleipendunari ezin egotz dakizkion arrazoiak badaudela eta halakoek atzerapena eragin dutela justifikatzen duena; txostenak, bada, epea bost hilabete luzatzea justifikatu zuen, eta kontratazio organoak hura erabaki zuen. Zehazki, arrazoi hauek eman ziren luzatzeko: “Sansibarriko presako galerian itxuraz gertatu diren asentatzeak direla eta —udaberri eta udako eurien ondoriozkoak, ziurrenik— , komeni da azterketa egitea galeria horren egoerari buruz nahiz haren egitura indartzeko beharrari buruz”.

### 41 Arkeologia museo berriaren eraikuntzan aldaketa egitea

Badago txosten tekniko bat, esleipendunari ezin egotz dakizkion arrazoiak badaudela eta halakoek atzerapena eragin dutela justifikatzen duena; txostenak, bada, epea bi hilabete eta erdi luzatzea, eta gero, hiru hilabete, justifikatu zuen, eta kontratazio organoak haiek erabaki zituen.

Txostenak 2007ko urriaren 1ekoa eta 2007ko abenduaren 19koa dira, hurrenez hurren, eta espedientean jasota daude.

*3.16 Segurtasun eta Osasun planak segurtasun eta osasuneko koordinatzailearen aldeko txostena jaso beharko du eta kontratazio organora igaro beharko du obra hasi baino lehen. 2007ko ekitaldian esleitutako obra espedienteetan, Segurtasun eta Osasun Plana horretarako eskumenik ez duen atalak onetsi du, suskripzioa eskuordetzen zuen antolamenduzko araudia aldatu izanaren ondorioz. Sailek akats hori zuzentzeko baliokidetzak mamitu eta izapidetu dituzte; nolana dela ere, aribide hori segurtasun juridikoaren printzipioaren aurkakoa da.*

## ALEGAZIOA

Ezin ukatuzkoa da eskuduna ez zen organo batek onetsi zuela hasiera batan Segurtasun eta Osasun plana aipatutako espedienteetan. Barneko kontrol ekonomikoaren eginkizunak dituzten organoek horretaz ohartarazi zuen (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeko 67. artikulua xedatutakoaren arabera, administrazio egintza horien deuseztagarritasuna eragin zezakeen egoera horrek), egintza horiek baliozkotzea onetsi zen, eta hierarkian egintzak eman zituenaren gainetik zegoen eta organo eskuduna zenak baliozkotu zituen.

Ez dago gaitzespenik egiterik administrazio jardura horretan: hasieran okerra izan batzen ere, gero behar bezala zuzendu zen, eta ez die kalterik eragin ez kontratu harremaneko aldeei ez hirugarren batzuei.

### 4.1 Diru-laguntza izendunak:

- Arabarri, SA sozietate publikoa finantzatzea xede duen diru-laguntzan, Arabako eraikitako kultur ondarea hedatzeko laguntzak, 153 mila eurokoa, egindako



*gastuen egiaztagiria (71 mila eurokoak) ez ditu dagokion zerbitzuko zuzendariak izenpetu, emakida ebazpenean ezarrita dagoen moduan (C5 akatsa).*

## ALEGAZIOA

Ezin etor daiteke bat ohar honekin, espedientean jasotzen baitira dirulaguntza justifikatzeari buruzko txostenak; txostenok zegozkion betebeharrak aitortzeko balio zuten, eta Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren buruak eta Hirigintza eta Arkitektura zuzendariak izenpetu zituzten.

- *Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteari emandako 38 mila euroko diru-laguntzatik justifikatutako gastuak ez zaizkio emakidaren foru aginduan ezarritakoei egokitzen eta honenbestez, 2008ko ekitaldian 29 mila euroko itzulketa espedienteari hasiera eman zaio. Ordea, 2008ko abenduaren 31ko beste foru agindu baten bitartez, diruz lagungarri diren gastuak areagotu dira eta aurkeztutako gastu guztiak onetsi eta itzulketa espediente baliogabetu da (E akatsa).*

## ALEGAZIOA

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuaren azaroaren 30ko 103/2007 Aginduaren bidez onetsi zen Arabako Foru Aldundiak 2007ko ekitaldian Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteari egingo zion ekarpena, 37.809 euro, hain zuzen.

Elkarte horrek, 2008ko urtarrilaren 31n, 2007. urtean aurrera eramandako kultura jardueren programetan sortutako gastuen justifikazioa aurkeztu zuen, bai eta memoria, gastuen eta diru sarreren balantzea, eta aipaturiko programei egotzi beharreko hainbat gastu justifikatzen zituzten denetariko agiriak ere.

Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntza eta Transferentziei buruzko 3/97 Foru Arauko 7. artikulua (2. idatz zatia) honela dio:

“Arabako Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorretan izendaturiko dirulaguntza izendun eta banakakoak dagokien organoek ordainduko dituzte euren eskumenen eremuan eta dirulaguntza berorien termino beretan.

Foru Arau honen ondorioetarako, hauek honela hartuko dira:

- a) Dirulaguntza izenduna: onuraduna edo onuradunak zehazturik eta esplizituki identifikaturik daudenekoa.
- b) Banakako dirulaguntza: izenduna izan gabe, ez du izaera orokorrik, eta haren onuraduna edo onuradunak aurrez erabakita daude, helburu edo xedea dela eta.

Arabako Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorretan dirulaguntza izendunak edo banakakoak izendatzean, bai dirulaguntzaren helburuaren azalpena bai dirulaguntza emateak atxikirik dauzkan xede, asmo, jarduera edo berariazko proiektua jaso beharko dira.”



2006ko ekitaldiko Aurrekontua Gauzatzeko martxoaren 8ko 2/2006 Foru Arauan (2007ko ekitaldirako luzatua), gastuen aurrekontuan 37.809 euroko dirulaguntza izenduna izendatu zuen Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearentzat, jarduera programa aurrera eramane zezan.

103/2007 Foru Aginduko lehen xedapenean, dirulaguntzaren eskabidearekin batera aurkezturiko jarduera programak egiteko gastuak 2007ko ekitaldian finantzatzeko ekarpena baimentzen eta izendatzen zen, erakundeak mantentzeko eta funtzionatzeko dituen gastu orokorrak eta bidaien, publizitatearen, ordezkapenaren, protokoloaren, omenaldien eta antzekoen gastuak alde batera utzita.

Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntza eta Transferentziei buruzko 3/97 Foru Arauko 7. artikuluko 2. idatz zatian ezarritako eta 2006ko ekitaldiko Aurrekontua Gauzatzeko martxoaren 8ko 2/2006 Foru Arauko (2007ko ekitaldirako luzatua) ikusita, eta azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorraren Arautegia onesteko uztailearen 21eko 887/2006 Errege dekretuko 86. artikuluko a idatz zatian jasotakoari begiratuta, foru aginduko lehen xedapena aldatu egin zen, 2007ko ekarpena Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak aurrera eramandako jarduera programa finantzatzeko erabil zedin, justifikazioa onartzea hirugarren batzuen eskubideak kaltetzea eragiten ez zuenez.

*- Santa Maria Katedrala Fundazioari 1.500 mila euroko diru-laguntzak eman zaizkio sendotze, zaharberritze eta birgaitze lanak finantzatzeko; ordea, diru-laguntza emateko urteko erabakietan ez da adierazten onuradunak bere gain hartzen dituen gauzazko eta formazko obligazioen luze-zabala, diru-laguntza hori kobratzeko eskubidearen aitortpena eskuratu ahal izateko (E akatsa).*

## ALEGAZIOA

Santa Maria Katedrala Fundazioa ez da Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren zati, eta, hortaz, haren estatutuetan eta araudi pribatuan ezarritakoaren arabera dago araututa. Arabako Foru Aldundiak, Gasteizko Udalak eta Gasteizko Elizbarrutiko Apezpikutzak osatzen dute fundazioa, eta Arabako diputatu nagusia da fundazioaren Patronatuko buru.

Fundazioaren estatutuetako 10. artikuluan xedaturik dagoenaren arabera, fundazioaren gobernu, ordezkaritza eta administrazioa Patronatuari baino ez dagozkio; hala, bada, patronatuak bete behar ditu fundazio xedeak, eta fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak administratu, haien errendimenduari eta erabilgarritasunari erabat eutsita. Horrenbestez, patronatuak egiten du kontrola, Arabako Foru Aldundia Patronatu horren kide dela.

Fundazioari ematen zaion dirulaguntza eginiko inbertsioak —hau da, Gasteizko Santa Maria katedrala sendotu, zaharberritu eta birgaitzea— estaltzeko kapital transferentziazat har daiteke, Arabako Lurralde Historikoko foru sistema publikoaren zati badiren foru erakunde autonomoei ematen zaizkien zuzkiduren antzera.



Aurrekoa gorabehera, eta akats hori zuzentzeko, 2006ko Kontu Orokorrari buruzko txostenean dagoeneko atzeman zen eta, Diputatuen Kontseiluaren urriaren 7ko 650/2008 Erabakiaren bidez, delako fundazioak bete beharko dituen betebeharrak material eta formalak onetsi ziren, Arabako Foru Aldundiak onartutako dirulaguntza kobratzeko eskubidea aitordakion.

#### **4.2 Zuzeneko diru laguntzak:**

- *Udal bati erabilera anitzeko eraikin bat eraikitzeko emandako diru-laguntzan, Diputatuen Kontseiluak onetsitakoa, AFAk aurkeztutako obra ziurtagirien zenbateko guztia, 701 mila eurokoa, aitortutako obligazio modura erregistratu du; ordea, egiaztagiriri horiei ez zaie esleitutako zenbatekoarekiko diru-laguntza bidezko finantzaketak egiten duen ehunekoa aplikatu (E akatsa). Honez gainera, 515 mila euroko zenbatekoarekin aurkeztutako egiaztagirien atal bat konpultsatu gabe dago (C1 akatsa) eta udalak onetsi dituela egiaztatzen gabe.*

## **ALEGAZIOA**

Aipatutako kasuan, aurkeztutako obra ziurtagirien zenbateko osoari zegozkion betebeharrak onartutako dirulaguntzaren kopururaino baino ez ziren onartu, eta justifikatzeke geratu ziren bai diruz lagundutako obraren amaiera bai amaierako ziurtagiriaren eratorritako kostua. Bazeuden Arabako Foru Aldundiaren aldibereko beste dirulaguntza batzuk helburu horrexetarako, hain zuzen, eta, horrenbestez, obra gauzatzearen gaineko kontrola etengabekoa izan da, bada eta izango da, harik eta obra amaitzen den arte. Nolanahi ere, une honetan dirulaguntza egiaztatzeko azken jarduera egingo da, eta orduan zehaztu ahalko da argi ea obraren amaierako kostutik onartutako betebeharren zenbatekoa onetsitako finantzaketa ehunekoari dagokion.

C1 akatsari dagokionez, justifikatzeko agiriak ontzat eman ziren eskuduna zen administrazio organoak ziurtatu zituelako (Udaleko idazkari-kontu-hartzailea); gainera, agiri horiek zegozkion organoek (Udalbatza edo alkatea) onetsi behar zituzten alde aurretik<sup>11</sup>.

#### **4.3 Arautegi erregulatzailerak duten diru-laguntzak:**

- *Guztira 5.457 mila euroko zenbateko osoarekin emandako hamazazpi diru-laguntza lerroren hamalau oinarri-arau erregulatzaileretan, eskabideak balioztatzeko aurreikusitako irizpideetako batzuk orokorrak dira (B1 akatsa); honela, bada, zazpi diru-laguntzen txosten teknikoek, 2.200 mila eurokoak, erabilitako irizpideetariko bakoitzaren balorazioa ez dute behar hainbat arrazoitu (B2 akatsa). Honez gain, diru-laguntza horietatik bostetan, 1.743 mila eurokoetan, uko egin zaie puntuaziorik txikieneko eskabideei, aurrekontuko mugak izateagatik (B3 akatsa).*

---

<sup>11</sup> Aurkeztutako dokumentazioa ez dator bat ez-betetze honetan adierazitako espedienteekin.



## ALEGAZIOA

Ohar hau lehenagoko 3.8 eta 3.9 epigrafeetan idatzitakoan antzekoa da, hots, kontratazio espediente batzuetan eskaintzak balioztatzeke ezarritako irizpideei buruzko epigrafe horietan.

Dagozkion alegazioetan adierazi bezala, aztertutako deialdiek eskaerak balioztatzeke irizpideak jasotzen dituzte, eta, objektiboak izan behar badute ere, era berean, berez nolabaiteko abstrakzioa izen dezaketela, eta haiek balioztatu eta interpretatzeko lan teknikoa egin behar izango dela (esaterako, kalitatea, balio teknikoa, ezaugarri estetikoak edo funtzionalak), formula matematiko hutsak aplikatu beharrean.

Bestalde, kasu guztietan badaude laguntzak emateko proposamena arrazoitzen duten txosten tekniko batzuk, betiere kasu bakoitzari dagozkion irizpideekin bat. Areago, Garapenean Laguntzeko Programan, eskabideak aztertzeke eta ezarritako irizpideen arabera balioztatzeke lanak kanpo organo batek eramaten ditu aurrera, HEGOA Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutuak, hain zuzen (Euskal Herriko Unibertsitateari atxikirik dagokio), eta horrek behar bezala bermatzen du balioztapenaren objektibotasuna.

Azkenik, paradoxikoa da B3 akatsari, aurrekontuen mugengatik puntuazio gutxien duten eskabideak dirulaguntzak ukatzeari, dagokion oharra; izan ere, dirulaguntzak emateko prozedura arrunta aplikatzearen ondorio zuzena da, alegia, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorreko 22. artikuluan jasotako norgehiagoka erregimena. Hona hemen artikulua horren zati bat:

“Lege honi dagokionez, hau hartuko da norgehiagokatzat: dirulaguntzak emateko aurkeztutako eskaerak alderatzen dituen prozedura. Horren bitartez, hurrenkera eratzten da eskaerekin, aldez aurretik oinarri arautzaileetan eta deialdian ezarritako balioztapen irizpideekin bat etorritik. Esleipena deialdian jarritako muga eta dagoen kreditua kontuan hartuta egiten zaie adierazitako irizpideak aplikatuz balioztapen altuena lortu duten horiei.

- Arabako Nekazaritza Sektoreari Laguntzak emateko Plana arautzen duen dekretuari dagozkion nekazal azpiegiturak hobetzeko lerroaren baitan jasotako diru-laguntza batean, Diputatuen Kontseilu bitartez 157 mila euroko zenbatekoarekin emandakoa, zaharberritze-lan bat oinarri-arauetan ezarritakoaren arabera legokiokoen ehunekoarekin baino handiagoarekin subentzionatu da (zaharberritzearen ehuneko 80, ehuneko60 beharrean) eta espedientean ez da behar hainbat egiaztatu laguntza horren apartekotasuna (B5 akatsa).

## ALEGAZIOA

Oharrak aipatzen duen laguntza administrazio batzar bati eman zitzaion, bide bat egoki zezan, eta horren inguruan egindako eta espedientean jasotako txosten teknikoaren arabera, administrazio batzarrak laguntza bere izenean nahiz beste bi administrazio batzarren izenean eskatu zuen; izan ere, hiru herriak lotzen dituen bide bat da, eta hiru herrietako



nekazaritzako ustiategiek ez ezik, inguruko beste ustiategiek ere erabiltzen dute, nekazaritzako makinak A-2262 errepidean ibiltzea saihestuta eta, ondorioz, zirkulazioaren segurtasunerako onura ekarrita.

Era berean, txostenean aditzera ematen du bideak hiru herriak lotzen dituela nekazaritzaz kanpoko erabileren aldetik ere, herritarrentzat, eskola autobusentzat, elikagai hornitzaileentzat, eta abarrentzat. Horregatik, %80 ematea proposatu zen, dekretuko 46.a artikuluan oinarriturik, honela baitio: “.. Hala eta guztiz ere, behar bezala egiaztatutako salbuespeneko arrazoiengatik, Diputatuen Kontseiluaren erabakiaren bitartez, bideetan onetsitako inbertsioaren %100era arteko dirulaguntza zuzenak eman ahal izango dira.”

#### *4.4 Aztertu diren diru-laguntza mota ezberdinen akats orokorrak:*

*Hitzarmenak: Diru-laguntza izendun batean eta publizitate eta lehiatik salbuesitako beste batean, hurrenez hurren, 382 eta 454 mila euroko zenbatekoa egin dutenetan, AFAREN eta erakunde hauetako bakoitzarekin gauzatutako hitzarmenen xedea ez dago behar bezain definitua, ez baitira egin beharreko ekintzak zehazten eta ez baitago ekintza bakoitzeko aurrekontu bat; honenbestez, ez dezakegu aurreikusitako ekintzak bete direla egiaztatu (B4 akatsa). 2008an diru-laguntza izendunari zegozkion 48 mila euroko itzulketa onetsi zen, diru-laguntza osorik ez justifikatzeagatik.*

## ALEGAZIOA

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak azterturiko dirulaguntzen xedea ez dela behar bezainbeste definitu hauteman du, eta, hortaz, haren aburuz, horrek eragozten egiten du xede horiek bete diren ala ez egiaztatzea. Kasu honetan ere, adierazpen horrekin bat etortzea zaila da, espediente osoak aztertu eta haien garapenean Arabako Foru Aldundiak bata bestearen atzean gauzatu dituen jardueri erreparatzen badiegu.

- Diputatuen Kontseiluak, abenduaren 28ko 1.196/2005 Erabakiaren bidez, VIA Promoción del Aeropuerto de Vitoria, SA elkarteari emandako dirulaguntza, Interneten marketing kanpaina egiteko.

Kasu horretan, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egiaztatu ahal izan duenez eta baieztatu duenez, dirulaguntzaren xedea bete dela egiaztatu ahal izan da, eta hala frogatzen du itzulketa prozedura bat gauzatu izana, emandako zenbatekoa zati batean baino ez baitzen justifikatu.

- Diputatuen Kontseiluak, maiatzaren 29ko 514/2007 Erabakiaren bidez, Turismoa eta ekonomia sustatzeko elkarteak – Arabako Errioxako ardoaren bidea izeneko elkarteari emandako dirulaguntza, Arabako Errioxako Ardoaren Bidea deritzon horretan turismoa sustatzeko jarduerak gauza daitezten.





Hitzarmena 2006ko ekainaren 13an izenpetu zen, eta 2007ko ekitaldirako luzatu. Hitzarmenean, dirulaguntza ematearen ondorioz elkarre onuradunarentzat sortzen ziren betebeharrak zehaztu ziren, eta bigarren klausulan elkarre aurrera eraman beharreko jarduerak jaso ziren. Arabako Foru Aldundiak egiaztatu egin zuen dirulaguntzaren xedea bete zela, eta, halaber, elkarre onuradunak izan zuen gastuaren berri izan zuen, 2006. urtean bezala. Hain zuzen, azken urte hartan, onuradunari hasiera batean emandako dirulaguntzaren zati bat kobratzeko eskubidea baino ez zitzaion aitortu, aurkeztu zuen justifikazioa zela eta, egindako jardueri zein izaniko gastuari zegokienez<sup>12</sup>.

*Diru-laguntzen justifikazioa: 2007ko ekitaldian emandako ondoko diru laguntzen egiaztatapenean hainbat akats azaleratu dira:*

- *2007ko ekitaldian 5.030 mila euro egin dituzten 21 diru-laguntzetan, gauzatutako eta diruz lagundutako gastuak justifikatuko dituzten ordainagiriak konpultsatu eta/edo zigilatu gabe aurkeztu dira, nahiz horietako bederatzitan, 642 mila eurokoetan, diruz lagundutako erakundearen arduradun administratiboak egiaztatu dituen. 3.016 mila euroko beste bostetan ez dituzte egindako gastuen egiaztatagiriak aurkeztu (C1 akatsa).*
- *Indarreko arautegiari egokitzen ez zaion agiri justifikagarria. Honela, bada, 106 mila euro egin duten zuzeneko bi diru-laguntzatan, egindako gastuen egiaztatagiri modura jardueren oroitidazkiak edo ordainagirien koadroak aurkeztu dira, egiaz egindako gastuen guztizkoaren agiri bidezko euskarririk barne hartu gabe. Honez gain, 690 mila euro egin duten beste bi diru-laguntza izendunetan, jasotako diru-laguntzen egiaztatagiri modura sarrera eta gastuen balantzea edo aurrekontuen likidazioa soilik eskatu eta aurkezten dira. Bestalde, 494 mila euroko zenbatekoarekin emandako bi diru-laguntzatan, jasotako diru-laguntzaren dokumentazio egiaztagarriaren atal modura aurkezten dituzten finantza egoerak auditatu gabe daude; eta 111 mila euroko zenbatekoarekin emandako beste diru-laguntza batean, emandako diru-laguntzaren zenbatekoa egiten duten ordainagiriak soilik aurkezten ditu (C2 akatsa).*
- *Diru-laguntzen araudiak 30.000 eurotik gorako obra eta 12.000 eurotik gorako hornikuntza eta zerbitzuetarako egiten den kontratistaren aukeraketa justifikatzeko exijitzen du. 3.291 mila euroko zenbatekoa egin duten diru-laguntzen justifikazioetan, lehen aipatutako zenbatekoak baino gehiagoko erosketak antzeman dira, baina ez da kontratistaren aukeraketa justifikatzeko eskatu (C3 akatsa).*
- *Diru-laguntzen espedienteetan, 862 mila euro egin dutenetan, dokumentazio justifikagarri guztia emakidetan finkatutako epearekiko atzerapenez aurkeztu da (1 eta 5,5 hilabete bitartean). Diru-laguntzen beste espediente batzuetan, 2.137 mila*

---

<sup>12</sup> HKEE honek ez-betetze modura jaso du kontratuaren xedea gutxi zehaztua egotea, ez baitira egingo diren ekintzak zehaztu eta ez baitago ekintza bakoitzeko aurrekontu bat.





*eurokoak, emakida erabakietan aurreikusitako epea amaitua zegoela onesten da exekuzio eta justifikazio epea luzatzea (C4 akatsa).*

- *Forondako aireportua sustatzea xede duen diru-laguntzan, 85 mila euroan aurrez publikizitate eta lehia egitetik salbuetsiaz emandakoan, aitortutako obligazioa hitzarmenean jasotako ekintza guztiak bete gabe erregistratzen da (C7 akatsa).*

## ALEGAZIOA

Forondako aireportua sustatzea helburu duen dirulaguntzari dagokionez, eta eskuduna den saileko teknikariek egindako txostenarekin bat etorritz, dirulaguntzaren xedea eta baldintzak orokorrean bete zirela ulertu zen. Horregatik, lankidetza hitzarmeneko 7. klausula aplikatutzat jo daiteke, hain zuzen, jarraipen batzordeari hasieran onartutako jarduerak onartu, aldatu edo ordezkatzeko eskumena ematen zion klausula<sup>13</sup>.

- *Diru-laguntza izendun batean eta oinarri arautzaile bitartez emandako diru-laguntza bati dagozkion hiru espedientetan, hurrenez hurren, 111 eta 74 mila eurokoetan, aurkeztu dituzten urteko kontuek superabita erakusten dute eta honenbestez, AFAk diru-laguntzen zatizko itzulketa egitea egoki den edo ez aztertu beharko luke (C8 akatsa).*

## ALEGAZIOA

Ohar honetan aipatzen diren dirulaguntzetako bat da *kirol federatuentzako dirulaguntzen* lerroa. Euskadiko kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legeko 5 h) artikulua ondorengoa dio: "*Lurralde historikoetako foru organoei dagokie, zeini bere lurralde esparruan, eskumen hauek erabiltzea:*

*"Lurraldeko kirol-federazioak onartzea, laguntzea, finantzatzea, ikuskatzea eta kontrolatzea beren egiteko publikoak bete ditzatela bermatzeko, beren jarduera pribatuaren kalterik gabe".*

Bestalde, Euskadiko kirol federazioen urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuko 6. artikuluko 2. idatz zatiak honela dio, hitzez hitz:

*"Euskadiko administrazioek kirol federazioei bakoitzaren jarduera aurrera eramateko behar dituzten laguntza ekonomikoa eta teknikoa emango dizkiete; betiere, administrazioek euren aurrekontuetan xedatutako horniduren arabera eta dituzten giza baliabideen eta baliabide materialen arabera."*

---

<sup>13</sup> 2007ko Lankidetza Hitzarmenak ez dio erreferentziarik egiten inongo jarraipenezko batzorderi eta ez dago erasota eratu denik eta horren jarduerarik.



Finantzatzeko eta ekonomiaren aldetiko laguntza emateko betebeharrak hori gauzatzeko, Diputatuen Kontseiluak, otsailaren 27ko 19/2008 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Lurraldeko Kirol Federazioentzako dirulaguntzen deialdia onetsi zen, 2007. urterako, 420.000 euroko zuzkidura izendaturik.

Deialdiaren xedea hau zen: “Aurrekontuen mugen barruan, Arabako kirol federazioei dirulaguntzak ematea, estatutuetan jasotako helburuak eta eskuordetzen ondorioz administrazio izaerako funtzio publikoak betetzeko eta Arabako eskola kirolaren, federatutako kirolaren eta jolas kirolaren antolamenduan eta garapenean laguntzeko, 2007 urtean.”

Laguntza horiek honela egituraturik daude: gutxienezko laguntza bat, berdina federazio bakoitzarentzat, hots, 3.300 euro bakoitzarentzat; eta laguntza osagarri bat, puntuazio baremo baten arabera kalkulatu dena, hainbat alderdi aintzat hartuta, hala nola lizentzia kopurua, klub kopurua, klub kirol maila, eta abar. Baremo hori bereiz aplikatzen zaie kirol federatuari, eskola kirolari eta jolas kirolari.

Dirulaguntzak justifikatzeari dagokionez, deialdiko hamaikagarren oinarriak honela dio, hitzez hitz: “Zazpigarren oinarrian adierazitako dokumentuen bidez frogatuko da urteko gutxienezko laguntza.”

Zazpigarren oinarrian adierazten diren agiriak hauek dira (laguntza osagarriko aipatu diren lizentziei, klubei eta abarrei buruzko datuez gain);

- 2006ko kontabilitatearen fotokopia.
- Batzar Nagusiak 2006ko kontuak eta federazioaren 2007ko edo 2006-2007 denboraldiko aurrekontua onartzen dituela egiaztatzen duen agiria.
- Batzar Nagusiak onartutako 2007. urteko edo 2006-2007 denboraldiko aurrekontuaren fotokopia.

Deialdiaren xedea eta betekizunak ikusirik, hauteman zen laguntza horiek zehatzago egokitzen zitzaizkiola transferentziaren kontzeptuari, dirulaguntzaren kontzeptuari baino gehiago.

Euskadiko kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, 3. artikuluan, kirol federazioak administrazio publikoen laguntzaile izendatzen ditu, haiekin batera, modu aktiboan, Euskadin kirola garatzen eta antolatzen parte hartzen. Era berean, lege horretako 15. artikuluan arabera, federazioek administrazio-egiteko publikoak betetzen dituzte, eskuordetzan. Horrenbestez, azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorreko 2.2 artikulua aplikatzeko litzateke.

“Ez dira sartzen lege honen aplikazio eremuan administrazio publiko batek beste bati eginiko diru ekarpenak, ez eta Administrazioak beste organismo eta mendeko beste erakunde publiko batzuei eginiko ekarpenak, ekarpenon xedea bakoitzak bere eskumenen esparruan aurrera eramaten dituen jarduerak oro har finantzatzea denean; haiek arautzen dituen araudian berariaz ezarritakoa aplikatu beharko da.”



Aurreko guztitik ondorioztatzen da laguntza horien benetako izaera transferentziena dela, eta izaera horri egokituta gauzatu zen gastu hori 2008ko eta 2009ko ekitaldian; hain zuzen, deialdiaren orde, federazioekiko lankidetzaren hitzarmenen bitartez bideratu ziren transferentzia batzuk onetsi ziren, Administrazioaren laguntzaileak diren aldetik, haien egiteko publikoak bete ditzatela bermatzeko.

Atal honetan egin den ohar berezi bakoitzari eginiko zehaztapenez gain, esan behar da, oro har, aurreko ohar guztiak dirulaguntzak justifikatzerakoan aurkitutako zenbait akatsei buruzkoak direla, alde horretatik araudi berriak duen zorrotasun handiagoaren ondorioz, baina une hartan oraindik ez zeudela eskakizun zorrotzago horiek behar bezala sartuta oinarri arautzaileetan, lankidetzaren hitzarmenetan edo haiek gauzatzeko eta onuradunentzako betebeharrak ezartzeko ebazpenetan. Hala, kasu batzuetan, oinarri arautzaile, lankidetzaren hitzarmen edo ebazpenetan ezarritako agiriak aurkeztuz egin da justifikazioa (baina hori ez zetorren bat legezko betekizun berriekin), eta beste kasu batzuetan ez zen halakorik eskatzen, hornitzaile eta azpikontratatzaileak aukeratzeari dagozkienetan esaterako.

Barne kontrolaren arduradunak diren unitate organikoek jakinarazi zuten araudi berriak eratorritako betebeharrak guztiak, formalak eta materialak, zorrotasun handiagorekin errespetatu behar zirela. Horrela, 2007. eta 2008. urteetan zehar, aldaketa nabarmenak sartu ziren ekitaldi horretan onartutako tresna juridikoetan dirulaguntzak justifikatzeari zegoakionez.

**Toki erakundeentzako dirulaguntzei** dagokienez, justifikatzeko agiriak ontzat eman ziren, besterik gabe, zegoakion administrazio organoak ziurtatu zituelako (fede-emailea administrazio batzarretan eta idazkari-kontu-hartzailea udal eta kuadriletan); gainera, agiri horiek zegoakion organoek (kontzejua, udalbatza edo Alkatea) onetsi behar zituzten..

**Proiektu solidarioetarako boluntario programarako eta GKE-etako lan baldintzei buruzko jardunaldietarako laguntzei** dagokienez, erakunde onuraduna Gasteizko Udala da, eta foru aldundi honek harekin dihardu lankidetzan. Bi kasuetan, proiektua justifikatzeko hark aurkeztutako agiriak (administrazio horretan barne kontrolaz arduratzen diren organoek fiskalizatu egiten dituzte, gainera) eta jarraipeneko batzorde mistoak agiriok onestea justifikatzeko elementu nahikotzat jotzen dira.

**Garapenean laguntzeko programari** dagokionez, dirulaguntzen xedearen izaeragatik beragatik (herrialde azpigaratuetan tokiko erakunde batzuek —beren baliabide propioez baliatuta askotan— aurrera eramaten dituzten proiektuak) eta ezinbesteko arrazoiengatik, halakoak beste jarduera eremu batzuetan baino eragin handiagoa dutela, zailagoa gertatzen da justifikazioa beste dirulaguntza lerro batzuetan erabiltzen den zorrotasun maila berarekin egin dadin. Berezitasun horiek guztiak direla medio, GGKE-en kolektiboak eskatu du Dirulaguntzen Lege Orokorra berariazko arautegi batean gara dadin garapenean laguntzeko ematen diren laguntzen arlorako.

*Jarraipen batzordeak: Guztira 2.599 mila euroko zenbatekoarekin emandako sei dirulaguntzatan, hitzarmena gauzatu da diru-laguntza jaso duen erakunde*



*bakoitzarekin; ordea, ez dago erasota hitzarmen horien klausuletan aurreikusten den Jarraipen-batzordea eratu denik (D akatsa).*

## ALEGAZIOA

Eragozpenak izan ohi dira lankidetza hitzarmen batzuetan ezarritako jarraipen batzordeak eratzeko, baina, hala ere, sail eskudunaren ordezkariak eta dagozkien helburuak osatzen dituzten jardueren kontrol eta jarraipenatarako aztertutako dirulaguntza jaso duen sozietatearen ordezkariak hainbat aldiz bildu dira.

*4.5 Garraio defizitari diru-laguntzak: 77/2000 Foru Dekretuak AFAREN eta garraio publiko erregularreko zerbitzuen emakidadun ziren enpresen artean urteanitzeko hitzarmenak izenpetzea aurreikusten zuen. Nolanahi dela ere, eta 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera bidaiarien linea erregularren kostuak kalkulatzeko parametro objektiboak ezarri zituen 1367/2005 FA baliogabe utzi ondoren, partzialki 285/2006 FAK aldarazitakoa, Diputatuen Kontseilu bitartez 2007ko maiatzean AFAK eta garraioaren emakidadun diren enpresen artean izenpetzeko kontratu-programaren testua onetsi zen. 2007ko uztailan eta abenduan 9 enpresa emakidadunetatik 8ri zegozkien kontratu-programak izenpetu ziren eta azken enpresak 2008ko azaroan izenpetu zuen; honi, 2007ko ekitaldian zehar 2007ko uztailaren 26ko 583/FAN aurreikusitako defizita kalkulatzeko metodologia ezarri zitzaion. 2007ko ekitaldian zehar emandako diru-laguntza, kontratu programetan aurreikusitako kalkulu-metodoa ezarriz 2.468 mila eurokoa izan da eta 255 mila eurokoa kontratu-programa izenpetu ez zuen enpresarentzat, foru aginduan barne hartutako metodologiatik eratorriak. Kopuru horiezaz gain, diru-laguntza lerro honetan emakidadunak berak ematen duen demandaren zerbitzu-kostuaren zati bati aurre egiteko 235 mila euro erregistratu dira eta 295 mila euro erregistratzeko daude, aurreko ekitaldiko likidazioei dagozkienak.*

*2006ko ekitaldian, AFAK fiskaltzari lehenagoko diru-laguntzekin lotutako jarduerak jakinarazi zizkion eta gaur egun, kontu hori Vitoria-Gasteizko Epaitegi batean instrukzio fasean dago.*

*Kontratu-programa ez ezik, bidaiarien garraio erregularreko sei lerroren enpresa emakidadunari emandako diru-laguntzak ere aztertu dira, 1.708 mila euroko zenbatekoa egin dutenak eta honako ondorio hauek eskuratu dira (E akatsa):*

- Aztertu ditugun lerroetatik bitan, 409 mila euroko gastua egin dutenetan, emakidadunek ez dute kontratu-programetan finkatutako tarifak kobratu direla egiaztatzeko dokumentazio egiaztatagarria igortzen.*



## ALEGAZIOA

Kasu guztietan, diruz lagundutako garraio lineen esleipendunek idatziz bidali zituzten agiri horiek (txartelak salduz izandako diru sarreraren zerrenda xehatua).

- *Aztertu ditugun sei lerroetatik bitan hutsik egindako bidaien kontzeptuan (autobus gordelekuetatik ibilbidearen hasiera gunera arte) 37 mila euroko diru-kopuruak ordaindu dira; ordea, kontzeptu hori aurreikusitako gabe dago dagozkien fitxa teknikoetan.*

## ALEGAZIOA

Oraingoan ere ezin etor daiteke bat adierazitako iritziarekin. Nahiz eta fitxa teknikoetan ez diren aipatzen garajeetatik ibilbidearen hasieraraino egiten diren bidaiak, Administrazioaren betebeharra da esleipendunari eragiten zaizkion kostu guztiak ordaintzea. Zenbaitetan, Administrazioak esleipenduna behartzen du bidaiaririk ezin har dezakeen ordu batzuetan bidaia hasiera ibilbidearen abiapuntutik. Esleipenduna izaten dituen kostuak, beraz, konpentsatu egin behar dira.

*4.6 Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren, Inbertsioen Plan Bereziaren eta Lurrazpiko Azpiegituren Plan Bereziaren diru laguntzak (14/1997 FA eta 49/2003 FD). Honako alderdi hauek azpimarratuko ditugu:*

- *2006rako aurrekontu exekuzioari buruzko martxoaren 8ko 2/2006 FAren 15. artikulua (2007ko ekitaldian indarrean zegoena, aurrekontu luzapenaren indarrez) Obra eta Zerbitzuen Foru Plana programatik txertatutako kredituetan gertatzen diren bajak bideratzeko esku ematen du. Berebat, 14/1997 FAn berak Plan horren likidazioa aurreikusten du, hau da, AFAn baliabide erabilgarriei buruzko egiazko datuak ezagutu ondoren, behin-betiko zuzkiduraren kalkulua; honela, bada, likidazio hori positiboa baldin bada, hurrengo ekitaldiko aurrekontuari txertatzen zaio. Aurreko horren guztiaren ondorioz, 2007ko hasierako aurrekontuetan barne hartua zegoen Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren hasierako zuzkiduraz gain, 13.980 mila euroan zifratua zegoena, ekitaldian zehar 26.850 mila euro txertatzea ekarri du, zeinetatik 26.116 mila euro Planaren beraren bajetatik eratorritako kreditu gaituei dagozkien; 387 mila euro 2006ko likidazioaren emaitzari eta 347 mila euro, erabili gabeko aurrekontu kredituari. Berebat, 2007ko ekitaldian zehar arribideko aurrekontuan 24.770 mila euroko zenbatekoa egin duten kredituei baja eman zaie, 2008ko urtekoan birbanatzeko. Honen guztiaren ondorioz, azken aurrekontua 16.060 mila eurokoa izan da.*
- *2007ko ekitaldian hautatutako zortzi espedienteen azterketatik, 3.714 mila eurokoak eta lehenago urteetan 6.626 mila euroko zenbatekoarekin emandako hamabi diru-laguntzari egindako jarraipenetik, zera azpimarratu behar dugu:*



- *2.566 mila euroko lau espedientetan, exekuzio aurrekontua atzerapenez aurkeztu da (26 egunetik 9 hilabetera bitartean) eta aurrekoetatik bitan eta beste batean, 936 mila euro egin dutenetan, proiektuarekin baterako dokumentazio administratiboa atzerapenez aurkeztu da (22 egunetik 9,5 hilabetera). Bestalde, beste bi espedientetan finantzaketako behin-betiko plana edo toki erakundeak gauzatutako obren kontratazioari dagokion dokumentazioa atzerapenez aurkeztu da (1,6 eta 14,5 hilabete), hurrenez hurren, 909 eta 590 mila euroko zenbatekoarekin.*

## ALEGAZIOA

Proiektuak aurkeztean izandako atzerapenei dagokienez, esan behar da ezen, praktikan, proiektuak lehenik eta behin Foru Planerako Zerbitzuari aurkezten zaizkiola, zerbitzu horrek beharrezko oharpenak egin dakizkion proiektuaren idazleari (Aldundiak berak bultzatzen du praktika hori, eta jaso egiten da esleipena, baldintzak, betekizunak eta izapiddeen gainerako alderdi garrantzitsuak banaka jakinarazteko foru aginduetan), ohar edo zuzenketa gisa, egokitasun teknikoaren eta arrazionaltasun ekonomikoaren betekizunak bete daitezten. Eta akatsak zuzendu eta konpondu ondoren, hain zuzen, ematen zaio proiektua Arabako Foru Aldundiari, eta erregistratzen da haren sarrera. Jokatzeko modu horrek, praktikan, proiektuen aurkezpen “ofiziala” atzeratzen du.

Obra motaren arabera, baliteke toki erakundeak proiektua esku artean izan arte behar dituen baimen eta lizentzien berri ez izatea, horregatik proiektuaren aurkezpena berandutzeak baimenen berandutzea dakar.

- *3.593 mila euro egin dituzten sei espedientetan, ez da aurkeztu proiektuarekin batera doan dokumentazio administratibo guztia eta horietako bitan, gainera, 1.054 mila euroko zenbatekoarekin, ez da proiektua aurkeztu.*

## ALEGAZIOA

Aurreko paragrafoari eginiko alegazioan horrek izan ditzakeen arrazoietakoa bat adierazi da. Bestalde, erakundeek eman beharreko baimenei dagozkien agirik atzerapen handiak sortzen dituzte. Halakoetan, atzerapena ezin egotz dakioke sustatzaileari, batzuetan baimena emateko ebazpena urtebete baino gehiago luzatzen da, eta toki erakundeek ezarritako epeak ez betetzera behartuta aurkitzen dira.

- *Lau espedientetan, berriz, 1.121 mila euro egin dituena, ez dago erasota obrak hartzeko akta gauzatzean Foru Planaren zerbitzuko teknikari bat bertan egon denik; ez eta, 748 mila euroko espediente baten zuzinketa akta egiterakoan ere.*



## ALEGAZIOA

14/1997 Foru Arauan xedatuta dago, zuinketa eta harrera aktak egiten direnean, Foru Planerako Zerbitzuak izendatutako teknikari bat joango dela. Joango dela baino ez da aipatzen, eta ez da ezartzen aktak izenpetzeko beharririk.

### **II.A.5 LANGILEEN GASTUAK**

*5.1 Kontratazioa Lan poltsak kudeatzeko sistemak ez du uzten gerora egiaztatzen AFak egindako kontratazioetan poltsa horietan finkatutako hurrenkera gorde dela.*

*Komenigarria litzateke gerora lan poltsen kudeaketa egiaztatzea bideratuko duen sistema finkatzea.*

## ALEGAZIOA

Bitarteko funtzionarioei eta programako bitarteko funtzionarioen kontratazio guztiak ukitutako sailei eta Arabako Foru Aldundiko Langileen Batzordean ordezkatuta dauden talde sindikalei jakinarazten zaizkie, kudeaketaren jarraipena egin ahal izateko eta aplikatzeko arautegia betetzen den ziurtatzeko, nahiz eta interesdunek kudeaketa hori ere kontrola dezaketen. 2006. urtean eta 2007. eta 2008. urteetan zehar kontrol hori sendotu egin zen Arabako Foru Aldundiak hartutako neurrien bitartez. Neurri horietako bat da, adibidez, indarrean diren lan poltsen egoera eguneratuari buruz hilero argitalpena ateratzea, iragarki tauletan nahiz web orriaren barruko lan publikoko atalean. Ildo horretatik, lan burtsen kudeaketa okerra dela eta ez da aurkeztu erreklamaziorik ez errekurtsorik izendapenen administrazio ebazpenen aurka.

## **B GIZARTE ONGIZATERAKO FORU INSTITUTUA (GOFI)**

### **II.B.1 KONTRATAZIOA (Ikus B.5 Eranskina)**

*1.1 Ondasun, zerbitzu eta hornigaiak erosteko, horien urteko gastuak, kontzeptu homogeneoka hartuta, kontratu txikietarako ezarrita dauden mugak gainditzen baditu eta urteroko gastu hori aldakorra dela aurreikusten bada, gure ustez, zer behar den, lizitazioak edo eskaintzak eskatu beharko lirateke, aleko-prezioka. Izaera bereko erosketak, 1.374 mila euroko zenbatekoarekin egin direla ikusi dugu (ikus B.5 eranskina).*

## ALEGAZIOA

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen antolaketa egitura zabala, erabiltzaileei zuzeneko laguntza emateko zentro ugariak, eta halakoek ongi funtzionatzeko behar diren askotariko produktu eta zerbitzuak direla medio, oso zaila da aurrez zehaztea azken horien urteko kontsumoa. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen ohiko jarduna da kontratu txikiaz





baliatzea, hori egitea posiblea den guztietan, hiru eskaintza eskatuta hornitzaileei, ahalik eta baldintza onenak lortzearren, nahiz eta kontratu txikiek hori eskatzen ez duten.

Eskuratze homogeneo batzuk xeheki erakusten dituen taulan, lehen bost kontzeptuei dagokienez, parentesi artean (Indesa lantegiak) ageri dutela, esan behar dugu INDESA lantegiei eginiko plastikozko produktuen hornikuntzak direla, blister eta zorrokatze lanetarako. Petroliotik eratorritako plastikozko produktuen eskuratzeek prezioetan gorabehera handiak izaten dituzte; izan ere, lau hornitzaileekin batera balioztatzen da etengabe kalitatearen eta prezioaren arteko erlazioa, eta balioztapen horren arabera erosten zaio bati edo besteari, aurreko binomio hori aintzat hartuta betiere. Bezeroek produktuak paketatzeari buruz egiten dituzten eskakizunen ondorioz, plastikoaren kalitatea mantendu behar da; baina hornitzaileari prezioa mantendu behar izanez gero kalitate hori gutxitu egingo litzateke. Gainera, askotan, bezeroak berak eskatzen dizkigu homologatuta dituen kalitateak eta materialak; orduan, bezeroak homologatuta duen hornitzaile bakarrari erosi behar diogu produktu homologatu hori.

*1.2. Administrazioiko hiru kontratutan dagokion luzapena gauzatu gabe zerbitzuak ematen eta erosten jarraitu da, 189 mila euroko zenbatekoarekin.*

## ALEGAZIOA

Eranskinean aipatutako kontratuak zehazten ez direnez, ezin egin dakioke alegaziorik ohar honi, formari dagokiona, edozelan ere.

*1.3 Elikagaien horniketa kontratatzeke espedientean, 2007ko ekitaldian ogi, esne, arrai izoztu eta helduentzako prestakin nutrizionalei dagokien gastua 501 mila eurokoa izan dena, esleipen irizpidetzat Vitoria-Gasteiz udalerrian banaketa zentro bat izatea hartzen da; ordea, irizpide hau kontratistaren antolamenduari dagokio eta ez kontratuaren xedeari (A.1 akatsa).*

## ALEGAZIOA

XIII. Ataleko 2. puntuan (Esleitzeko oinarrizko irizpideak), produktu galkorretarako (ogia, esnea, legatz izoztua) Gasteizko udalerrian banaketa zentro bat edukitzea jarri zen irizpideen artean. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak, produktu galkorren hornikuntzari dagokionez, Gasteizen banaketa zentroa edukitzea kontratuaren xedeari zuzenean loturiko balioztapen irizpidea da, zentroen beharrezan erantzun zuzen eta eraginkorra eman ahal izateko. Horrenbestez, ezin etor daiteke bat ohar honekin, egoki iritzita eskaintzak balioztatzeke irizpide hori sartzea.





## II.B.2 HITZARMENAK

*2.1 Gizarte zerbitzuekin hitzarmenak: Institutuak egoitza eta eguneko zentroen laguntza zerbitzuen hainbat prestazio finantzatzen ditu, toki entitate, enpresa pribatu, elkarte eta bestelako erakundeekin sinatutako hitzarmenen bidez, ondotik zehaztutako arauketa babes harturik:*

- *5/1996 legea, txosten hau egin dugun datan Gizarte Zerbitzuen 12/2008 legeak baliogabetutakoa.*
- *Eusko Jaurlaritzaren 40/1998 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoaren gizarte zerbitzuen baimena, erregistroa, homologazioa eta ikuskaritza arautzen dituena; honenbestez, laguntza zerbitzuak eman nahi dituzten erakundeek dagokion homologazioa eskuratu behar dute.*
- *Eusko Jaurlaritzaren 41/1998 Dekretua, hirugarren adinekoentzako egoitza zerbitzu sozialei buruzkoa, 125/2005 Dekretuak eta 195/2006 Dekretuak aldarazitakoa.*
- *Eusko Jaurlaritzaren 202/2000 Dekretua, mendeko diren zaharrentzako eguneko zentroei buruzkoa.*
- *Eusko Jaurlaritzaren 64/2004 Dekretua, EAEn gizarte zerbitzuen erabiltzaile eta profesionalen eskubide eta obligazioen gutuna onesten duena.*
- *39/2007 Foru Dekretua, Arabako Lurralde Historikoan mendekotasun egoera aitortzeko prozedura, beregain izaten laguntzen duen sistemaren zerbitzuak jasotzeko eskubidea eta mendekoei eskaini beharreko laguntzak arautzen dituena.*
- *45/2007 Foru Dekretua, honen bidez, mendekotasun egoera onartuta ez duten pertsonak Arabako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Foru Sarera sartzeko eta lekuz aldatzeko erregimena arautzen duen arautegia onartzen da. Pertsona horiek sarearen erabiltzaile izan behar dute.*

*Ondotik, 2007ko ekitaldian aurreko ekitaldiarekiko kontzeptu nagusien gastuak izan duen bilakaera erakutsiko dugu, eguneko zentroak eta egoitzak kontzeptuetan, hain zuzen ere:*

GIZARTE ZERBITZUEN HITZARMENAK	Mila euro					
	EGUNEKO ZENTROAK		EGOITZAK		GUZTIRA	
ZERBITZUA EMATEN DUTEN ENTITATEAK	2006	2007	2006	2007	2006	2007
Toki Entitateak .....	841	930	1.226	1.385	2.067	2.315
Elkartek .....	248	338	5.631	6.641	5.879	6.979
Erakunde erlijiosoak .....	74	90	1.840	2.190	1.914	2.280
Besterik .....	-	-	171	176	171	176
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.163</b>	<b>1.358</b>	<b>8.868</b>	<b>10.392</b>	<b>10.031</b>	<b>11.750</b>



*Institutuak hainbat erakunde publiko eta irabazi asmorik gabeko erakunde pribaturekin gauzatutako lankidetzak hitzarmenak aztertu ditugu eta 2007ko ekitaldian zehar zerbitzuak areagotu direla ikusi dugu, plaza, profesional eta laguntza programen kopuruek gora egin dutelako.*

*Enpresa pribatuek emandako zerbitzuen igoaldia aintzat hartuta, komenigarria litzateke zerbitzu horien handitzeak argitara ematea, zerbitzua emateko beharrezko betekizunak betetzen dituen zeinahi enpresak horretarako aukera izan dezan.*

## ALEGAZIOA

Bai Eusko Legebiltzarraren urriaren 18ko 5/1996 Legean (Gizarte Zerbitzuena) —2007ko ekitaldian indarrean zen legean, alegia—, bai Eusko Legebiltzarraren abenduaren 5eko 12/2008 Legean (Gizarte Zerbitzuena) —hots, aurrekoa ordezkatu zuen legean— jasotzen dute ekimen pribatuak ardura publikoko gizarte zerbitzuak ematen esku hartzeko aukera, formula bat baino gehiago baliatuz (zuzeneko kudeaketa, administrazio kontratuen araudiaren esparruaren barruko hitzarmenaren erregimena, eta etekinik ateratzeko asmorik gabeko erakundeekiko hitzarmenak). Jarduera esparru horretan txertatzen dira Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak hartutako erabakiak, gizarte zerbitzu horiek emateko bere baliabideak optimizatze aldera.

### C. GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA (GFE)

#### II.C.1 DIRU-LAGUNTZAK

*1.1 Gazteria-programak garatzeko elkarte, entitate eta gazte taldeei emandako diru-laguntzei dagokien gastua justifikatzeko, 67 mila euroko zenbatekoarekin, soil-soilik diruz lagundutako zenbatekodun ordainagiriak aurkezten dira eta ez diruz lagundutako jardueren guztizko zenbatekoarekin.*

## ALEGAZIOA

2009ko ekitaldiko oinarri arautzaileetan (2009ko maiatzaren 18ko ALHAOn —56. zk.— argitaratu ziren), atzemandako akatsa zuzendu zen, eta dirulaguntzak justifikatzeko moduari buruzko xedapena honela idatzita geratu zen:

“Ordainagiriak originalak izango dira edo hala denean, Gazteriaren Foru Erakundeak konpultsatutako kopia eta egindako gastu osoarengatikoak.”

#### II.C.2 KONTRATAZIOA

##### *Kontratu txikiak*

*2.1 Bost hornitzaileei elikagaiak hornitzetik eratorritako 113 mila euroko gastuak kontratu txikiak gauzatu ahal izateko finkatutako mugak gainditu ditu; izan ere,*



*egokiagoa baita lizitazioak edo eskaintzak egiteko eskatzea, zer behar den, aleko prezioen arabera.*

## ALEGAZIOA

Ohar honetan aipatzen den elikagai hornikuntza Barriako aterpe etxerako baino ez da egiten, Gazteriaren Foru Erakundearen beste zentro batzuek bestela antolatuta daude eta elikagaiei loturiko dituzten zerbitzuak emateko.

Hainbat aldiz jarraian, aurreko beste urte batzuetan hornikuntza horiek sortutako gastuek haiek kontratatzekeko administrazio izapideak kontratu txikien bidez egitea ahalbidetu zuten. Era berean, 2007rako hasierako aurreikuspenek ere kontratatzeke era sinplifikatu hori erabiltzea ahalbidetzen zuen.

Hala eta guztiz ere, 2007. urtean zehar aurrez ezin ikus zitezkeen gorabeherak gertatu ziren, eta elikagaien hornikuntzak sortutako gastua nabarmen gehitu zen Barriako aterpe etxean. Espejoko aterpe etxea ixtea erabaki zen 2007ko martxoan, instalazioak zeharo berritzearen, bai eta Carlos Abaitua aterpe etxean berritze lanak egitea ere, bost hilabetez. Aipaturiko instalazioen erabiltzaileei emandako hitza betetze aldera, aurretik erreserbak eginak zituztenean, alegia, Barriako aterpe etxera eraman ziren.

### **2007ko esleipenak (ikus C.3 eranskina)**

*2.2 Carlos Abaitua aterpetxean bazkariak emateko zerbitzuaren espedientean, 2007an 45 mila euro egin dituen, esleipen irizpideen artean enpresaren egitura eta esperientzia moduko irizpideak baloratu dira; ordea, alderdi horiek lizitazioan egiaztatu behar dira eta ez daitezke aintzat hartu esleipena egiteko orduan (A1 akatsa).*

## ALEGAZIOA

Baldintza agirietan ezarritako irizpideek kontratuaren xedearekin bat etorri behar dute, ez enpresa eskaintzaileek izan behar duten kontratatzeke gaitasunaren alde aurretiko balioztapenarekin; hain zuzen, enpresa horiek, alde aurretik, gaitasun horren egiaztagiriak eskatzen zaizkie.

Lehiakide guztien gaitasuna egiaztatu eta gero, eskaintza abantailatsuena hautatu ahal izateko irizpideak erabili behar dira, kontratuaren xederako egokiak diren irizpide batzuk, betiere. Kasu horretan, eskainiriko menuen ezaugarriak, zerbitzuaren kostua eta beste irizpide gehigarri batzuk erabili ziren, hala nola zerbitzua antolatzeko erari buruzko proposamen bat, ordutegiak eta abar, bai eta kontratu honi bakarrik dagozkion enpresaren beste laguntza neurri batzuek, kalitate eta kontroleko sistemak, eta abar ere. Horrenbestez,



ezin etor daiteke bat ohar honekin, egoki iritzita eskaintzak balioztatzeko irizpide horiek sartzea.<sup>14</sup>

*2.3 Guztira 249 mila euroko zenbatekoarekin esleitu diren bi espedientetan, esleipen irizpideak, oinarri-arau teknikoan Pleguaren arabera eta AKPPetan ezarri diren moduan, orokorrak eta zehaztugabeak dira (A2 akatsa). Honez gainera, bi espediente hauetan eta beste batean, 45 mila eurokoan, esleipenerako oinarri diren txosten teknikoek ez dituzte egoki arrazoitzen lehiatzaile bakoitzari emandako puntuaketak (B2 akatsa).*

## ALEGAZIOA

A2 akatsari dagokionez (Udalekuak 2007, 2. lotea, eta Gela programa 2007 kontratuak), 92/50/EEE Zuzentarauan zerbitzu kontratu publikoak esleitzeko prozedurak koordinatzeari buruz adierazitakoa aipatu behar da hemen; hala, 3.2 artikuluan ondorengoa dago xedatuta:

“Erakunde esleitzzaileek zerbitzu-emaielen artean bereizketarik gerta ez dadin zainduko dute”.

Era berean, Europako Batzordeak, 2001ko urriaren 15eko interpretatzeko jakinarazpenean hau esan zuen:

“Eskaintzak balioztatzeko erabiltzen diren irizpide guztien ezaugarria da ezen, adibidetzat aipatutako irizpideetan bezala, haiek guztiek kontratuaren xede den zerbitzuaren izaerari buruzkoak izan behar dutela, edo zerbitzu hori gauzatzeko baldintzei buruzkoak. Irizpideon xedea da botere esleitzzaileek eskaintzak era objektiboan erkatu ahal izatea, kontratu jakin batean haien beharrezanean zeinek erantzuten dien hobekiena erabaki dezaten. Esleitzeko irizpide orok produktu edo zerbitzu baten berezko ezaugarriak balioztatzea ahalbidetu behar du.

Esleitzeko irizpideek, beraz, kontratuaren xedeari loturik dagozkie, edo kontratua gauzatzeko baldintzei”.

Hala, bada, kontratazio organoak ahalmen zabalak dauzka irizpideak hautatzeko —era arrazoituan, betiere—, erantzun nahi zaion interes publikoa lortzeko eskaintzailerik onena aukeratzeko azken helburuarekin.

Legez, irizpide horiek oinarritzko ezaugarri hauek izan behar dituzte: objektiboak izatea; administrazio klausula berezien agirian jasota egotea; eta garrantzi handienekoetatik hasita gutxienekoetara zerrendaturik adieraztea.

Administrazio Kontratazioko Kontsulta Batzordeak hau dio urriaren 24ko 28/1995 txostenean:

---

<sup>14</sup> HKEE honek ez die erreferentziarik egiten AKPPren irizpideei, esleipenaren txosten teknikoan erabilitako irizpideei baizik.



“Aurkitutako auzia argitu behar da hura planteatzeko baliatu den modu orokorrean, bateratzen saiatuz administrazio kontratuari dagozkion publizitatearen eta gardentasunaren printzipioak, batetik, eta kontratazio organoak lehiaketak ebazteko, zentzu tekniko eta juridikoan, duen ahalmen maila, bestetik, aurreneko printzipio horiek betetzeak kontratazio organoaren jarduna eragoz dezan saihestuta, horrek lehiaketaren ebazpena automatiko bihurtuko bailuke, eta Espainiako legedian, enkantean ez bezala, lehiaketak ez du izaera hori”.

Ezin etor daiteke bat oharrarekin, bi kontratuetan eskaintzak balioztatzeko ezarriko irizpideek badituztelako indarrean den legediak eskatutako oinarritzko ezaugarriak, eta bat datozelako Europako zuzentarauekin eta doktrinarekin.

B2 akatsari dagokionez (bi kontratu horiek berak eta Carlos Abaitua aterpe etxeko janari zerbitzuaren kontratua), egindako txosten teknikoak ikusita, esan behar da aurkeztutako eskaintzen edukia zabal balioztatu zutela, nahiz eta, formula hutsen bidez ezin baliozta daitezkeen irizpideei dagokienez, ezinezkoa den emaitza zehatz bat agerian utziko digun algoritmo matematiko bat erakustea. Ildo horretan, txostena koherentea da kontratazio agirietan aurretik ezarritako irizpideekin, kontratazio mahaia irizpide horiek balioztatzeko duen eskumen teknikoa aplikatuta, aurreko atalean adierazitakoarekin bat, betiere.

*2.4 “2007ko ikasgelen” jarduerak antolatzea xede duen espedientean, 29 mila euroko zenbatekoarekin esleitutakoan, AKPPetan barne hartutako esleipen irizpideak ez daude balio-neurtuak (B1 akatsa). Honez gainera, bai espediente honetan, bai Udalekuak 2007koan, hurrenez hurren prezioaren ehuneko 60a eta ehuneko 70a zerbitzua ematen hasi aurretik aurreratatu da, hori arrazoituko duen txostenik batere egin gabe (C1 akatsa).*

## ALEGAZIOA

“Gela programa 2007” delako programako jarduerak antolatzea xedetzat duen espedientean esleitzeko irizpideak haztatuta ez daudela dioen oharrarekin ere ezin etor daiteke bat. Herri Administrazioen Kontratuen Legearen testu berrituko 92.3 artikuluan adierazten da klausulen agirietan zehaztu behar direla enpresekin negoziatzekoak izango diren alderdiak, eta hau prozesu negoziatua izaki, alderdi edo irizpide horiek klausulen agirietan ezarrita daude, nahiz eta egia izan irizpideak ez direla haztatzen, lehiaketan gertatzen den bezala, hor negoziatzeko aukerarik ez baitago.

Aipatutako bi kontratuetan kontratuaren prezioaren zati bat aurreratzeari dagokionez, administrazio kontratu berezitzat jotzea —Herri Administrazioen Kontratuen Legearen testu berrituan ezarritakoaren ildotik— izan zela arrazoa haien administrazio klausula berezien agirietan aukera emateko zerbitzua ematen hasi baino lehen zenbateko batzuk aurrez ordaintzeko. Gaineratu behar da ohiko praktika dela halako zerbitzu motak ematean, baita arlo pribatuan ere.



## **D. FORU ENPRESA PUBLIKOAK**

### **II.D.1 EROSKETAK ETA ZERBITZUAK: KONTRATAZIOA (IKUS D.5 ERANSKINA)**

*1.1 Lehia printzipioa: Naturgolf, SA sozietateak zuzenean kontratatu du bi obra egitea, 71 mila euroko zenbatekoarekin, lehia printzipioa errespetatu gabe (A4 akatsa).*

## **ALEGAZIOA**

1. Greenak konpontzeko zerbitzua, sabotajea dela eta.

Urturiko golf zelaiaren sabotajea egin zuten 2007ko udan; hain zuzen, ibilbideko 18 greenetako 6tan soropila erre zuten herbizidaz. Green horiek konpontzea premiazkoa zen, jokoari eragiten baitzion, eta, konponketen berezitasunagatik, kirol soropilean espezializaturik enpresa batek egin behar zituen.

Une hartan, golf zelaietarako mantentze zerbitzua zerbitzu hori kontratatzeko egin zen lehiaketan parte hartutako enpresetako batek zuen esleituta, eta lehiaketa hartan publizitatearen, lehiaren eta objektibotasunaren printzipioak beteak ziren.

Egoera hura NATURGOLF, SArentzat premiazkoa zela aintzat harturik —izan ere, sozietatearen jarduera bertan behera gelditu zitekeen urte osoko jarduera gehieneko aroan—, erabaki zen zerbitzu hori berehala egiteko eskatzea zelaiaren ohiko mantentze lanak bere gain zituen enpresari.

Bestalde, greenetan egin beharreko lanak zelaiaren mantentze integralaren barruan daude, eta halakoak zabaldu egin ziren, erabat ustekabearen agerturiko arazo bati konponbidea emateko; hala, egin behar izan ziren lanak hasieran aurreikusitako gehigarriak ziren, baina teknikaren aldetik zaila zen ohiko lan horietatik bereiztea.

2. Praktikatzeko kantxa biltegirako eraberritzea

Lagrango golf zelaia zabaldu egin zen eta, kantxa estalia erabili gabe geratu zen, praktiken eremua tokiz aldatu zelako, eta erabaki zen eraikin hura aprobetxatzea makinak han gordetzeko, egituraren aldaketa osagarri batzuk egin eta gero. Horretarako, obra proiektu bat agindu zen, Lagrango Udalak eskatuta, eta enpresa batek 26.063,20 euroko aurrekontua (BEZa barne) egin zuen; zenbatekoa 30.000 eurotik behera zegoenez, obra kontratu txikitzat jo zen, eta hura fakturaren bidez justifikatu zitekeen.

Gero, biltegiaren inguruko kanpoaldea egokitzeko obra egin zen, eta obra horretan eremua hesitu zen eta hormigoizko plataforma batzuk jarri ziren, garbitoki gisa. Obra hori ez zegoen Udalarian hasieran aurkezturiko proiektuan, eta haren kostua 5.469,40 euro izan zen.

Beraz, argi bereizitako bi obra dira, obra kontratu txikitzat izapidetu zirenak, zegokien zenbatekoa zela eta.

Ezin etor daiteke bat Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren iritziarekin, kontratu bakarra dela eta aurreko bi prezioen batura dagokiola iritzita.



*1.2 Lizitazio atalean aintzat hartu behar ziratekeen esleipen irizpideak: Lau sozietateri dagozkien hamahiru kontraturen esleipenean, 4.600 mila euro egin dutenetan (Araba Garapen Agentzia, SA: Lau kontratu 1.633 mila eurokoak; Arabarri, SA: 1.445 mila euro egin duten bost kontratu; Arabako Kalkulu Zentroa, SA: 1.097 mila euro egin duten hiru kontratu; eta Arabako Lanak, SA: 425 mila euro egin duen kontratu bat) esleipen irizpide modura lizitazio atalean eskaintzak onartzeko betekizun modura aintzat hartu behar ziratekeen haiek baloratu dira (esate baterako: baliabideak, lantaldearen gaitasuna, eskaintzen betekizun formalak betetzea, egindako antzeko lanak eta egin beharreko lanen gaineko ezaguera) (B1 akatsa).*

## ALEGAZIOA

ARABA GARAPEN AGENTZIA, SAri dagokionez, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak salatzen dituen irizpideak hauek dira, besteak beste; gremio parte hartzaileen prestakuntza; langile teknikoak, eta kontratua gauzatzen erabiliko diren baliabide osagarriak.

Irizpide horietan balioztatzen diren aipaturiko alderdiak ez dira kaudimen tekniko frogatzeko baldintza gisa hartzen, baizik eta lehiakideek lan zehatz honetarako proposatzen duten eraikuntza metodoa, hots, haien plangintza, lan hauei dagozkien baliabide materialekin eta lan konpromiso pertsonalekin bat datorrela eta koherentea dela ziurtatzeko nahitaezko modu gisa. Onartzeko irizpide gisa kontratista sailkatuta egon beharrak (kaudimen tekniko) ez du zerikusirik proposaturako lan programaz nahitaez egin beharreko balioztapenarekin, nola baliabide materialei dagokienez (adib., makineria zehatza, gremio parte hartzaileak) hala giza baliabideei dagokienez (lanaren aldi bakoitzean adituak diren pertsonen konpromisoa, lanaren beharrak aintzat hartuta).

ARABARRI, SAren kasuan, aipaturiko kontratuak esleitzeko oinarritzat baliatu ziren irizpideak ondorengoak izan ziren:

- 1- Proposamenaren balioztapen ekonomikoa eta haren justifikazio zuzena: 15 puntu.
- 2- Lan taldearen eskaintzailearen osaera eta prestakuntza teknikoak: 15 puntu.
- 3- Lan metodologia eta proposamenaren eduki teknikoak: 25 puntu.
- 4- Esperientzia antzeko lanetan: 20 puntu.

Irizpide horretan lantaldearen osaera eta prestakuntza tekniko eta lan metodologia eta proposamenaren eduki teknikoak balioztatzen dira, baina ez dira kaudimen tekniko frogatzeko baldintza gisa hartzen, baizik eta lehiakideek lan zehatz honetarako proposatzen duten eraikuntza metodoa, hots, haien plangintza, lan honi dagozkion baliabide materialekin eta lan konpromiso pertsonalekin bat datorrela eta koherentea dela ziurtatzeko nahitaezko modu gisa. Onartzeko irizpide gisa kontratista sailkatuta egon beharrak (kaudimen tekniko) ez du zerikusirik proposaturako lan programaz nahitaez egin beharreko balioztapenarekin, giza baliabideei eta lan metodologiari eta proposamenaren eduki teknikoari dagokienez. Esperientzia balioztatzea ARABARRIren kontratazio agirietatik kendu zen 2008. urtean.





ARABAKO KALKULU GUNEA, Sari dagokionez, oraingoan epaitegiak aipatzen dituen kontratuei aplikaturiko esleipen irizpideak hauek izan ziren:

- Deskribatutako negozio arloa ezagutzea, proposatutako lan taldearen curriculumetan egiaztatuta (%30).
- Aipatutako garapeneko ingurune teknikoak hobeto ezagutzea, proposatutako lan taldearen curriculumetan egiaztatuta (%40).

Hemen aztergai ditugun kontratuak dagozkie Ogasun eta Nekazaritza Sailetako aplikazio guztiak zuzendu, egokitu eta mailaz igotzeko mantentze zerbitzuei eta Arabako Foru Aldundiarentzako beste garapen informatiko txiki batzuk egiteari.

Kontratu horien esleipenean, azaldutako irizpideak aplikatuz, esleitu beharreko proiektuen betekizun eta ezaugarri berezi eta zehatzei hobekiena egokitzen zaien lan taldea aurkeztzen zuen enpresari esleitzea zen helburua. Horretarako, negozio arloari buruzko ezagutzaren kalitatea hobea dela balioztatu behar da, bai eta jarduera aurrera eramango den ingurune teknikoen eta erabili beharreko lengoaien eta tresnen ezagutzaren kalitatea ere, batzuk zein besteak aski xehaturik azalduta zeudela kontratazio agirietan, proiektua ahalik eta kalitate eta berme handienekin aurrera eramatea lortze aldera, betiere.

ARABAKO LANAK, SAren kasuan, 425.000 euroko balioa zuen espediente bat zen, Espejoko (Gaubea) Sua itzaltzeko eta Salbamendurako Eskualdeko Unitatea eraikitzeko obrak gauzatzeko. Esleitzeko irizpide gisa balioztatu dira eskaintzak onartzeko lehiaketan kontuan hartu beharreko zenbait irizpide.

Ezin etor daiteke bat Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eginiko baieztapenarekin, hain zuzen, eskaintzak onartzeko lehiaketan kontuan hartu beharreko zenbait irizpide esleitzeko irizpide gisa balioztatu direla adierazi du; hartara, esleitzeko irizpidean agirietan jasota zeuden bezalaxe transkribatzen dira ondoren:

1. Eskaintza ekonomikoa: 0tik 50 puntura.

Eskaintza ekonomikoa balioztatzeko irizpidea hau da: Kontratatistak ehunekotan beheratzen duen puntu bakoitzagatik, 5 puntu ematea, gehienez hamar puntu behera daitezkeela lehiaketa prezioetik; horrenbestez, atal honetan lortzeko puntuazioa hau izango da:

$$\text{Puntuazioa} = 5 * (1 - A/B) * 100$$

A kontratatistak eskaintzen duen esleipen zenbatekoa da, eta B lehiaketako aurrekontua da.

Lehiaketa zenbatekotik hamar puntu beherago dagoen eskaintzarik aurkeztzen bada, hau egingo da.

Gehieneko puntuazioa emango zaio kontratua gauzatzeko kosturik txikiena proposatzen duen eskaintzari, eta gainerako eskaintzak honela puntuatuko dira:

$$(\text{Lehiaketako oinarritzko aurrekontua} - A) / (\text{Lehiaketako oinarritzko aurrekontua} - B) * 50$$





B eskaintzarik txikiena da eta A puntuatu beharreko beste edozein eskaintza.

Nolanahi ere, Kontratazio Mahaiak, esleitu baino lehen, kontratistari egokitzat jotako azalpenak eskatu ahalko dio, hark eskaintzen dituen prezioen fidagarritasuna egiaztatze aldera.

Eskaintzetako bat, kontratuei buruzko sektore legediko irizpideen arabera, ausarkerian ari delako presuntzioa izanez gero, baldin kontratua eskaintza horri esleitzen bazaio, behin betiko fidantza lehiaketako oinarritzko aurrekontuaren %20 izango da, BEZa barne, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen testu berritua onesteko ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuko 83.5 eta 36.4 artikuluetan xedatuta dagoenez.

2. Lan programen eraginkortasuna eta gauzatzeko bermea. Ordezkarri eta lan taldeei, makinei, teknologia modernoei eta obrak gauzatzeko baliabide osagarriari buruzko konpromisoak, eta haien egokitasuna obra proposatutako epean gauza dadin. Kalitatea Bermatzeko Planaren aplikazioa eta edukia: 0tik 25 puntura.
3. Proiektuaren eta obrako arazoen gainean eskaintzaileek duten ezagutza, proposatzen dituzten proiektu teknikoetatik, obra planetik eta unitateko prezioen azterketatik ondorioztatzekoa: 0tik 25 puntura.

Irizpide horretan baliabideak eta lantaldearen gaitasuna nahiz ezagutza balioztatzen dira, baina ez dira kaudimen teknikoa frogatzeko baldintza gisa hartzen, baizik eta lehiakideek lan zehatz honetarako proposatzen duten eraikuntza metodoa, hots, haien plangintza, lan honi dagozkion baliabide materialekin eta lan konpromiso pertsonalekin bat datorrela eta koherentea dela ziurtatzeko nahitaezko modu gisa. Onartzeko irizpide gisa kontratista sailkatuta egon beharrak (kaudimen teknikoa) ez du zerikusirik proposatutako lan programaz nahitaez egin beharreko balioespenarekin, nola bitarteko materialei dagokienez (adib., makineria zehatza, metaketak egiteko konpromisoak, etab.) hala giza bitartekoei dagokienez (lanaren fase desberdinetan adituak diren pertsonen konpromisoa, lanaren beharrak aintzat hartuta).

Aurreko guztia gorabehera, eta behin ARABAKO LANAK, SAko Barneko Kontratazio Jarraibideak onartu eta gero, geroagoko lehiaketetan gehiago nabarmentzen ari da esleitzeko irizpideak, batetik, eta kontratu bakoitzerako behar den berariazko kaudimen teknikoa, bestetik, bereizteko<sup>15</sup>.

*1.3 Arrazoitu gabeko esleipen-txosten teknikoak: Bi sozietateri dagozkien hiru kontraturen esleipenean, 1.001 mila euroko zenbatekoa egin dutenak (Araba Garapen Agentzia, SA sozietatearen bi kontratu, 954 mila eurokoak eta Arabarri, SA sozietatearen kontratu bat, 47 mila eurokoa) esleipena euskarritzen duten txosten teknikoek ez dituzte emandako puntuaketak arrazoitu (B2 akatsa).*

---

<sup>15</sup> Enpresei atxikitako giza eta gauzako baliabideak baloratu dira eta hori kaudimena egiaztatzeko neurria da eta ez kontratua esleitzeko irizpidea.



*1.4 Araba Garapen Agentzia, SA: - 79 milioi euroan esleitu zen poligonoak mantentzeko espediente batean, esleipena euskarrizten duten txosten teknikoak eskaintza ekonomikoaren balorazioan azpi-irizpide bat barne hartzen du, AKPPetan jasotakoa garatzen duena (B2 akatsa). Edonola ere, errorea gertatu da azpi-irizpide hori ezartzerakoan eta horren ondorioz, kontratuaren esleipena ez da txosten tekniko horretan jasotako irizpideak aplikatu izan balira puntuaziorik handiena eskuratuko zukeen lehiatzailearen alde atera (B3 akatsa).*

## ALEGAZIOA

Esan behar da ezen, nahiz eta agirian kontuan hartu beharreko irizpideak nahiz haien puntuazioa adierazirik zeuden, alderdi ekonomikotik bata bestetik oso urrun zeuden eskaintzak aurkeztu zirenez, txostenean zehaztu zela nola balioztatuko zen eskaintza ekonomikoa eta zein formula erabiliko zen, ausarkeriazko beheratzea izan zitezkeen eskaintzak saiheste aldera.

Hau da, jasotako eskaintzak arduratzen ari ziren teknikariek administrazio klausula berezien agirietan ezarritako irizpideak aplikatu zituzten, baina, jarduera horri dagokion nahierakotasun teknikoa baliatuz, haien barruan sartzeko moduko alderdi batzuen arabera interpretatu, garatu eta gauzatu ziren irizpideak, lehiaketan jarritako zerbitzua ongi gauzatzea bermatze aldera.

*1.5 Arabako Kalkulu Zentroa, SA: 2007ko urtean zerbitzu informatikoen enpresen alde zurrerako hautaketarako lehiaketak indarrean dirau, eta horretarako, esleipen irizpide modura kualifikazio tekniko-profesionala eta sozietatearen ezaugarri partikularretara egokitzeko gaitasuna finkatu ziren. Behin enpresa homologatuak hautatu ondoren, gai edo zerbitzu jakin baten kontratazioa gauzatzeko, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuari ekin zitzaion, hautatutako enpresak gonbidatuaz. 2007ko ekitaldian eta 277 mila euroko zenbatekoa egin zuten bi kontratu esleitzeko, kontratistak onartzeko diren irizpideak esleipen irizpide modura balioztatu dira. Sozietateak kontratazio indibidualak egiten dituenean, homologatutako hornitzaileei eskaintzak eskatzen dizkie eta horien ezaugarriak berriro baloratzen ditu (E akatsa).*



## ALEGAZIOA

Esan behar da Arabako Kalkulu Gunea, SAK kontratuen arloan aurrera eramate duen praktikan erabat bereizitako bi aldi daudela:

a) Homologazioko aldian, Arabako Kalkulu Gunea, SAK gauzatzen duen jardueraren inguruko proiektuak garatu ahal izateko baldintzak eta/edo gaitasunak dituzten enpresak hautatu nahi dira.

b) Proiektuak prozedura negoziatuaren bidez esleitzeko aldian, esleitu beharreko proiektuaren baldintza eta ezaugarri zehatzei hobeto egokitzen zaien lan taldea aurkezten duen enpresari esleitu nahi zaio proiektua. Horregatik balioztatu behar da aldi horretan negozioaren eta erabili beharreko lengoaien eta tresnen ezagutzaren kalitatea, proiektua ahalik eta kalitate eta berme handienekin aurrera eramatea lortze aldera, betiere.

Hori dela eta, kasu honetan ere ezin etor daiteke bat Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eginiko oharrarekin.

*1.6 Aztertu ditugun kontratuen exekuzioan ez dira APKLn aurreikusitako klausulak betetzen (C.1 akatsa). Zehatzago esanda:*

*Araba Garapen Agentzia, SA: - 86 mila euro egin dituzten bi kontratutan ez dira luzapenak gauzatu.*

## ALEGAZIOA

Ohar hau bi kontratu aipatzen ditu:

- Aholkularitza juridikoa (arlo zibila, merkataritzakoa eta kontrataziokoa)

2004ko uztailaren 9an izenpetutako kontratu horretako laugarren klausulan jasota dago zerbitzuen errentamendua “ondoaz ondoko urteetan luzatuko dela automatikoki, lau urtez genienez”, eta, hortaz, ulertze da ez dela beharrezkoa luzapen horiek jasotzeko eranskinik gehitzea, automatikoki luzatzen da eta.

- Administrazio eta hirigintza esparruetako aholkularitza zerbitzuak

2004ko martxoaren 26an sinatutako kontratuaren bigarren hizpaketan ezarri da kontratua “urtero luzatzen dela ulertuko dela, kontratua sinatu duten alderdietako batek denuntziatzen duenean izan ezik”. Alderdi batek ere ez du denuntziarik egin; orduan, automatikoki legez ezarritako gehieneko epera arte luzatzen dela ulertu behar da.

*Arabarri, SA:*

- *Guztira 176 mila euroan esleitutako bi kontratutan atzerapenak gertatu dira obren exekuzioan, AKPPetan finkatutako epeen aldaketa onetsi gabe.*



## ALEGAZIOA

Goiko oharra aztertzearen, aipatzen diren bi kontratuetan gertaturiko gorabeherak labur azalduko dira ondoren:

### 1- Santa Eulalia elizaren egitura zaharberritzeko proiektua

Hasieran, egitura sendotzeko lanak gauzatzeak eragin zituen proiektua eskuratzeko eta espedienteari amaiera emateko atzerapenak; izan ere, lan horiek ezinbestekoak ziren proiektua egin aurreko azterketak osatzeko.

Aldez aurreko lan horiek gauzatzeko, obrak kontratatzea ahalbidetzeko agiri bat idatzi behar izan zen. Kontratatzeko prozesua zaildu egin zen, lehiaketa bat esleitu gabe geratu zen eta.

Prozesu honetan proiektua esleiturik duen enpresa auzi prozesu batean dago, administratzaile judicial bat izendatuta, eta horrek zaildu egin du azken agiria ematea eta ordainsariak ordaintzea, horretarako datarik ez dagoela.

### 2- Kontrastan horma sendotzea.

Aurrekoa gorabehera, administrazio arazo batzuek obra berehala has zedin eragotzi zuten. A-2128 errepidea hurbil zegoenez, Arabako Foru Aldundiko Errepide Zerbitzuaren baimena eskuratu behar zen obrei ekin baino lehen. Baimen eskabidea 2006ko azaroaren 6an aurkeztu zen, baimenaren ebazpenean jasota dagoenez. Hala ere, baimen hori 2007ko abuztuaren 7 arte ez zen eman.

Ezin izan zen saihestu, alabaina, obrak eguraldia okerra zen hilabete batzuetan egin behar izatea. Udazkeneko eta neguko izozte ugariak zimendatze lanak eta hormigoizko hormaren lanak zaildu zituzten, eta, ondorioz, atzerapen handia izan zuen ezarritako epeei zegokienez. Hala, 2008ko otsailaren 7rako obraren %52 baino ezin izan zen gauzatu, eta martxoaren 31rako, %86. Obra 2008ko ekainaren 10ean likidatu zen.

Azpitarratu behar da ezen, obra gauzatzea oso konplexua zen arren eta aurkako gorabehera ugariengatik ere, obraren likidazioa %0,34 baino ez zela desbideratu esleipen zenbatekotik, zuzendaritza fakultatiboaz arduratzen ziren teknikarien lanari esker eta prozesu osoan zehar enpresak izan zuen laguntzeko jarrerari esker

Bi kasuetan, ARABARRI, Saren kontrola egon da, praktikan, bi kontratuen gauzapearen gainean, eta era inplizituan baimendu dira epearen luzapen horiek, nahiz eta ezi diren berariaz jaso akta batzuetan edo bestelako agiri ofizial batzuetan.

- *Guztira 104 mila euroko zenbatekoarekin esleitutako hiru espedientetan, sozietateak abuztuko hilabetea baliogabekotzat hartzea erabaki zuen gerora, eskaintzak hartzeko epea zehazteko ondorioetarako. Horrezaz gain, gutun-azalen irekiera atzerapenez egin da AKPPetan zehaztutako epearekiko.*



## ALEGAZIOA

Hiru kasuetan, lehiaketetako gutun-azalak irekitzea atzeratu zen Arabako Foru Aldundian gobernua aldatu zelako, 2007ko foru hauteskundearen ondorioz; hain zuzen, horrek ekarri zuen ARABARRI, Sako zuzendaritza organoen titular berriak izandatu behar izatea. Titular horiek 2007ko urriaren 5ean izendatu ziren, eta gutun-azalak irekitzeko egintzak hil beraren 15ean egin ziren.

Nolanahi ere, atzerapen hori formari baino ez dagokion alderdi bat ez betetzea izan zen, eta ez zuen eragin sozietate publikoen jarduera arautu behar duten kontratu arloko printzipioen inola ere urratzea.

### *Arabako Bideak, SA:*

- *AP-1 autobidea eraikitzeko obra kontratuan, Luko-Gipuzkoako probintziarekiko mugaren bide-zatian, eta obra zuzendaritzari laguntza teknikoa emateko kontratuan, aurreko urteetan 77.212 mila euroan esleitu zirenak, exekuzio epearen luzapenak kontratuaren aurreikusitako amaiera data ondoren onetsi dira. Honez gain, laguntza teknikoa emateko kontratuan, luzapen horietatik bi obraren kontratu nagusia jada amaitua zegoela onetsi dira, azkenean luzapena onetsi ez delako.*
- *Aurreko urteetan esleitu ziren obra zuzendaritzari laguntza teknikoa emateko bi kontratuaren, 2007ko ekitaldian 349 mila euroan onetsi ziren aldaketak ez dira agiri administratiboan jaso.*

## ALEGAZIOA

Bi oharrek formazko akatsak daudela adierazten dute (aipatutako kontratazio espedienteen izapide zenbaitetan gertaturiko atzerapenak, aldaketak administrazio agirian formalizatu ez izana), ARABAKO BIDEAK, SARI batere kalte ekonomikorik eragin ez dioten akats batzuk, hain zuzen.

*1.7 Araba Garapen Agentzia, SA: AFAk “La Blanca Pabiloia” eta “Samaniego Zinemak” foru areto modura gaitzeko zaharberritze lanak kontratatu, exekutatu eta finantzatzeko sozietateari egindako mandatuen exekuzio erregimena aztertu dugu; lan hauek 4.850 mila euroko zenbatekoarekin esleitu ziren eta 2007an exekutatuak zenbatekoak 2.961 mila euro egin ditu; honela, bada, ikusi dugu ez direla mandatuan aurreikusitako egitekoak gauzatu, erakundearen xede sozialean barne hartutako egiteko edo zerbitzu materialak ematea dena, izan ere, AGA, SAK soil-soilik berezko aurrekontuarekin ziurtagirien kontratazio eta ordainketa funtzio administratiboak gauzatu baititu, eta ez ditu obraren exekuzioari buruzko egitekoak batere gauzatu, bere xede soziala dena (E akatsa).*



## ALEGAZIOA

ARABA GARAPEN AGENTZIA, SAREN estatutueta 2. artikulua kontuan hartuta —hain zuzen, haren xedea hau ere izango dela adierazten baitu: "Arabako Foru Aldundiaren, foru erakunde autonomoen, zuzenbide publikoko erakundeen, eta haien sozietateen zerbitzurako eraikinen eta instalazioen obrak gauzatzea, eta horretarako beharrezko aholkularitza eta kudeaketa eginkizunak eramango ditu aurrera, obra eta instalazio horiek gauzatze aldera"—, sozietateak Arabako Foru Aldundiak Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 1eko 82/2005 erabakiaren bidez agindutakoa onartu zuen.

Agindutakoa betetzeko obra gauzatzeari dagokionez ezarri ziren baldintzekin bat (bosgarren hizpaketa), obren zuzendaritza fakultatiboa Arabako Foru Aldundiari eman zitzaion, Arkitektura Zerbitzuaren bitartez. Zuzendaritza fakultatiboak obra zuzendaritza, gauzatze materialaren zuzendaritza eta obrako segurtasunaren eta osasunaren koordinazioa barne hartzen zituen. Ondorioz, sozietateari egozten zaizkion proiektuak koordinatzeko eginkizunak eta kontratazio organoaren eta obren zuzendaritza fakultatiboaren artean bitartekari izateko eginkizunak egindako lanak egiaztatzeko ziurtagirien jarraipena eta kontrola egitera mugatzen dira, epeen betetze maila eta gauzatutako obraren bolumena balioztatzearen esleitu ziren proiektuen ildotik. Hori mamitu zen berariaz eginiko txostenetan, eta kontratazio organoari haien berri eman zitzaion.



## **ALEGACIONES DE LA ANTERIOR DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA AL INFORME DE FISCALIZACIÓN DE LA CUENTA GENERAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA 2007**

Juan Antonio Zárata Pérez de Arrilucea, en su condición de anterior Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos de Álava, en virtud del traslado que le ha sido concedido de los resultados de la fiscalización de la Cuenta General del Territorio Histórico de Álava 2007 procede a la presentación ante ese Tribunal de las siguientes

### **ALEGACIONES**

**Primera.- A LA SALVEDAD 6. DE LA OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LEGALIDAD DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA (ingresos presupuestarios)**

En el informe provisional figura esta salvedad con la siguiente redacción: *“La DFA no ha incluido dentro de los ingresos concertados comunicados al Consejo Vasco de Finanzas Públicas, la valoración de un bien recibido por la DFA en años anteriores como pago de deudas tributarias por importe de 1.000 miles de euros y aportado a la sociedad pública Álava Agencia de Desarrollo, S.A. para suscribir y desembolsar la ampliación de capital llevada a cabo en febrero de 2007 por dicha sociedad por importe de 2.760 miles de euros, según tasación pericial”*

La Ley 2/2007, de 23 de marzo, de Metodología de Distribución de Recursos y de Determinación de las Aportaciones de las Diputaciones Forales a la Financiación de los Presupuestos de la Comunidad Autónoma del País Vasco aplicable al período 2007-2011, en su artículo 24, establece:

“Liquidación de las aportaciones.

- 1.- Dentro de la primera quincena del mes de febrero del ejercicio siguiente el Consejo Vasco de Finanzas Públicas practicará la liquidación de las aportaciones.
- 2.- A los efectos de esta liquidación se tomarán los datos reales relativos a los ingresos en efectivo procedentes de la recaudación por tributos concertados a los que se refiere el artículo 1.1 según los datos relejados en las certificaciones emitidas a tal efecto por las diputaciones Forales. Cuando en periodo voluntario se admita el pago de la deuda tributaria mediante la entrega de bienes y derechos, el importe de la deuda cancelada en cada ejercicio con dichas entregas se certificará por las Diputaciones Forales. Este importe se adicionará a los datos de las certificaciones mencionadas en el párrafo anterior a efectos de realizar la liquidación de aportaciones. En los supuestos de cancelación de deudas tributarias en vía de apremio con la obtención de bienes o derechos, su valoración, a efectos de la liquidación de aportaciones, se incorporará a los ingresos sujetos a reparto del ejercicio en que se realice su enajenación o adjudicación con carácter permanente. En estos supuestos el importe a incorporar será el derivado de la valoración que de dichos bienes y derechos apruebe el Consejo Vasco de Finanzas Públicas, quien, cuando lo considere conveniente, podrá periodificar la integración de dicho importe a lo largo de varios ejercicios presupuestarios”.





Por otra parte, la citada Ley dice en su artículo 27:

“Obligaciones de información.

1.- Las Diputaciones Forales remitirán al Gobierno Vasco la información que a continuación se detalla:

- Certificación de los ingresos obtenidos por los diversos conceptos considerados como ingresos sujetos a reparto®, dentro de los quince primeros días del mes siguiente a que corresponda y conforme a los modelos aprobados en el seno del Consejo Vasco de Finanzas Públicas.
- Información relativa a los bienes y derechos en que se haya materializado la recaudación por tributos concertados, conforme a los modelos y plazos aprobados en el seno del Consejo Vasco de Finanzas Públicas. Dicha información constituirá el registro conjunto de todos los bienes y derechos obtenidos como consecuencia de la recaudación de los tributos concertados”.

Por ello, la alegación ha de girar necesariamente en torno a cuándo ha de entenderse realizada su “enajenación” o “adjudicación con carácter permanente” y cuándo debe comunicarse tal información al Consejo Vasco de Finanzas, para lo cual se exponen los siguientes argumentos:

